







FABLES
DE LA
FONTAINE

ATU


48552











N. 8650

R- 36289

ATV

18352

FABLEAC EDO ALEGUIAC

LAFONTENENETARIC

BERECHIZ HARTUAC,

ETA

GOYHETCHE APHECAC

FRANXESETIC ESCOARARA

BERXTTAN ITQULIAC.

Diriz, engma eta egua

Ischaz ex disterkein?

BATONAN

FORTE ETA LASSEBREC Impimaluac.

1832.

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

LIBRARY

540 EAST 57TH STREET

CHICAGO, ILL. 60637

TEL. 733-4331

1968

AITCIN-SOLHASAC

PUBLICOARI.

DUELA cembait dembora eracurtcearekin bi fable multço, bata Suberotar Yaun batec, bertcea Guipuzcoaco Yaun Aphez batec berxutan publicatnac : ethorri citçaitan guticia Laphurdico hitzcuntçan lan beraren eguiteco ; ez hec baino hobeki eguin beharrez segurki ; baina-berteela, eta Laphurdico mintçoaren arabera. Hala nola ecen, plat bera içan baidaitcke hirur cocinerez diferentki apbaindua, eta guisa bacotchac baidituzke bere çaleac eta yaleac ; hala orobat liburu berac hirur escribatçaille diferentez landuac eta moldatuac, badituzke publicoan eracurtçaille gustu diferentetacoac. Aguiari hunec ere baturen diçu bereac. *

Batec baino guehiagoc galde deçakete : baiña cer da fablea edo aleguia ? Galde hau naturalena da ezdakienaren ganic. Baiña gauça ez hain errecha esplicatcco dakienarentçat ere : eta ascotan guerthatcen baita gauça bat cembatenaz chehatcenago, eta hambateuaz

dela, arguitu behar bidean goibeltcenago; bel-
durrez hori bera dakidan guertha, erranen
diotet beraz hobe dutela berec ikhusi; eta aski
dutela eracurteea atentcione eta gosturekin on-
doan dathorcen fable horice bururen-buru :
eta laster endelgatuco dute fableac direla Eban-
yelioco parabola edo comparantcen idurico
condaira labur batçu, carloac fruitua eta açä-
lac mamia beçala, morala edo iracaxpen cem-
bait bere baithan cerratua dakhartenac : eta
hau fableguilleac fable bacotcharen ondotic
oçarteen ohi du. Baiña hau baiño hoberic bere
cascotic edo bihotcetic eracurleac athera uste
badu, cillegui çaio eguitea.

Norbaitec baderrake oraino : baiña fableac
gança ariñac, erguelac eta illhaunac dire;
haurrendaco baicen on ezdire. Bada gança bera
da erraiten ohi caramelu eta confiturez ere,
haurrentçatecoac dire : hargatic ikhusten ohi
da presuna handituac ere hetaz çale direla eta
yale : ez othe dute ere haurrec baiño hainitz
guchiago irexten? Gauça bera aditcen da er-
raten çoriz catechimiz ere; haurrendaco dela,
handiac badoazkela hura gabe. Engaño tris-
tea! Ecen nahiz catechima haur-danic den ira-
khasten, orduan delacotz izpiritua eguiteco

eta embraçu guciataric hux', eta catechimaco
 dotrina baitezpadacoa : bizkitartean ez çaiç
 erakbasten haur direlacotz, baina handitu eta,
 ordnan ikhasi leguca baliatu behar çaiotela-
 cotz bere bicitcearen erreguelatceco. Bada fa-
 bleac ere haurrer zaizcote irakbasten, ez he-
 kientçat baicie on eztirelacotz : ecen hec
 ikhasten dituzte lorietan eta condatcen, baiña
 perroketaren pare, mamiaz edo moralaz ca-
 su guti eguiten dutelarik. Handieç aldiz, era-
 curteen dituzte centçuzki, eta lirriz dandela
 irexten dute irakhaspen on cembait, bicitceco
 helantça ascotan balia dakioketena hux cem-
 bait ebitatceco edo berthute cembait praticat-
 cecco. Hala eguin behar lukete seguric : eta
 hori da edo içan behar da fableguille eta im-
 primatçailleen chedea. Eta Lafontenen fableez
 beçambatean, baderraket hemen; oradoreç
 bere discursetan, escribatçaillec bere liburne-
 tan eta edocein yende yakineç noiznahi hitz-
 keta edo conberxacioneetan badakharztela
 hetaric hartu asco treta eta berxu, erraten
 edo escribatcen dutenaren sustengu edo eder-
 gailla beçala. Eztire beraz fableac gauça illhaun
 eta funxgabeac : eztire funxgabe, funxgabe
 eta fuiñez arin direnentçat baicie. Bertcelacoec

badakite hirri eguiten; eta hirriz daudelaric, bere ona eta abantailla betaric atheratcen.

Finëan, ez othe da han edo hemen cembait izpiritu herxi edo mihi laster derrakenic: fableac, fableac! cer suyet edo materia Aphez baten cascoaren eta astien ocupatceco! Ez othe çuen bada bere estatu sainduan ocupamendu serio eta solidoagoric? holaco lan ergueletan dabillan Aphez baten cascoa, hum! solidoa othe da hambat eta berthutea segura?

Oh! emeki, emeki, othoi, anaia edo arreba! Aithorduco dauçut bada hasteco lainoki, nerenez caratera aski aleguera dudala; eta eforta guti eguin içatu dudala ere hortaric correytceco: Ez daucat ecen hori biciotçat hala nola urguillua, colera, etc. Bainan erranen dut halahala sobretan hortan ere iragaite tie beguiratcera eguiñ içatu dudala; eta hori aski daducadala: eta çue ere gauça bera eguiten baduçu, ederki eguinen duçula. Erranen dauçut eztela içatu nihoiz nihon legueric, comentu cembaitetan ezpada, hirri eguitea eta eraguitea, eta alegueratcea debecatu dukenic, oneski eta modeski eguiten delaric. Erranen derautçut, saindu iragan guchienac alai eta arrai içatu direla; eta batquec ere, ez saindu

ttipienec balere, bere liburutan jasco izpiritu colpe aleguera eta hirri eraguiteco tretu erein iñan dutela; eta gauça bera egun oro eguiten dutela Yaun misionest eta Erretorec ero, bereciki luesco prediatu behar dutenean, bel-durrez unha dakizcoten aditçaleac edo loac gaindi. Erranen derautçut : Yaincoac berac declaratcen darocula escribu Sainduetan, debo-cino alaia eta emaille arraia dituela meneratcen. Bertce non nahi beçala, Aphecetan ere, badire batçu bethi serios eta goibel dabilçanac; hortcic ederrenez ahoa mublatur dutelatic, nihoiz hirritto batez ere arguitaratcen ez dituztenac : bertce batçu aldiz, bethi bekhoa arrai, ezpaimetan bethi, erran badaite, birria hasia dabilcatenac, eta hortz guciac cenduat iñan arren, dituzten hobi guciac hirriric francoenetan iguzkitaratcen dituztenac. Cer bada? lehenbico horiec iñanen dire oro saindu; eta azkeneco hauc oro diabru? Ez daiteke holacoric : eta hortaz segurtha daiteke gorago erranctarie batbedera.

Bertce alde, Lafontenen fableduguian ezdut ixurat eta ahurca hartu, aiticie ikhusiz, miratuz eta berechiz. Lafontene gaiçoac nahastatu ditu bere fabletan asco arinscoac, legarxuac

eta izpirituen harrotcera eta bihotcen asaldatcera daronxaketenac : hec utci ditut bazter-rera. Baldin heien bidez eraguiñ iñau badu hirri asco, segur da azkenean berari isur-araci iñatu diotela nigarra franco.

Baina baderraçu bethi : Aphez batec ezduia eguinbide seriosagoric bere dembora iragaite-co? Bai duda gabe. Baina baderrat ausarki ez dabillala bethi hetan, ez deçakela ere. Badea nehor bere estatuco edo oficioco lanetan pausapen eta erlacharic gabe hariteen denic? Ez segurki : ez daiteke ere. Badeia emaric ere bere killoa edo orratça uteiric hauçora bedere yalguiten ez denic aphur bat hax eta aire hart-cera, dakitçanac condatcera, ezdakitçanac ikhastera, oren bat edo bertee hitzketan iragaitera? Eta ochala innocentki bethi! ochala elhe hec gucietaric, norbaiten omen onac galtcen ezbalu çathiric! Baditu beraz Apheçac ere bere pausa orduac, çoinetan ocupa baidaitেকে estatuco eguinbideez bertee cerbaitetan : eta horlatan, ordu eta asti horietaz baliatuz, bere eguinbide herxier batere bidegabe eguin gabe, ophe luce batez bedere, has eta osa deçake hulaco obra bat aise.

Ezlaucat beraz holaco erantçute edo erre-

portchuric mereci dudala; eta ene obraren alegueratasunac nere carateraren errespetua deusetan ere guti deçakela, edo hortan tra-
baillatcean, nere estatuco eguinbideer deusic ebaxi diotedala.

Baiñan obra bera, lanaren eguindura? gram-
maticaco eta neurbitz edo berxuen erreguela
gucien arabera moldatua dea? Ezduta pontu
horren gainean contcientciaco ausiki cembait
sentitceco? Eta nie baderrat: Badea grama-
ticaric gure lengüaiaren mintçoa osoki fixatu
duenic? Ez duia suberotarrac berea? Bacha-
nabartarrac berea? Bizcainoac berea? Guipuz-
coarrac berea? Eta guc Laphurtarrec gueurea?
Eta neurthitcen erreguela guciez errecibitu
eta berdiñ praticaturic badea? Eta içan ere
badaitekea? Nie eztut ikhusi holaco liburu-
ric. Eta iragan poeta edo bertsuguillen era-
curteetic ere ez çait guelditu holaco penxa-
menduric. Eztut beraz bilhatu baicen berxuac
eguitea içarietan ahalic yustuenac, eta bu-
ruac ahalic hobekiena parecatuac eta elkhar
iduriennac; haritu naiz emaitera lengüaiaric
clarena, liraiñena eta endelgatceco errechena;
enxeiatuz sartcera Lafontenen penxatceco
eta mintçatceco laiñotasuncan: eta badidu-

ritçait hunen tretu ospatuenetarie asco aski uruski itçuli ere ditudala. Ebitatcera haritu naiz frasa modorroxu eta corapilloxuac leitçalea nekhatcen, khechatcen eta desgustarazten dutenac : beldur ere banaiz batçuec causi deçaten fabletaco nere mintçoa simpleguia edo comunegua. Baiña cer eguiñ? Eguiña eguiñ. Bethi axeguiñ bat da eracurteen dena aise comprenitcea : hauc ere badukete bere meritua : bedere nic badakit baçutela bere nekhea eta ez chumea. Biz aski hemen pontu horietan nere escusatecco : alfer laite guehiago luçatcea.

Cer! Yaun Apheça, ez duçu bada oraiño hitzñobat, azken hitzto bat? haiñ diferencia othe çare bada egundaiñoco aphez gucielaric? Ah! publico estimagarria! erran banieçaçu lan hau eguitean ez nuela bertco chederic, ez gogoan bertco deusic baicen çuri hirri eguiñ araztea, eta açucerezlatu pillula cembait irex-araztea; gueçurra erran niro. Desiratcen dautçut beraz obratto hunen crosteco guticiarie beroena, eta achalaz hirriz çaudelarie, mamiaz probetchatcecco çoriona.

FABLEAC EDO ALEGUIAC
LAFONTENENETARIC
BERECHIZ HARTUAC.

LIBURU LEHENA.

FABLE I.

(2.^e DU LIVRE I.^{er})

BELEA ETA ACHERIA.

Musde bele cegoen haritz tontorroan,
Haidorric çaducala gasna bat mokoan,
Aldiz acheri Yauna goizdanie yaikia,
Cebillan non eraiki bere gosaria,
Usaiñac sudurra yo dioeneco,
Bele gasna-dunaz ohartu deneco.
Egun on, Yaun bele, maltçurrac diotço :
Çoñ çure ikhusteaç gaur demaitan placer !
Nere beguietan ala , baitçare eder
Eguiaz haiñ eder balitz çure canta.
Nola baita çure luma distianta ;

Oñtan hantan segur ez laite garabie,
 Abere ez hegaziñ, acinda ez choririe
 Ederrez çurekñ ihardue lironic.
 Elhe legun hantaz hacia gueia,
 Senti du beleac cantatu nahia:
 Mokho beltz çabala dueneco ideki,
 Gasna badoaco lurrerat itçuri.
 Erne horren beira çagon acheria.
 Segura içaiteco bere ase-aldia,
 Ez balitz belea-çatu hain gaïço.
 Acheriac eguiñ etçukeien frico.

Harc urriki baçukeien
 Ciñ ere eguiñ omen çuen
 Bainan ez beranteche haïcen.
 Berriz etçutela
 Atcemanen borla.

Oy! cembat mundu hontan oiñ bitaco acheri,
 Bele gaïcoen gostuz ohi diren bieci!
 Bethi da lausengaria
 Entçuillen gostuz hacia.

FABLE II.^a

(1.^{re} DU LIVRE 1.^{er})

TTIRBITTA ETA CHINAURRIA.

Ttiritta çagon cantari
 Udac ciraueiño bethi,

Cenean negua ethorri
Baçukeien penxa ceri,
Lau ill luce pasateco
Eta deusic ez yateco.
Ez chichari, ez marmotcha;
Etchea ceducan buxa;
Soillaruan ez bihiric,
Bankan ere ez laborerie:
Badoa bada hauçora
Chinaurria aizpa baithara
Gosetea cantatecra.
Agur, aizpa, banathorçu;
Certan naicen ikhus-açu:
Nauçun, othoi, urricari,
Prest indaçu cerbait bihi:
Hitz dautçut, duda ez çaitela,
(Çubore badakiçu berdiñ,
Gurekin hitça dela ciñ):
Bihurtuco dautçudala
Ethorri deneco uztailla
Intresekin capitala.

Chinaurria baita guti prestatçaille

Gutiago are emaille:

Badiotço ttrrittari:

Oro çaitte elkhari iduri;

Hartcean handi promesac,

Nasai ciñac eta hitçac:

Ondoan ill ephecoa

Nihoiz ez aguerteccoa.

Caritatezco leguea
 Ezta alferrac bazcatcea :
 Nekhez tugunac uztatu
 Nekhez gue utzten ditugu :
 Eta que uda cenean
 Certan bada ciñaraman ?
 Cantuz nindagoen bethi
 Çathorkidaken nor-nahi;
 Ez bekiçu gaitci hori
 Ay! ay! çure celebrea!
 Biba horlaco umorea!
 Cantuz uda ciñaraman?
 Emaçu bada orai dantçan.
 Banoa nere lanera
 Baçoazke kantatcera.

Fabetto hau certaraco?
 Oror irakhasteraco,

Adin gasteen dena alfer eta nagui,
 Çaharrean maiz dela gosc eta egarri.
 Eta huzcur dagonac denean lan-bide.
 Badukela ondoan cer yan gabe yan-bide.
 Finean gaizki dena ohitu gaztean,
 Çaharrean bioa çacua soññean.

FABLE III.^a(16.^a DU LIVRE I.^{er})

GUIÇONA ETA HERIOA.

Guiçon bat çathorren behiñ oiñanetic ,

Egur-çama batez soiña cargaturic.

Baçacarren ere dembora berean ,

Urthe askoren carga çama haren pean.

Oiñ bat oiñ bi nekbez cebillan gaiçoa

Hanketarie flaco, ephel paparoa ;

Hori çuen harrec arduraco taxa ;

Bide-ereditaraco çaiò escasten haxa.

Botatcen du çama haritz baten contra ,

Errara bera ere doaco gaiñera.

Ah! badaitekeia munduan guiçonie

Ni beçaiñ malurus denie ?

Naicenaz gueroztie munduan aguerto ,

Placeric ez dut dastatu.

Ascotan ez yatecoric.

Nihoizere ez descaxuric :

Emazte eta haurrac nonbaitie hazteco ,

Cergac ere pagatceco :

Eta gucien gaiñera

Hartceduna eta malobra.

Hau bicia , dio , hau bicia bada !

Ez , ez aboro nie eciñ yasana da.

Athor, herioa athorkit honera ,

Biei gaitz huntariç nere lechatcera.

Herioa dathor itchura tcharrean.
 Bere sega latça daucala soinean :
 Huna ni, erradac cer eguin behar den.
 Eta nere-ganie cer eskatçen duken.
 Ah! barkhatu, bada; nahi baninduçu
 Çama hau soifera goititeen lagundu?

Fable huni darraiona,
 Da seguidan dathorrena.
 Urrun deiño herioa,
 Fanfarrun dela gogoa :
 Harbill denean ikhusten:
 Bertcela dela penxatcen.
 Eta yasateco cer-nahi dukegun;
 Hobe dela bethi Yauna deithu lagun.

FABLE IV.^a

(3.^a DU LIVRE I.^{er})

IGUELA IDIAREN BERDIN EGUIN NAHI.

IGUEL bat cegoen behiñ idi bati beguira,
 Mirexten baitçuen baguitz hare çuen tailla ederra.
 Hauche da hau creatura galant eta yoria!
 Eta arroltcea beçain ni laburra eta tükia.
 Beha çadaçu, aizpa, ongui, naiz enxeatu nahi,
 Nolazpait naiteken eguiñ abre hau beçaiñ handi.
 Ecen eguia errateco yelosiac narama,
 Hexi aboa eta hor da basten pherma eta pherma.

Han naiz?—Ez oraiñon : orai?—Orai ere ez oraindie :
Orai hargatic banaite — Urrun çande içaritie :
Azkenean simple bura hainbertce da phermateen ;
Non bertan hasac ithoric baitu leher eguiten.

Ascoc ez dute munduan
Funts guehiago buruan.
Laborariac nahi du
Goldea pluman trueatu :
Eta utciric capelua
Chapelaz gorde burua.
Nesca lanecoac ere
Dama aditu nahi luke :
Baçαιο estofa eciña ,
Duken bedere façoïña
Artecoac nahi luke
Gorago dena imitatu ;
Beherean denac ere
Bedere artecora heldu.
Horla phermatuz sobera
Etcheac doaz lecera.
Baiña çuhur içaiteco
Batbederac içar beço ,
Ethorkiari tonua
Eta bolxari gastua.

FABLE V.^e(4.^e DU LIVRE 1.^{er})

BI MULAC.

Bi mula çoacen soîñez-soîñ bidean,
 Compai compaînero batasun onean:
 Oloa çaraman bizcarrean batac
 Grabeleticaco dirua bertceac.

Hunec, cargaz fiertua,
 Gora darama burua,
 Ocen croscoilen soinua.

Horla çoacila gutien ustean,
 Exaia aguertcen da bide sahexean:
 Eta oldartcen çaiio mula aberaxari
 Behatu gabe ere çaldare-dunari.
 Hortcez eta ustareoz curaye handian,
 Eguiten du contra aleguiñ gucian:
 Horla hari dela laster eillatua
 Sistaco cembraitez senti du larrua:
 Badoaco ordutic animu gucia;
 Plainuz, eta orhoaz, badago eroria:
 Hau cen beraz, dio, sari igurikia?
 Badoa bertce hau oso cen gucia!
 Compai, dio harréc ez due ez on bethi,
 Ohore eta carguz içaitea handi:
 Ni nauken beçala bahintz hi ere içan,
 Eyharaçain baten astoen arrolan;

Bahuken bidea nie beçala libro
Ez eta haiñ bertee açalean cilho.

FABLE VI.^a(10.^a DU LIVRE I.^{er})

BILDOKA ETA OKOA.

ARCUME bat gan cen ibai batetara,
Bere egarriaren ur frescoz hillcera :
Oxo bat ere ibai beraren aldean.
Hari cen edaten gaññeco partean.
Barur-gaiteie khecho cebillan malstroa;
Nola ere omen baitu yan-chahar gaitztoa,
Baita bildox mamiz cintçurra frianta
Laster gaichoari bademo disputa.

Certan, erguela, yarri haiz ur berean nerekin?
Hail, dostetae errabill-zkie hire iduricoekin.
Guelde hadi, eithala, ura çinkintcen dantae niri :
Bildoxae aldiz eztiki : nondie daiguiket hori?
Ikhus-eracu nola ura dathorkidan hor gaindi.

Ago ichilie, hiçzunteia,
Nabasten daie ur gucia.
Duela urthe bat apenaz
Mintçatu haiz gaitzki nitaz.
— Nondie hori eguin-nuken?
Yayoa oraiño ez nintcen.
— Ez bada hirea obena
Dukee hire anaiarena.

— Eztut batere anaiaric ;

Amattoe ezta ni baicic.

— Ez badue anaiarena ,

Duc iragan cembaitena.

Hortan gainera yaucirie ,

Harturic lepo-çakitie

Badarama oyhan-pera ;

Eta harekiñ gogara

Hauxten du bere barura.

Ez penxa hemen hargatic

Ez dela nihon oxoric ,

Oyhan cilhoetan baicic.

Baina guiza-artean ere

Ez haiñ arraro halere ;

Handi direnec chumeac ,

Eta aberaxec pobreac ,

Ez baituzte ere irexten ,

Badituztela leherteen.

Eta ondicoz moda dela

Tcharrenac amor demala.

FABLE VII^e

(12.^e DU LIVRE 8.^e)

URDEA , AHUNTÇA ETA CIKIROA.

Urde bat eta ahuntz bat eta cikiro bat,

Carroz betan çoacen behiñ merkaturat.

Hobeki errateco, baçaramatçaten,
 Eeen hec bere oldez naski ciren goanen.
 Urde Yauna eioan khecho guehienic,
 Ichil hura ez çaiteken currinea eguitetic;
 Bideac ciraueiño musica samiñac,
 Larrutuac ceduzcan beharri guciac.
 Ez dirau itçaiac, eta erraten dio :
 Yauna, çue çer duçu horla asaldateco?
 Ichilic çu ere nolaz ez çaudeske,
 Bertee bi presuna gocho hauien pare?
 Urdeac derra, ez naiz hoien iduriko,
 Bata baita simple, bertecaa aldiz gaiço;

Eta behar bada oraiño

Haue çortea berceiaçeo.

Uste deçakete daramatçatela
 Choilki esnea, eta illea khentcera.
 Nie aldiz ez baitut bici naicelarie
 Biciaren ordain emaiteco deusic :
 Bainan emaiteco dukedan bakharra
 Ondicozki baita hill eta chingarra...
 Ichil nadin guero zue erraten duçu?
 Itçai celebra çue aise dioçu.
 Baiña itçaiñac berriz; egonez oihuca
 Ordea ez dukeçu çue çortea çanya.

Arracoiña itçainac bai urdeac ere;
 Nie itçaiarekin baderrat halere :
 Gaitçari denean eciñ itçuria,
 Alfer dela luce negar issuria,

Eta berdin guero eguin behar dena.
 Hobe dela dadiñ cuchiañ eguiña,
 Baita conformatu goico nahiañ :
 Eta sentimendu haiñ noble den hori
 Ez badaite iñan urdetan
 Ochala balitz yendetan.

FABLE VIII.^a

(4.^o DU LIVRE IX.^o)

EZKURRA ETA CUYA.

Ongut da beñi eguina
 Yainkoac eguin duena
 Hunen frogaketa bada ibilli gabe
 Munduz-mundu, bidez-bide,
 Cuyetan aurkitcen dut nie.
 Peisant batec ikhusiric,
 Fruitu hori hain gordoa
 Guirtoia aldiz hain flacoa.
 Buruan cer çuen dio, gure erneac,
 Hauc guciñ Eguilleac?
 Çoin gaitzki çuen eçarri
 Horra-borco cuya hori!
 Pardi! nie nukeien eman
 Haritz hoietarie batetie dilindan;
 On çaiteken lana orduan :

Arbola nolaco,
 Fruitua halaco,
 Gañari traça emaiteco.
 Peillo, damuric ez hiotcen
 Häre erretor Yaunac predicatcen duen
 Yainco haren cõxeilluco,
 Hobeki lituzkec oro.
 Ecen-ecunac gogera,
 Cergatic, gogera, gogera
 Nere erhi-chingarra
 Beçambat ez dena
 Haraco-ban dago dilindan emana?
 Segur, eguille puchanta
 Hemen ekibocatu da,
 Nic ecen fruitu horier
 Guisa hurtan eçarrier,
 Cembatez behatcenago.
 Hambatez Peillori çαιο
 Leguez iduritcenago,
 Bat hartu hemen ustean,
 Hartu bertcea içan dela ustecabea.
 Penxaketa hortaz burua hartua
 Gure guiça dago net embracatua:
 Hainbertee izpiritu duena cascoan,
 Ez daite sar, dio, niholere loan.
 Zuhaitz baten-pera badoa etçatera,
 Badathokio ere loa betphurura.
 Bada lotan dagolaric
 Ezkür bat haritz gainetic

Erortcen çaiò gainëra
 Colpatcen ere sudurra
 Colpe hortaz atçartua
 Bere sudurrera daramala escua.
 Ezkurra ukitcen du biçarrean lothua.
 Sentitcearekin çaurthua sudurra
 Bertce solhasic hare derra :
 Oyei! odola dut, dio,
 Cer cen beraz guerthatuco
 Erori izanbalitz arbola gainetic
 Ezkurraz bertce cargaric?
 Baiña uruski ezkurra cen.
 Ni çoliñ gaitzki mintço niñtceñ
 Nere arpeguia certan cen
 Ezkur hau cuya içan bacen!
 Yaincoac nahi içan eztu,
 Segur, arraçoña ukhan du;
 Horren motiboa niri
 Orai çait aguertcen clarki.

Bego, bego Yaungoicoa,
 Obrari soberanoa;
 Bedi bethi laudatua,
 Peilloc dio, çanyatua
 Deçarla ezcurra goican,
 Eta cuya beherean;
 Eta mundua guerora
 Bioa ohi guisara :
 Ez dagocu pleinla guri;
 Cer den combeni hare daki.

FABLE IX.^a(10.^a DU LIVRE VII.^a)

PEGAR ESNEA.

ANETA çoan hatterie
 Hiri hauçocora goicie :
 Pegar bat esne buruan,
 Buruta eder bat estrainan.
 Baçaraman hare hargatic,
 Buruan arranyaturic,
 Pegar esneaz-berteerie.

Husu eta ariñ çoala aleguera bidean,
 Bere baiñhan huna bada hare nolaxu cerasan.
 Nere esnea saldu eta harrec eman dirutic
 Arroltee docena cembait erosico ditut nie :
 Chitotarie, acheriac nahi edo ez nahi,
 Urdetto bat erosteco gueldituco çait aski :
 Ene urdea ya ttarroa, yangabe haiñitz bihi
 Arthatuz ongui, çait niri eguiñen urde handi :
 Hau saltcearekin aldiz embraçu handi gabe,
 Umedun behi baten naiz betan eguiñen yabe :
 Horla dotea billduric falta eguiñ ez deçake,
 Ezcontça on baten bidez naiz eguiñen etheco andre.
 Baiña hementchef Aneta
 Guerthuz behatztopatcen da.
 Eta doaco pegarra
 Bizcarra-gaiñdi lurrera.

Adio chito eta urdeac;
 Adio behi, chahalac;
 Adio dote eta ezcontçac,
 Eta fortunazco amexac.
 Nere nesea guelditcen da
 Lehen cen beçala Aneta.

Fable hunec irakaxpen haifichco baditdzke,
 Çue har eçaçu gogoan ongui bedere hauche:
 Gueroaren gobernua utz-oçu bertce bati,
 Aitcitic hots-emoçu çue oraicoari bethi.
 Gogoetan dabillana majz da behatztopatcen,
 Içarrer beha çoana, cilborat erori cen:
 Gastelu eguiten hari espainian baçare,
 Francian ez daiguikeçu ez borda tehar bat ere.

FABLE X.º

(12.º DU LIVRE V.º)

BI MEDICUAC.

BEHIN dotor Berrigaitce.
 Ikhusten çuen eri bat.
 Eri bera Berrionec
 Ikhusten çuen orobat.

Hunec cion, eri hunec eman deçake onera;
 Harrec ez, abian da hau cõnduen ikhustera:
 Harrec cion: bedi purga, hunec ez, bedi sangra:
 Ondicoz seguituz hunen ordenantça hazkarra,
 Ustecabea eria badoa bertce aldera.

Biee gutiago ez dute historia eantateen;
 Batec cion : hill da bada, hori nie erran nuen:
 Bertceac : nere mannac harrec eguin balitu.
 Ez choilki hura eteen hillen, baiña çaiten sendatu.

Baldiñ eritcen hacera
 Deith çacu aldamenera,
 Medicu bakhar bat choilki:
 Ona bada, hau bada aski.
 Bi hoberen betan haiño,
 Arteco hat lehenago.
 Baiñan ez penxa hargatic,
 Bethi gaitz gucietarie
 Çaitucla libratueo :
 Ceren bat baita ethorrico
 Çoiñetarie sendateeco
 Ecin baita causitueo,
 Ez escoletan doteric,
 Ez barateetan helharrie,
 Ez botiketan drogarie,
 Ez peisant çarlatanic,
 Ez ema begui-gorriric.
 Orduan cofesor on bat
 Deith çacu çue aldakera,
 Ordu haiñ prociatu bat
 Hiz behautçu itçurteera.

FABLE XI.^a(9.^o DU LIVRE V.^e)

BI PELEGRINAC ETA OSTRIA.

Bi pelegrin çoacila costa heguian gairdi,
 Hara huna beha, non cer çuketen hec ikhusi :
 Ikusten dute ostria bat harcan çabaldua,
 Mami umo eta guichen bat ceducala aguertua :
 Batec derra : cer ostria, nerea da gucia ;
 Segur naiz ecen lehenic dela nie ikhusia.
 Bertceac : ez, heçatuko horrec ez dautçu ganga ;
 Çuc baiño lehen segurki nie ikhusia baita ;
 Lehenac bartu nahi du horbilla direnean,
 Bertceac dio utz-arazten pusadaco batean.
 Hunec tira, harrec pusa, horla direla hari,
 Yaun yuyea hor da guerthuz iragaiten han gairdi
 Çoinac bertan nahi baitu fiñatu hauci hori.
 Bere causa pleiatu bacotçac duenean,
 Yuyea çale prudentki yarteen bien artean :
 Eta serios harturic escuetan ostria,
 Hastecotçat irexten da huenen mami guria
 Coehcotaric bana guero demaie partideri,
 Emoçue, derraiela, esker yusticiari.

Hauciac nihor ere eztu

Nihoiz ere aberaxtu ;

Mamirican baldin bada

Hura yuye yaunentçat da.

Partidak doaci berdiñ ,

Çoiñ bere açalarekin :

Edo hobeki , doaci

Nola baita erraten ohi,

• Hau athorra arras, hura billhuz-gorri.

Hauci onenari

Eguinje ihesi

Acordu tcharra ere hobe da onhexi.

FABLE XII.^a

(17.^e DU LIVRE I.^{er})

BURU PELATUA.

Guizon bat celaric ondutchea adiñez,

Ez gazte ya aboro , çahar ere arras ez :

Bi colore yadan eguiña bilhoa

Baiña den berdena oraindie gogoa

Chedea hartcen du bada ezconfcecoa.

Beguiztateen ditu hurbill alhargun bi;

Batee ere ya eman ceican lanic aski.

Data cen gazte, eta eder, baiña pobre,

Bertcea onduago , baiña bacen dote :

Baita urthen laidoac erreparatceco ,

Calitate hunec bacituen asco.

Galaia badabill batetic bertcera ,

Amorante urusa bici da gogara :

Bi donteeillec ere hartcen dute ederki,

Baiña beren pare dute ikhusi nahi.

Gazteac cascoa bi ezeuz harturic ,

Bilbo çurituac khentcen daizca errotic:

Bertceac aldiz beltz daudenac oraiño
 Diozca ebakiteen azkenecoraiño.
 Eta biec dute yorratzen hain ongui,
 Non baitu cascoa meloi bat iduri.
 Noizbait guigontehoa denean ohartu,
 Cascoa frescosco nola senti baitu :
 O dontecilla ederrac! gusta baçait ere,
 Lecione ontcho bat hartu dut halere;
 Edocein bitarie nukeien emazte,
 Nere galtçac laster bare nahi lituzke;
 Çoazte, dio, arrebac; eta biphilltceco,
 Eçaque billha bertee cembait casco.

Eta ordutic hura alde bat urrundu cen hetarie;
 Urus ez bacioten hec biphilldu hura baicie.

Haiñitcec yoco berean
 Galtcen dute ostekabean,
 Bilhoa ez bada centçua;
 Centçuarekin dirua :
 Eta azkenean badaude
 Ez diru, ez eta ohore;
 Nola bertecia ille gabe.
 Bertee hatçuec oraindie,
 Dontecilla cembaiten gatic
 Dute osoki choraturic,
 Erreteen bere cascoa;
 Ez çaiten hambatekoa,
 Cer heriotec tontoa!
 Guciz deithorateccoa!

FABLE XIII.(5.^o DU LIVRE VI.^o)

ASTOA ETA CHACUR TTIKIA.

GUTIAÇ dire ceruaz hala laboratuac
 Agradatececo dohaññaz sorteean dohatuac;
 Hlau heier behar çaie utci : eta ez ičan gaiçoki
 Fable huntan aguerteen den astoaren iduri:
 Çoiña nausiari gostu guehiago emaiteco,
 Eta maitha garriago harentçat içaiteco,
 Careçatecera hurbilldu bai citçaion galanki :
 Hala eguiten chacurto bat baitçuen hare ikhusi.

Nola! chacur tehar hori,

Haiñ goçhoki da bici,

Bere nausiarekin,

Baiare andrearekin :

Hor da pherecatua,

Baita besarcatua :

Horren mereçitceco,

Cer duke eguiteco ?

Patta bat hedatceco!

Baldin hortaraco

Hori badaite aski,

Niri ere iduriteen çait daiguikedala hori.

Hortan bere nausiari badoaco arraiki,

Eta adar çabarkitu bat alchaturic eztiki,

Erortcerat utzten dio cocoxaren gaiñera
 Botatcen duela betan orho eder bat airera.
 Ola! ola! cer careça, cer musica charmanta!
 Nausiac dio furian : Nere baistoia non da?
 Escu biez hau barturic, comeni cen beçala,
 Luçaro asto gaiçoari çurratcen dio açala :
 Eta orduco comedia cen acabatu horla.

Ez hortcha çue çure anteca,
 Bacotchac badu berea :
 Baldin utciric çurea
 Bertec beçala eguitea.
 Nihoiz badaçu billhatcen
 Onic ez duçu eguiñen.

Yendea yendetie, hain da berteeelaco,
 Nola ehacurto bat astotie baidago :
 Çure antecie campo eguiten tutennac,
 Oker daude nola, ezkeraz eguiñac.
 Ez badakharte ere bastoi ukhaldia
 Badakharte yenden, burla eta birria :
 Hau ere ez baita loria.

FABLE XIV.^a

(21.^e DU LIVRE V.^e)

ASTOA IHIC'AN.

EYHARA bateco astoa
 Caseoz baitcen harroscua,

Bere lagunac utciric,
Lehoiñ larruz bestituric,
Goan cen behiñ ihicira
Buruaren arintcera.
Baçabillan fanfarruna
Arras iduri lehoia;
Ikhusten çnten orduco
Lehoia hain tailla ederreco;
Laur atçetaco yendeac
Ikhara handiz betheac
Ihes çoacin guçiac.
Ongui çoacon afera
Libertitcen cen gogara.
Baina eiharaco mutilla,
Illkia cen haren billha,
Berekin bere makilla.
Ikhusten duen pontutic
Eçagutcen du urrandic,
Bi beharri puntetarie.
Helas! gorde eciñ cituen
Lucecheoac balçeituen.
Eta bastoi ukhaldica
Darama abrean laurenea.
Eihara-aldera masca,
Harrituac oro çauden
Guiçon hau nola hari cen,
Eiharara Lehoi biltteen.
Horla andre batçuec ere
Ihicira illkitcen dire;

Berteen arropac soñcan,
 Arranya ederrenean,
 Ez dutela falta deusie,
 Barneneco linya baicic,
 Baiña ardiexten ez dute,
 Laster eçagun baitize:
 Nola astoa beharritic,
 Ilec bertee cerbaitetarie:
 Eta illki ciren beçala,
 Ongui nahiace bertecela
 Doaz çoin bere etçhetara,
 Çarpill uteien harteera.

FABLE XV.

(3.^e DU LIVRE VII.^e)

ARRATOINA HERMITAU.

LEBANTECOEC diote
 Eguia den badaiteke,
 Çiñ eguin nahi ez nuke.

Arratoi bat lebenago, bere baithan sarthua,
 Munduco gan-ethorriez arras desgustatua:
 Gucier adio erranie erretiratu cela,
 Olandaco gasna baten barnean bicitcera.
 Celdatcho bat eguiñ eta haren erdi-erdian,
 Gochoki han biei ceta urus bakhe handian.

Atceez eta hortceez hariz bere bici-tokia,
 Eçarian eguiñ çuen gustos eta complia.
 Gueroazko grina gabe bethi içan oraicoa,
 Bethi prest baitçagokion hazerri gustukoa;
 Yadan eguiña cen guichen eta gorddo-gorddo:
 Hain da gorphutçarentcat on sosegu barnecoa.
 Urus arras, hanc ez çuen desiratcen bertceric.
 Baiña mundu huntan ezta urustasun osoric,
 Ustecabean badathor nahigabe nombaitic.
 Yan ondoan egun batez dagolaric siestan,
 Arrotçac baditucla senti du bere borthan:
 Ideki diotenean, bizpahirur Yaun gazte,
 Aguerteen çaizco, direla miutçateen hunelache:
 Hemen, Yanna, gathorçkitçu beharrac hartararic,
 Urrun oraiño guioaz, eta gathorz urrundic:
 Bai ahal dakiçu naski ya aspaldi baducla,
 Gathuen ta gure artean guerla bicia dela;
 Ratapolis deithatcen den gure hiri nausia,
 Heien armadac deucala setian eçarria;
 Embachadore goaci gorthe estranyeretara
 Dukegun erakhar cembait gure socorritcera.
 Baiña gure errepublikac delacotz pobretua,
 Partiadan ez deraucu bolxa utci garnitua.
 Cerbait emaitceez çue baldiñ baguinitçatçu lagun.
 Gure chedea uruski arren compli deçagun;
 Othoitz guinero garxuki gure aldetic cerua,
 Diçun arren doblaturic emaitçaren pagua.
 Arenga ukigarri hori cenean acabatu,
 Ermitaiño celebra hula çaien mintçatu.

Ay! nere haur bereciac
 Munduco gauça guciac
 Aldebat ditut utciac :
 Hemen iraganetarie
 Ez çait ya behatcen deusic ;
 Ez daiguiket deus bertecic
 Othoitz eguitea baicie.
 Cerna dut othoitzturen
 Bere laguntça diçuen
 Eta horiche erran eta,
 Cerratu cioten bortha.

Nor uste duçue hemen
 Nic dudala seiñalatcen?
 Fraidea othe? — Ez fraidea
 Nic daukat on-eguillea.
 Apheça othe? — Ez oraino,
 Apheça ematera dago :
 Cikhoitça segur hobeki
 Gauça eenen yakiña aspaldi,
 Holaco yenden doctriña
 Da, bedi nor bere diña :
 Nor ere ezpaita beraren
 Hambat gaitztoago haren :
 Bacotcha beretçat
 Yaincoa ororentçat.

FABLE XVI.^a(9.^a DU LIVRE VIII.^a)ARRATONIA ETA OSTRIA.^a

LANDA batean çaucan bere egon tokia ,
Arratoiñ gazte batec primeçaz utcia :
Arbasoz-arbaño hau ethorria çuen
Oro han bici-içan , han hill ere ciren :
Berac askenecotçat atta agudiari ,
Beguiac ciokitçan hilltecan han hexi.
Landa harrec bacemon nondie ongui bici ,
Baçakhartçan urthean bihi suerte hi.
Baiña nola baitçen cascoz ariñhecoa
Mundua ikhusteco hartçen du gogoia ,

Eta curri-curri gatecoa
Iki deneco chilotie
Lur-muillo baten gainetie ,
Bi pattac gurutçaturie ;
Hauche da , dio , mundga
Ederra eta hedatua !
Huna Larhun , bara Haia*
Sator-lan hasi gucia
Badiduritço mendia.
Cembait egunen buruan ,
Aurkitçen da ixas-cantuan ;
Han çanden multçoca ostriac
Marea ganac utciac :
Oro uste du arratoiñac.
Direla liñaco untciac.

Oy! nere atta difuntoa
 Çoiñ ciñen guiçagaichôa!
 Mundu huntarie goan çare
 Haiñitz gauça ikhusi gabe:
 Hori dægoitea bethi,
 Hanxean gathua iduri.
 Huna bada guc mortuac,
 Mendi, haran, desertuac,
 Yadan iragan ditugu:
 Baiña edan hetan eztugu,
 Huna erresuma hecea,
 Eman çaicu ikhustea.

Bere gogoan holaco gauçac darabilzcala,
 Ostria bat ikhustendu çabalteen hari dela;
 Mami guichen, umo, eder bat erakhusten duela.
 Hau cer da, derra arratoiñac, badiduri chingarra,
 Ene uztez ase-aldi on bat da nie eguin beharra.
 Bi yauciz tirria onean aldera badoaco,
 Eta mami guichenari horteez hor loteen çαιο:
 Baiña ostriac colpe colpez coscoac cerraturie,
 Segadan nola gaichea harteen du muturretie
 Horra cer bada ez yakiñac ohi duen eguiten:
 Chilotie tristea ochala nihoiz athera ez bacen.

Arratoiñaren çortea
 Ezta parerie gabea:
 Oiñ bitacotan cembatac
 Bere aita-amez unhatuac,
 Cingar, arto eta pitarraz
 Eta bere capusaillaz

Supherki desgustatuac,
 Dohacinac hiritara :
 Gaicoec nste dutela
 Hetan bicico direla
 Ttoina eta oillascoz gogara.
 Baifia libertinkeriae
 Handic laster miseriae,
 Ondoan gaitztakeriae,
 Badaramatça tristeac
 Ya guehien-guehienac,
 Batquec ospitalera,
 Bertceac galeretara,
 Bakharrac ere urkhabera.
 Etchetan egon balire
 Oraino biei laitezke,
 Ohore ere halukete.

Ochala oroc balaukate buruan fineatua,
 Ondoco herxu banietan dathorren errefaua:
 Haguitz hobe dela etchean segura den artoa,
 Ecenez ttolina jin nombait badaitekela:
 Eta centçuz yocateecotz, nihoiz segurecoa,
 Airecoaren menturan ez dela utztecoa.

FABLE XVII.

(4.^o DU LIVRE VII.)

ANIAMOKOA ETA ARRAINAC.

ANIAMOCO lepo-luz,
 Moco-luz eta çangar-luz,

Bere bekillen gainean
 Noizbait norapait cíoan,
 Norat ez daucat gogoan.

Ibaia baten heguitic penxaketa çoala,
 Urean ikhusten ditu dosteta cebilltçala,
 Içokintcho eta platucha aingüira eta amorroñac:
 Mokoaren azpiraiño dathorzkio choroac.
 Hola! dio, maltheñoac, aleguera guirade?
 Hobe duçue hargatic ez naicen orai gose:
 Oren bat gora-behera berriz naiz pasatueo,
 Orduan çuen dostetac ditutçue ahanteico.
 Hori cerrala maistroa cen abrerai iragan:
 Ay! cer asea sarriche hare berekin cerasan,
 Eguin beharco dudan nic, naicenean gosetu!
 Oren erdi bat apenaz cen oraiño pasatu;
 Gormant handia badathor leheneco tokira
 Goseac yadan baitio kilicatcen cintçurra:
 Baiña arraiñ gordoac ciren bertcetara gan handic;
 Ez dathoreo bistara bi platutcha mehar baicic.
 Bah! bah! dio, bechtela hauc: hau ezta nere plata;
 Arraiñ chirtchill hori bethi, erientcat utzten da.
 Hortaric yan baiño lehen, deçagun iguriki,
 Cembait gordoago oraiño ethorrico da naski.
 Badago: baina gordoric ezta agueri batere:
 Azkenean charbo cembait hurbilltteen da halere.
 Cer ahotara neretçat ni amiamokoa!
 Hoiñ gutirentçat eztut nic idekitcen mocoa.
 Badago oraiño ere, baiña gosea ez duke sofri,
 Hamicatua azkenean partitcen da tristeki.

Doalarie, bide-erdian bare bat du topateen,
 Dena ere on, derralarie, mocoarekin bililtzen :
 Haxgorapen bat bota eta, bertecela ecin eguiña,
 Haiñ gogotie irexten du, balitz nola içokiña.

Yendetan asco badire
 Animale haren pare :
 Egun asean badute,
 Biharraz anxia ez dute.
 Denean daiguie, bon bon,
 Aldiz ez denean, egon.
 Batçuec dute utzten ona,
 Beharrez hobeia dena :
 Biac galtzen ohi tuzte,
 Nola mereci baitute.

Eta mandotie cotchera cirenac igan nahi,
 Maiçago mandotie haiñac astora dire yauxi :
 Urus ez badire oraino beherago erori.
 Parada ona noizbait aguertu deneco
 Illetarie betan laster loth çakizeo :
 Eren itçurtcera çuc utzten baduçu
 Ondotie ez duçu ceren abiatu ;
 Ez egon haren aiduru.

FABLE XVIII.*

(5.^e DU LIVRE I.^{er})

ORA ETA OXOA.

Heçon eta larru ya oxo bat eguiña
 Haiñ ceucaten oreç arthaldeen griña :

Cebillala cerbait non causi ceçaken,
 Barur luescoa eguiñ ya baitçnen:
 Batcen du ora bat larri ta hazcarra,
 Guicen, legun, çabal çaucana bizearra:
 Hau atacateca, eta çathitcea,
 Çaiteken bai haren orduco chedea.
 Baiña guducatu hortaco behar cen,
 Eta orac guduco hazcar cidurien.
 Oxoac beraz humillki aldera badoaco,
 Eta cerbait ere moldeç solhasean sartceco:
 — Agur, kide, derro, cer! çu toki hautan?
 — Bai, Yauna, baztertu naiz ustekabetan.
 — Ardura eder duçu, milla demuntchoa.
 — Badukeçu, Yauna, bardiñ horlacoa.
 Ni beçaiñ gordo ere, baçaitezke eguiñ çu,
 Çacurraç diotço, nahia aski duçu.

Oyhan horieç utz-kitçu;
 Haguitz bobç içanen duçu:
 Çure kideac hoietan
 Bici dire miserian;
 Bethi gose eta hiratu,
 Denac guiça gaicho batçu;
 Ez dutela bertce fiñic,
 Goseac hillteca baicic,
 Cer! deusic seguraturic.
 Behiñere ez ase-onic!
 Oro ezpataren puntatic!
 Çatho, çatho, nere ondotic:

Çorte hobe bat haguitceç dautçut seguratuco;
 Bertcetac, oxoac derro: cer duket eguiteco?

Orac dio deusic casiē :

Casatecco atheritic

Yende bastoi dun harroac

Eta escaille çarpill-dunac ;

Lausengatcea ethecoac :

Eta Yaunaren nahiae ,

Berthetcea ongui guciac.

Hau çue eguiten baduçu ,

Saritçat emanen caitçu

Epher, urço eta oillasco

Hechur mami-duna franco.

Bai eta are careça asco

Oxoari goçoz dario yadañic ,

Caburiña hortcetaric,

Eta nigarra beguitic.

Horla doacela oxoac orari ustekabez,

Ikhusten dio lepoa larrutua cerbaitez.

Kompai, diotço, hau cerda? — Cer? — Ikusi'dudana,

Erta deus, dio orac, naski, nere estecaren lana.

Bertceric ezta, eta horree aiphua ez du balio ;

Cer! estecan çaozte! bertceac badiotço ;

Eta gogara ibillteera ezçare beraz libro?

Bechtela çure othuruntça, eta frico guiceneç!

Libertatecaren ona balio ez dukete hec ;

Ez eta ene beguietan tresoric handienec.

Hori cerrala oxoa eman citçaion ihesari ;

Eta gaiçoa oraiudic ez omen daite gueldi.

Badaiteke gure oxoa

Cen ciñez filosofoa.

Baiña nie guciac-gatic
 Hauta niro bietaric :
 Onxa aseric bicitcea,
 Eta azpico egoitca:
 Ecen ez libre ibilltcea,
 Eta goseac hilltcea.
 Bacotehac du bere oldea.

FABLE XIX.^a

(13.^e DU LIVRE I.^{er})

GHONAC ETA ASTOA.

Bi larroin behiñ yoca hari ciren goicetic ,
 Biec ebaxi çuten asto baten gainetic ;
 Batec nahi baitçuen abre ebaxia saldu,
 Bertceac aldiz hura saldu gabe goardatu.
 Ukhabilcoac husu hec truceaten cituzten ,
 Ya çaatocac bien cascoec cituriten
 Yabe gabe cre astoa laster gueldi çaiteken ,
 Mutillac hagnitz hazcar eta aserre baitciren.
 Baiña heren ohoiñ bat aguertu cen betbetan ,
 Çoiñac, astoa emanic here isterren artean ,
 Laur atçetan sunxitu baitcen toki hartaric ,
 Mutill gudarçiez casu guti eguiñic :
 Hanc çaitczken orduan colpecatic baratu ,
 Seguitceco ez baitçaien motiboric guelditu.

Horrela dire hauciac
 Fiñateen casic guciac.

Partidak dire bai lothu,
 Eta luce guducatu,
 Pletiatu gathascatu;
 Fresac ere montoicatu:
 Badathor heren ohoia,
 Hura da andre yusticia,
 Hunec badarama astoa,
 Acabo ordutic pleitoa.

FABLE XX.^a(17.^o DU LIVRE 8.^o)

HIRICO ARRATOINA ETA BASERRICOA.

Hirico arratoiñac behiñ
 Behar ciola besta eguiñ,
 Baserrico arratoiñari;
 Haguitz moduz eta oneski,
 Deithu çuen bare etchera
 Minarritzez asetcera.
 Napa eder baten gaiñean
 Cuberta eçarria çatçan;
 Penxa çachu cer bici hec
 Çuten eguiñ compai bieç.
 Mahaiña arras beñhea çen,
 Deusen ere escasic etcen.
 Baiña noiz eta baitciren
 Othuruntça goçoaren
 Hoberen-hoberenean;
 Ikharatcen dire betan.

Norbaitec hoxekin baitu
 Salaco bortha higuitu.
 Hiritarra saltatcen da,
 Badarraio camarada.
 Baiña abarroxi ezta ya;
 Hor cena, gana iñanen da.
 Goacén, dio berehala
 Hare, utci dugun lanera:
 Dugun errepasa acaba.
 Ez, berteeac derra, aski da.
 Placer eguñien dantaçu
 Ethorri nahi baduñ,
 Bihar chandez nere etchera
 Diadecampo eguitera
 Badakit nic ez dudala
 Escañtceco que beçala,
 Gortheco plat aberaxie:
 Ordaiñez han ezta deusic,
 Asaldatcen ni nauenic.
 Nic yaten dudana etchean,
 Yaten dut bakhe onean.
 Ez escañi niri placerie
 Loxac trubla deçakenic.

FABLE XXI.*

(17.^e DU LIVRE VIII.^e)

ASTOA ETA ORA.

ELKHAR behar da lagundu
 Naturaleçac nahi du:

Astoa bargatic behiñ legueaz cen trufatu.
 Ilandia baitcen harentçat, eta ezduket esplica
 Ilori nola cuen eguiñ; orhe oneticean baita.
 Bacioan herriz-herri gogoan gabe deusic;
 Sahexean ora eder bat, nausia guibeletic.
 Nausia lotan cen sarthu, aldiz astoa albara
 Ateca çabal batetic gan cen phentce batera.
 Hango belharra iduritu citçaiõn çalegarri;
 Nahiz han astacarloric ez çuen hare ikhusi:
 Plat hunen faltan ezta iñoiz othuruntçarie utci.
 Aldi huntan asto Yauna pasatu cen halere,
 Harentçat hain frianta den plat faborita gabe.
 Gosetua bere aldetic çacurraç othoizten du,
 Aphur bat lagun on guisa, nahi çaiõn aphaldu:
 Arren borrela atcemanic libretaco otharra
 Athera deçan hartaric certaz yabal gosea.
 Arcadiaco chantreac ez dio eguiten contu,
 Hartz-colpe choil bat galteeaz, ceren bailuke damu:
 Gormantac eguiten dio gorrarena luçaro;
 Noizbait ahoa bethea, hula mintçatcen çaiõ:
 Kide, nere conxeillua due eçaken iguric,
 Nausia daiten athera lo duen ederretic:
 Ecen berac falta gabe,
 Arras trankill bahagoke,
 Iratçarri den pontutic
 Emanen dauc otharretic
 Hire portei ohitua:
 Eteen oraiño ichildua,
 Horra non oihan çolatic ikhusten duen yalten;
 Bertce acinda gosetu bat, oxo Yauna hura cen.

Astoac oi hu orari dathoreon laguntcera ;
 Ora ezta muguiteen, segur ez çagoken hortara.
 Ordainez erraten dio : kide, diçut conxeilla,
 Eguiçun ibez, nausia dadiñ artio atç artu :

Ya luçaro egon ez daite;
 Hox bada hox khecha çaita :
 Ukho phentçe guicenari,
 Eman çakizco ihesari.

Eta baldiñ oxo yaunac atcematen baçaitu
 Uztarco batez haidorki matrailla haux eçoçu:
 Haiñ chuchen ferra berriac dakhartçu ere atçetan
 Eta banintz çurç plaçan
 Oxo a niro betbetan
 Heda laur atçac airetan.
 Haiñ ederkî mintço cela, oxo yauna aldera cen,
 Eta lepora yauciric asto yauna itho çuen.

Hunec cer erran nabi du
 Behar dela elkhar lagundu
 Asto, orentçat bada aski
 Morala hori segurki;
 Bertçe hau ere bai naski:
 Eguioc eguilleari
 Baiña yende christauntçat
 Oraiño bada bertçe bat

Gaitz eguilleari, çuc on eguiçoçu,
 Çuri eguin gaitça, onez garai çaçu:
 Othoitç ere eguiçun, çuri yaçarlentçat,
 Mundu huntaco hau, ezta gocho hambat.

LIBURU I.^a

Bertceco aldiz hobeia da;
Çure çortea hor baita
Kestione seculaz da.

FABLE XXII.^a

(13.^o DU LIVRE III.^e)

OXOA ETA ARDIAC.

MILLA urthe eta guchiago oxoec ardiekin,
Guerlan iragan ondoan, bakhea çuten eguiñ.
Batçuen eta bertcentçat hobe çaiten hori;
Ecen, baçuten oxoec irexten cembait ardi,
Artçaiac baçakharten maiz oxo larrua estalki.
Ardieç soseguric ez bere aiba-lekuetan;
Oxoac nihoiz trankill ez bere ardi masacretan:

Othuruntça bat ecin har

Non etcen erne egon behar.

Bakhea eguin çuten beraz: bai eman ere erresac,
Ardieç çacurrac eta oxoec bere umeac.

Cerratu çuten patua

Formal eta complitua:

Icendaturic oraiño

Ilortaco comisario,

Bere agudeac oxoec,

Bere ahariac ardiec.

Cembait demboren buruan ardien errapean,

Oxo-kumeac aphur bat gothortu cirenean:

Hobiac ere harmatu

Odolaz ere gurendu:

Sorhoan arcumiekin dosteta çabilltçala,
 Egun batez oroc elkhar aditurie beçala:
 Artçaiñac cirela ganac norapait bertectara;
 Bildox lainoer furian yauzten çaitze gaiñera:
 Eta ya lanean chefo, bildoxie guicenenac,
 Ordu berean itho eta, hortceez herrestatuac,
 Badaramatçate fier lasterrez oihanpera,

Aita-amer eracuxtira :

Ya meçua ere gorderic her egorria çuten

Ilauç umer behar ceraien

Bedere eguiñ erantçuki

Fedea baitçuten hauri :

Baiña hala eguiñ etçuten :

Alabaiñan oxo ciren.

Fede emanaren gaiñean, ora lotan çautçanac

Bat itçurtçera utci gabe, cituzten itho denac :

Ilaiñ laster han eguiñ cen non ohartu ez baitçiren;

Guciac çathitan betan emanac içan ciren.

Baderrakegu gne hortie,

Ez dukegula bakheric,

Nihoiz iraupenezcoric

Yende tçar, fede-gabekiñ;

Traidore eta falxockiñ:

Indarra duten pontutic

Haukiekiñ ezta on denie,

Ez ciñie, ez acorduric,

Lekhuco, ez erresaric:

Guerla beraz heier bethi

Da eguiteco edo itçuri.

Baderrakegu oraino
 Aita-amen faltaz ume asco
 Billhacatcen dela gaitzto :
 Onae ičan çaitzekkenac
 Galant eta estimu-dunac :
 Ditnztelakotz laudatu,
 Edo aski ez correytu ;
 Bici tçarra daramate,
 Fin-gaitz ere eguïten dute.

FABLE XXIII.^a

(5.^a DU LIVRE III.^e)

ACHERIA ETA AKERRA.

ACHERI bat egun batez cioan biayetan
 Aker adarretan halto cen baten compañian :
 Biçarrez eta adarrez on : aker hau gaiçosco cen,
 Sudurraz haratagö ere hare ikhusten ez çuen :
 Aldiz acheri çaharra maltçurrenetarie cen.
 Egarriac hertchaturic putçu baten çolara,
 Bat bertcearen ondotic yauxten dire edatera.
 Ur frescotie han cintçurra
 Heçatu eta gogara :
 Acheriac lagunari,
 Badiotço seriuski :
 Diduritçait, compai ona,
 Eguïñ dugula errechena
 Yalguitea daite lana.
 Akerrac acheriari :
 Hala da bai naski hori.

Hegüia dago gorasco ,
 Eta pareta legunseo.
 — Haladue, baiñan ez exi;
 Fida hakit arras niri.

Chutic hadi guibeleco bi çangoen gaiñean ,
 Eta bi patac etçatcie arrima paretean :
 Guero cocoxa tincatuz paparoaren contra ,
 Adarren mecanica idue eçac goiti tchutchuta :
 Bi brincoz gaiñeraco nauc hire bizcarra-gaiñdi ,
 Handic, atheratcen guero lagundeco flaut nie hi.
 Harritua, aker gaiçoac laudatcen dio asmua :
 Berac alferretan çuken hanxi bere burua.
 Eta nola erran, hala eguiñ, acheri madreari ,
 Bere bizcar eta adarrez dio eguiten çurubi.
 Goieratu eta eguiten dio harrec sermoi bat,
 Exortatcen duellaric pacentcia hartcerat.

Compai, derro, gaitztaguiñac :
 Balautçu eman.ceruac,
 Centçu hainbertee cascoan
 Nola biçar cocoxean;
 Jauxico hçrrat etciñen;
 Ikhusico baitcinduen,
 Guero cer lan içanen cen.
 Hartu duçu letcioa
 Nihoiz ez ahantztecoa.
 Adiu, balitz yatecoa,
 Balaiteke edatecoa?
 Aboro ni ez nagoke;
 Nere aferec deitheen naute.

Lagun țearrekin ez yunta,
 Bethi çatçu onac hauta :
 Onekin on çare egonen,
 Baita ascotan hobeturen :
 Tçarrekin țear bihurturen.
 Hauc çaituzte hai eraman,
 Urrun bide makurrean,
 Ondoratu çarenean ;
 Utcico çaituzte hantche :
 Eta hec bereaz eguin badukete,
 Contu çutaz hartu gabe
 Hirriz händic ganen dire.

FABLE XXIV.^a(9.^o DU LIVRE V.^o)

LABORARIA ETA BERE SEMEAC.

LABORARI etchedun bat
 Çoan çaharrez hillcerat :
 Bicitu cen ohorezki,
 Lanean hariz fechoki,
 Eta gastatuz chuburki :
 Umeac cituen ere
 Onxa ekbarri bethiere :
 Baiña eteen fida sobera
 Hauc hala eguinen çutela :
 Laneco baitciren nagui,
 Yateco aldiz gormantegui.

Deithuric aldamenera,

Mintçatu çaien bunela :

Ene umeac behautçue sal nihoiz ontasuna;
 Ecen hor bada tresor bat noizbait gorde içan dena:
 Ene aita-ametarie daucat hori nie ikhasia.
 Çoin lekhuman onxa ez dakit dagoen ehorteia,
 Parte gucietan itçul eta lan eçaçue,
 Segur nekheen pagua noizbait badukoçue :
 Atta, diote semeec, tehit trankill baçandezke,
 Tresora atceman artio baratuco ez gare,
 Bertce iñor beçain gu ere tresor çale baicare.
 Nola erran, hala eguin, uzta hec sarthu duteneco,
 Alhorraren itçultceco lanari lotheen çaiçco :
 Lehen baiño barnago ere hilldoa daramate,
 Abre, tresna, nekhe, icordi, guphide deus ez dute-

Esta guelditcen chocoric

Erabilli ez dutenier

Landac ere, hara bada,

Doblea eman çuen uzta.

Bertçe tresoric han etcen :

Trankill hill cen çaharra ere,

Hill baiño lehen halere,

Iracaxi baitcioten

Eguiazco den tresora

Lan seguituan datçala.

Certan gan urre-ketara

Ixasoaz bertce aldera?

Edo urrungo tokitara?

Hetan guti da aberaxten,

Asco ere dire galteen,

Asco pobreago itçulteen.

Emaçu tiñki lanean,

Oficio edo labrantçan :

Çuhurki çachu goberna

Handic billda dukeçuna.

Çue hola eguiten baduçu

Tresor handia hor duçu,

Eta ahituren ez çaitçu.

FABLE XXV.^a

(10.^e DU LIVRE V.^e)

MENDIA ERNARI.

MENDI bat aspaldi lehen

Erdi beharrez çagoen,

Eta emaguñic etçuen.

Haren ay eta plainuac

Urrun ciren adituac :

Yendeac ikharan çauden

Cer yalgui behar othe cen :

Oroc çuten ikhus uste

Paris oso bat bedere :

Badakiçu cer cen agueria munduraz ?

Sagu bat.

Horla espantu hainitz duenac ahoan,

Efetu guti du aguerteen ondoan :

Obratu gogo duenac,

Elheac ditu bakhanac.

LIBURU BIGARRENA.

FABLE I.^a

(3.^e DU LIVRE V.^e)

ARRAIN TTIKIA ETA ARRANTÇALEA.

ARRAIN ttiki laite handi

Utzten balitçaiø bici.

Baiña utzteco, guero noizbait hartuco delacoan,

Centçu guti diduritçait behar dela cascoan :

Içokiñ ttiki bat behin mementean sorthua,

Dosteta urean cebillan, bicitecaz boztua.

Arrantçale batec goicic bota ordueo amua

Hor da gaichoa guerthatcen amu hartan hartua.

Ikhusi duenean lehen amu-colpea,

Huna, diotça guiçac fricoaren hastea.

Dendelaco catura

Bioa otharrera.

Içokintchoac baderro ahal duen bezala,

Nitan cer dukeçu? ez naiz ahoa bethe ahala :

Utz naçaçu libro, içokiñ naiten eguiñ artio,

Berdiñ guero noiz edo noiz naiz çure amutaraco ;

Eta escabetchero batec nau cario erosico.

Aldiz eguiteco plat bat,

Ni beçalaco çue cembat

Eztuçu bildu beharco?
 Halere cer plat oraiño!
 Plat deus balio ez dukena;
 Sinhets-açu nie errana.
 Deus ez dukena balio!
 Arrantçaleac diotço;
 Biz hala, arrai poltitñoa,
 Predicari maltçurñoa:
 Baiña çu gaur arraxean,
 Ganen çare paderara,
 Han friguitua içaitera,
 Bertce ascoren compañian.

Ceren hobe baidancat nie nere iduri simplean
 Handia naskian baino, tchikia segurean.

FABLE II.^a

(10.^e DU LIVRE IX.^e)

OXOA ETA ORA MEHEA.

ARRAIÑ ttiki nahico cen berriz urera yauci;
 Baiña ez citçaiou comeni gauça arraintçaleari.
 Bieç çutela arraçoïña badiduritçait niri;
 Hare bicia nahi çuen aleguiñaz luçatu;
 Hunee escutan çuena guerococa ez largatu:
 Erran dut arrantçaleac net onxa eguiñ çuela,
 Segura dudacoan truc nihoiz utzteco eztela.
 Bedariac oxo batec hau berbera eguin çuen;
 Ez dakit haren cascoan cer iragan othe cen;
 Naski aprendiz oraiño oficioan baiteen.

Arthaldez-arthalde behiñ çabillala fatehadan,
 Aurki non othe cetçaken artçaia eta ora lotan :
 Herriaren hurbillean ora bat topateen du,
 Mehe , cimeill , eta eguiña choil heçur eta larru.
 Halaric ere costumaz çathitcera çaraman,
 Herresaca ora tristeac baldiñ ez balio erran :

Nausia cer diduritçu ?
 Nolaz ikhusten eztuçu?
 Nere charpanteriatie
 Ez dukeçula maminic,
 Niholere çuc athera.
 Çure ahoa bethe ahala?
 Bizpairur egun indatçu,
 Eta itçulico natçaitçu
 Eguiña guicen-guicena :
 Ecen gure ethecoyauna
 Dioa alaba ezcontcera :
 Behar naiz eztaietara.
 Beraz nahi edo ez nahi,
 Ilaguitz ondu behar naiz ni.

Oxoac hau sinhexiric , utzten dantçu goatera ;
 Ez zaitekeien barura.

Cenean ephea iragan badathor han berera ,
 Ikhusi behar çuela çakurraren ardura :
 Baiña aurkitcen du cokiña ethe-barne dagola ,
 Çharetan baten artetie erdi-hirriz derrola :

Kide , hor çare hitcean ?
 Halaber nago nerean.
 Banathortçu mementean,
 Athe-çaia sahexcan.

Athe-çain hau ora bat cen

Aspaldi oxo despeteen

Haguitz obitua cena;

Urrun çoan hunen fama.

Oxoac derro orari:

Seguretic musicari?

Niketz, bi milla goraintci

Erroçu atheçaiari.

Çuc beguirantçu bidaia,

Non eztaçan atheçai.

Hau erran eta laur atcez laurenca sunxitu cen,
 Cascoz bainon atcez hura haguitz hobe çaiten.

Oxo gaiço haren pare

Yendetan asco badire:

Hari dire bill eta bill

Nahi dena goseac hill:

Bere seyllaru gaindiac

Daozcatela hexiac?

Eguin nahiz gueroago

Irabaci guicenago.

Baiñan atcemanac dire,

Aldi batçuez bedere

Ochala balire bethi

Nola luketen mereci.

FABLE III.^a(18.^e DU LIVRE 1.^{er})

ACHERIA ETA CIGOÏNA.

MURDE acheric behiñ, andere cigoïña,
 Hauçoan bethitic hantateen çuena :
 Gombidatu çuen eracada eguitera

Eta arratxa pasatcera.

Baiña gaitztagninac, beretarie bethi,
 Eguñ behar, non ez, ez laiteke acheri.
 Aphaiñteen du beraz artha handirekin,
 Achicha bat bere dagozcon droguekiñ :
 Trentchoiñ barne gabe, ta çabal batean,
 Hedatcen du guero molde abillenean.

Bertce platie harc etçuen

Haguitz chnhurki bieï cen ;

Cikhoitz aire bat baitçuen :

Hartcera prest bethi

Emaitera nagui.

Madama cigoïña denean ethorri,

Eta mabaiñean direnean yarri,

Salxaren usaiñac baitu betan boztu,

Nausiari dio hortaz complimentu ;

Gueró alaiki dire yaten abiatu.

Baiña mokoa du chorroteh eta luce,

Fricotic har densie casie ez deçake.

Mihiz eta ezpaiñez, aldiz acheriac,

Laster ditu billteen plateco guciaç.

Badago cigoiña lehen bezain gose,
 Iduririe eztu eguiten halere;
 Nola baitcen ere hagnitz ikhasia;
 Erremesiata ondoan nausia,
 Hauço, diotço, nie bihar nere aldia?
 — Bai andre, gogo onez, ecen ez daukat nie,
 Adiskideekin eeremoniarie.
 Badathor maistroa biharamunean,
 Cigoiña baithara, hartu tenorean:
 Badakhar madamac laster mahaiñerat,
 Yarro arbasotarie yauxiricaco bat:
 Aspiz çabal, gainez luce eta berxi cen,
 Mokoa aise hartan berac çarabillken:
 Halaber bakharric laster hustu çuen.
 Aldiz acheriac baitçuen musua
 Haguitz bertcelaco amac moldatua
 Eciñ çuen eguiñ tristeac bertceric,
 Campotic yarroa milicatu baicic:
 Eta guelditu cen gormanta baruric.
 Etche, alde laster emaiten da abian;
 Baiña damac hauche derro partiadan:
 Hauço, harda nere gostuz dostatu çare ederki:
 Baiña orhoit çaitte duenac, azken eguiten hirri,
 Harrec duela bakharric hirri eguiten ongui.

Ez içan nihoiz trufari:
 Ecen gutien ustean,
 Abalke handienez
 Ukhan deçaçuke urriki.

Erneac baitu topatcen erneagoa bethi :
 Eta abillagoa abillac bera baiño noiz nahi.

FABLE IV.^o

(II.^o DU LIVRE II.^o)

LEHOINA ETA ARRATOINA.

EDOCENI bethi ongui eguiocu

Gutien ustean ecen

Çu baiño teharragoaren

Beharra ukhan deçakeçu.

Eguia hau frogatceco hadathorzkít bi fable,

Guehiago behar balitz oraiño balaiteke.

Arratoiñ bat illkitcean lur barnetic betbetan,

Aurkitu cen lehoiñ baten atçaparren artean;

Ikharan çagon tristea biciaz exitua,

Gutiagoz ere galtcen ascoe duté centçua.

Baiña erreguec ezituric arpegui latzgarria.

Hail, diotço, gaichoñoa ! utzten daiat biera.

Ez dakít bargatic hura haiñ malxo içanen cen,

Arratoiñ teharraren plaçan asto bat içan bacen.

Eguiñ den ona ezta nihoiz erregretatcecoa,

On eguiñac noiz edo noiz hadu bere pagoa.

Oibaupetic lehoi yauna celarican illkitcen,

Sare socazco batean hartua guelditu cen :

Errabian yalgui nahiz hari cen esfortaca,

Baiñan itçuli guciac alfer guelditeen çaiçca :

Gembat harc sarea baitu guehiago iharrosten,

Hambatez da hartan bera guehiago embraçatcen.

Haren plaiñu, orhotara arratoiñ eskertia,
 Herresaca dathor, eta dakharco socorria:
 Bere hortz chehe-chorrotchez hariz emeki-emeki,
 Maill bat azkenean dio urratcen sareari:
 Bertee maill guciac guero darraizco lehenari.
 Eta librantça bademo bere on-eguilleari.

Colerac eta errabiac
 Dute gaitzten errechena;
 Soseguac eta aztiac
 Errechten aldiz gaitcena.

FABLE V.^a(12.^o DÛ LIVRE II.^o)

URÇOA ETA CHINHAURRIA.

ORAI dakhart nic aguiñdu bigarren exemplua,
 Animale utpiago batçutaric hartua:

Chirripa baten beguian,
 Urço bat bere egarrian,
 Edaten hari celaric:
 Erortcen çaiø nombaitic,
 Chinaurri bat aiteñera:
 Ithotcera çoan hura;
 Ez baita omen chinhaurria
 Iguericari handia:
 Urçoac urricalduric,
 Lasto-izpi bat atcemanic,
 Dio botatcen alderat:
 Fixac chinaurriarentçat
 Iduri çuen irla bat.

Iganic laster hartara,
Arribatcen da heguira.

Ordu hartan han çabillan escopeta batekin,
Hauçoco mutill bat cembait catura nabiz eguiñ:
Oinbux eta buru-arras herresaca yalguia,
Billdu çuken harc nolazpait afaitaco yakia.
Duenecotz ur-heguian urço lainoa ikhusi,
Ah! frico arraxecoa nie, dio, badiat eiki.
Eta miran hartua ya daramala hiltceca,
Chinaurriac ausikiteen miñki dio ondagora;
Uztarco bat eman eta guibela du behatcen,
Baiña oharturic urçoa hegalez da yocatcen.
Mutillaren afaria hegal bereo goan çuten.
Chinaurriac ere çorra horta pagatu çuen.
Goarda çaito arbuyatectic aphalez nihor ere:
Ecen egun aphal dena bihar gora daiteke:
Aldiz gaur goiean dena biharcotz eror ere.
Baiña mundu huntan ezta deus arbuyateccoric,
Christauentçat, gaitzkia eta bicio tçarra baicic.

FABLE VI.^o

(6.^o DU LIVRE XI.^o)

OXOA ETA ACHERIA.

NOLAZ Esopec othe du eguiten acheria,
Yoco maltçurretan bethi bertee ororen nausia;
Oraino eciñ aurkitu dut nie horren arraçoia.

Yaunac behar duenean
 Bere bicia salbatu,
 Edo berteena atacatu,
 Ez da haiñ yakiñ lancean?
 Baita yakiñago ere:
 Nere idurico bedere.
 Eta hunen gainean nic,
 Contra eguiñ neçoke casic
 Esopo ene nausiari;
 Baldiñ-baniñteke atrebi.

Huna casu bat hargatic, çoiñtan acheriari,
 Gloria oro emaltea leguez baita comeni.
 Illhuntea batez çagola putçu baten heguian,
 Illargui bethea ikhusten du barneço ur garbian:
 Itchura biribill hura gasnatçat du hanc harteen,
 Enganio hori segur barkha çaise akioken:
 Oraiño academiatic acherieç ez çuten.
 Ura handic erauxteco, poliatic dilindan,
 Aldizca goiti-beheiti pusader bi çabilltçan.
 Oillo-çalea aldi huntan, gasnaz ase nahia,
 Goieco pusaderean paratcen da yarria.
 Ilau yauxtean bertcea da goierat egorria.
 Baiña ikhusten du tristeac han bere enganioa,
 Segur dauca ere beretçat bethico ondicoa:
 Ecen nola cen lekhitic goiera itçul çaiteken,
 Bertce cembait gormant hara baldiñ ez haçathorren?
 Eta gasnaren itçhura berac enganatua,
 Yauxiric hara ez baçuen harteen haren lekhua?
 Bi egunez nihor harat ez cen yiñ urketara,

Bi gau betan illarguiac galdn çuen cantala,
 Bere bidaia ohituan arrundan ebillala;
 Exitna çagolarie illhun urari beha,
 Hor du betbetan ikhusten oxo baten mustatcha:
 Goico beguian çagoen egarriz ethorria.
 Itçulirie hula çalo mintçatcen acheria:

Oy! nausia, ongui-ethorri!

Huna-behar çare yanxi

Nere bician eztut nic

Eguiñ hulaco bestarie:

Beha çoçu gasua huni,

Çoin den çabal eta yori:

Erreguiñac berac ere

Huntaz aise laiste çale:

Nic diot yan cantal hori;

Çajñeraco hortan naski,

Çaretçat badaiteke aski.

Pusader hortan sar çaité,

Berehala hemen çare;

Hortaco dut hor utcia,

Ez ukhan deusez auxia.

Nahi beçain acheria çaiteken ongui mintço,

Hura sinbexteco oxoa behar een ongui gaïço:

Yauxten da; eta acheriac iguriki beçala,

Haren çargac egorteen du bera azpitic goiera:

Hargatic hambat gostaric segrnera denean,

Milla esker ere oxoari hare ez cioen erran.

Oxo hura beçain tonto
 Badire yendetan asco :
 Aguintcen çaioteneco
 Aboro gasna ogui baiño :
 Yauzten dire berehala;
 Eta ixutuac beçala,
 Hec galtcera doacila,
 Ez dire oharteen ondotic
 Beraudu denean baicic.

Intrescezo eguitecotan aise ez çaitela embarga,
 Baiña aiteiñetic eçaçu çubur cembait consulta:
 Eta çure iduripenaz çaito meslida bethi,
 Hala nahi laitekena sinhexten baita errechki.

FABLE VII.^a(10.^o DU LIVRE VI.^o)

HERBIA ETA APOARMATUA.

APOARMATUAC behiñ,

Herbi çangocariari,

Çoiñce lasterrago curri,

Desaño cion eguin.

Yocatcen dautçut, dietço, nahi duçun beçambat,
 Çu beçain laster naicela helteen gaiñtto hartarat.
 Herbiac derro, arreba, burutic eguiñ çaitçu,
 Sangria baten beharra nere uestez badukeçu:
 Çoiñ lehenca çuc niri! — Bai, oraiño hartan nago;
 Goacen bada, dio, horla nahi duçunaz guero.

Hec cer çuten pariatu

Eta yuyetçat nor hartu :

Ez dakhar istorioac,

Guti importa du gauçac.

Herbi ariñac heltceco aski çuzken laur yauci,

Nolaco behar orduan harc eguiten baidaki :

Noizeta ora huyatuez luçaro seguitua,

Urrun baitu utzten guibela heien oste unhatua.

Gure burchorua beraz, baduelacotz asti,

Beha'aireari badabill, hau alba, hemen yauci.

Bertcea aldiz partitcen da matrona bat iduri;

Urri daramatça urhaxac, baiña badoa bethi.

Bide-erdia duen arren yadan hunec pasatu;

Cocheco-ariñec eztu nahi oraiñon abiatu :

Haiñ aise irabazteaz baita yauna nardatcen ;

Parioaz bertcetari da hura oraiño dostatcen.

Ohartu deñean noizbait bertcea hurbill dela ;

Eta heltceco laur urhax apenaz dituela :

Herresaca lantçatcen da fletcha ariñaren pare,

Baiña brinco eta yauciaç orduan alfer dire.

Urhax-urric bethi ganez aiteindu du panttupan,

Descanxatcen dagolarie, baderro ere musican ;

Oh! çangocari handia!

Çuc ere utz niri garaia?

Cer cen beraz guerthatuco

Ukhan bacindu bidcan,

Nic beçala bizcarrean,

Etche bat garraiatceco ?

Herbi choro haren pare
Gaztetan asco badire :

Izpirituz eta escolaz orratuac baitire ,
Dosteta eta erguelkeriez baicen ez dacusate.
Berant hasirie ere uestez dutela hec eguiñen ,
Bertec goiz hasirie ere nekhez dutena eguiten.
Bere adiñic ederreña dutenean gastatu ,
Lothcen dire urthé galduac nahiz erreparatu :
Bajña ikhusten dute laster , munduan omen ona ,
Preuda orotaric eztela gutien beharrena.

FABLE VIII.^a

(11.^e DU LIVRE VI.^e)

ASTOA ETA BERE NAUSIAC.

BARATCE çaiñ baten astoçahaztua
Bethi bere çorte beraz unhatua

Munduaren yabeari

Pleiñtaz çagokion bethi :

Alba ethorri baiño lehen

Çutela yaiki-arazten :

Eta oillarraren cantua

Bethi çuela aiticindua.

Eta hori certaraco ?

Ahalic eta goicenic

Belhar berdez cargaturic

Mercatura partitceco.

Pardi ! cer importancia

Hauxteco nic lo ezlia !

Bada çoria unkitua pleiñta samñetarat,
 Ikhusiteco emaiten dio nombait bertee nausi bat.
 Baratce-çaiñac utcia, curtidorrac (*) harteen du,
 Baiña bere erratecoac hemen ere baditu.
 Larruac çaiçca pisusco bere bízcarrentçat,
 Urriña eciñ yasaczeo bere sudurrarentçat.
 Ochala oraiño banintz ni, ciotçan harc miñekiñ,
 Haiñ aise utci leheneco nere nausiarekin!
 Bedere harc çuenean bertee aldera behatcen,
 Aça osto bat edo bertee, nie arrapatcen nuen:
 Eta capriça hori deus ez citçaitan gostatcen.
 Aldiz deusetaco hemen ez duket paradarie,
 Ez bilteeco bertee deusie bastoi colperie baicie.
 Berriz ere oraiño beraz çaiço çortca aldateen;
 Ieatzkiñ baten arrolan apuntatua da azken.
 Hau ere ez çaiço comeni, pleiñtac are darizeo,
 Çoria azkenean leguez coleran sartcen çaiço:

Cer bada diotça miñki,
 Beharri luce hau choilki,
 Içan behar da gaitçago
 Neretçat gobernatecco,
 Ehun printce betan baiño?
 Uste ahal du hori baicie,
 Eztela content ez denie?
 Eta ene grña bakharra
 Dela yaun horren asera?

Arraçoiñ çuen çoriac
 Oro gare horla eguinac:

(*) Laphordin çurraçaiñtea.

Çorte ukhanaz nihoiz ere

Satifatuac ez gaude.

Bethi estatu azkena

Diduritu aicu țarrena :

Baita hançoac dukena

Orotarie hoberena.

Estatu, aihorra diña, baguiñdu ehanyateeco,

Ceruari bethi pleintaz, balere guñaudezco :

Baduke astoac urus, hemen ičan nahia,

Bici huntan baidaduca, esperantça gucia;

Haren filosofia oro, baita hill eta acabo,

Har ahal beçambat placer, hemen hartecera dago.

Bici hobe baten usna, christauac aldiz baitu,

Hemen urus içaiteaz, haguiz ez dauca contu :

Hobea den hura noizbait, dukeien seguratu,

Den emaille, den escaille, griña choilla hura du.

FABLE IX.^a

(6.^e DU LIVRE I.^{er})

MIGA, AHUNTÇA ETA ARDIA, LEHOINAREKIN PARTÇUN.

AHUNTÇA eta miga aizpa ardia lagun

Lehoiñ yaunarekin yarri ciren partçun :

Partçuner hoberie segur baçuketan;

Baiña eguinac eguiñ, guibela ez çoazken.

Eguiñ çuten beraz patu gueroraco,

Calte, irabaciace berdiñ partiteeco :

Ahuntçac sarean orkatz bat harteen du,

Eta partçunerrerr daie egortcen meçu :

Çathorzen, patuac çakharren beçala
 — Catura eguiñaren betan partitcera.
 Bateratu direnean, lehoiñac patarekiñ,
 Condatcen ditu laur parte chuchen berearekin :
 Guero orkatçaren gorputça eguiñ eta laur çathi,
 Laur çathiac partitcea hula çαιο comeni.

Hartcen dut nere lehena
 Lehoiña baitut icena.
 Birdena ere badaramat,
 Hortaco baitut dretcho bat,
 Eciñ ukha daitekena,
 Naicelacotz hazcarrena.
 Herena ere daucat nere
 Ni bainaiz aithorenseme.
 Laugarrenaren hartcera
 Nihor atrebitcen bada,
 Çuetaric, yakiñada
 Bertan ithoco dudala.

Eta ya apetituz ere bilcuian nausi baitcen,
 Laur çathiac hechurrekin harc irexi cituen.

Lehoiñ tiranoac, eguiñ yusticia,
 Yende artean ere, ohi da ikhusia,
 Hazcarren denaren fede oneraz guero,
 Nor berearekin, guelditcen da arraro :
 Contcientcia ere bazterrera utcia,
 Tontokeriatçat hurren idukia :

Guiça-artetic goibeldu cen,
 Eta gan cen notarien

Ez dakit bihotzetara
Baiña tintatokitara.

FABLE X.^a

(9.^o DU LIVRE 6.^e)

ORKATÇA BERE BURUARI BEHA ITHURRI BATEAN.

ORKATZ bat çagola behiñ ithurri clar batean ,
Bere buruari beha uraren mirallean :
Bere adar haltoez haguiz çagon satifatua ,
Aldiz çangar mehen bistan handizki gaitetua ;
Apenaz hec ardatçaren baitçuten tamaiñoa
Heien itçala ere urean iraupen gutikoa.
Cer diferenteia nitan çangotarie burura ,
Hare cerran aubenez, heien ikhusirie itçura.
Chara gorenen gaitetie aguerteen dut copeta ,
Aldiz çangarren moldurac ahalketua nauca.

Hola mintço dela oraindie

Herbico çacur bat yinie

Yauz arazten du laurenka

Bere aleguinæ ihesca :

Badoa oihan , charetara

Biciaren salpatcera.

Baiña han edergailua ,

Berac hambat laudatua ,

Caltecor çaió guerthateen :

Ceren ordu gucietan

Charapeco laharretan

Baitu tristea abraçateen.

Hunen oîñ leyalec ere,
 Eciñ complitua dote,
 Bere obitu cerbiçua,
 Hambat aldi preçatua.
 Orduan miñekiñ dio,
 Ceruac niri certaco
 Daut eman garraiatecco
 Ondicozco edergaillua
 Copetaco aparaillua?

Orkatz hura beçain choro garella çait iduri;
 Probetehos çaicuna dugu preçatcen ohi guti:
 Caltecor edo inutillaz, hartuagoac gaude.
 Intres, ospe, edertasunac, lilluratcen gaituzte.
 Bertute, erligioneac, desgustu demaigute:
 Hauc gabe hec bitartean, cer dukete balio?
 Gogoari guc ochala, maiz hori baguiñerro!

FABLE XI.^a

(41.^e DU LIVRE IV.^e)

IGUELA ETA ARRATOÏNA.

BADAKHAR atchularrec,
 Edo bertce norbaitec,
 Orhoitcen ez naiz çoiñec:
 Bertceac hartu nahia,
 Heier hedatu saretan,
 Gutien duen ustean,
 Bera dagola eroria.

Eguia hunentçat frogat bertce asco balaiteke,
 Baiñan ondoco fablea oraingo aski daiteke.
 Arraitoiñ bat gordoa eta hobekien hucia,
 Ezcaucana ez gariçuma, ez gartba, ez biyilia:
 Intçura baten heguian egun batez cebillan,
 Izpiritua arintceco bakharric pasaietan.
 Iguel bat dathorko, eta bere erdaran baderro:
 Çatho enekin, eta ederki biac gare ascalduco,
 Baietz cuchiau baderro arratoiñ yaunac phocic
 Gombidu luceagoen etçuen hanc beharric.
 Allegatcen cituen bai, eta baino goçoa,
 Eta lurrezco bidaia guciz placerezeoa:
 Eta hambat gauça arraro, denac ikhuseariac,
 Intçurac bere inguruan hedateen cituenac:

Cer etçuen hanc bildaco
 Bere haurrer condatceco!
 Bazter heietaco charmac,
 Hetaco yenden ohitçac:
 Eta estatu orducoa
 Erresuma hececoa!

Baiña pontu batec ceucan guehien huzkurtua;
 Iguerica ez baitcen hura hambatic ohitua:
 Iguelac laster horrentçat hadu erreparua.
 Çure patta nere oiñari lothuric datchacola,
 Diotçco, eta ihi batec eguin çuen asera.
 Dutenean hec comptitu horla malobra hori,
 Intçuraco uretan dire embargatcen braboki.
 Baiña costatic dire bai çahalerat urrundu,
 Bestalea iguel banditac ondoratu nahi du:

Eman fedearen eta legue gucien contra ;
 Ase on bat baita haren mamiez eguin-gura.
 Çathia nere idurico hoberen etaric con,
 Gormantac ya bi beguiez irexia ere çuen.
 Bertceac cerua deitheen du tretuaz lekhuco :
 Baiña traidorea ordnan aise trufatcen çαιο.
 Batec tira, isti bertceac, horla direla hari,
 Miru batec ikhusten du goietic gudu hori :
 Yan çahar han cebillala arrundaren eguiten,
 Barura hauxteco cerbait aurkitu non çukeien.
 Arratojaren bizcarras belbetan gurendua,
 Hegal-ukhaldi batez da haren gaineratua.

Harturic atçaparretan,
 Badarama gora airetan ;
 Baiña dembora berean
 Oro badarraizeco betan :
 Ihiarekin ignela
 Bi catura eguiñic horla
 Miru Yaunaren bihotça,
 Lorian igueri dauntça.

Bide hortaz egun hartan, bai çukeien ederki,
 Bazcari on eguiteco arraiñ eta haragui.

Gombidu gucier, bethi ez ihardex,
 Elhe ezti guciac, ez errechki sinhex :
 Ase on baten gatic, etchetic ez yalgui,
 Ez illkiaz nehore, eztu ukhan urriki ;
 Baiña illki içanaz, ascotan bai naski.
 Segurki campoan, ez çaituzte yanen,
 Baiña yuyatuco, nola duçun yaten :

Yatera atrebitcen , apenaz baçare ,
Milla eskerca husu , hari baçare ere.

Peisant gaiçotçat , pasatuco çare.

Aldiz baldiñ haiñitz , çue yaten baduçu ,

Eta plat bat nekhez , itçurteen baçaitçu :

Gormant ospea hor , segura dançaçu.

Segur holaco omena

Ez baita munduan daiten ederrena.

Behiñ ere beraz , uste ez deçaçula ,

Nihor çu beharrez hirrixan dagola :

Nihoiz eren casic , ezta gombidatcen ,

Errefusatuco , delacoan baicen.

FABLE XII.^a

(4.^e DU LIVRE V.^e)

HERBIAREN BEHARRIAC.

ANIMALE adardun batec eguin ciotçan noizbait ,

Lehoiñ soberanoari , mamian uspel cembait.

Hunec betbetan colera handienac harturic ,

Eta ez çakiontçat guertha aboro horlacoric :

Nola abre eta acinda orøren sorteez erregue baitcen ,

Bere erresuma largoan publica-raci çuen :

Bestia edoceiñ adarrac , çakhartçana copetan ,

Haren lurretarie urrun aldebat cediñ haztan.

Ordu beretic ahari , ahuntz eta cecenac ,

Sunxiu ciren betbetan , baita orkartz iciperac ;

Conformatecco ordenari,

Bat etcen guelditu nagni.

Herbi batec atherian iguzkitan çatçala,

Erremarcatcen du bere beharrien itçala :

Eta ciren beçala hec lucechco idurituric,

Beldurrac yotcen du combait salatari nahasic,

Erreporta deçan eguiñ erregueren gorthean

Adar eguiazco batçn dakhartçala copetan.

Ilauço, adio, banoaçu, diotço chochoari,

Nere beharriec adar lidurikete naski :

Balire ere laburrago

Indioilloarenac baino;

Halaric ere ez ninteke

Beldurric batere gabe.

Nola! horiec adarrac? hori ciñez dioçu?

Chochoac diotço: beraz cuyatçat naoçaçu?

Ez, ez, beharriac dire, Yainco onac eguinac;

Ordean adartçat dire içanen idukiac,

Herbiac dio; eta contra nic nerraken gucia,

Laiteke çaragoçaco çoroen érasia.

Eguiaz gure herbia.

Etcen centçuz billhucia;

Baitçaucan bere iduria,

Nausi tirano batentçat,

Eztela gaitz den obra bat,

Behar orduan adarra

Chanyatcea beharrira

Edo beharria berdin adarrera :

Eta eguitea lobia
Inocentcia garbia.

FABLE XIII.^o

(5.^o DU LIVRE V.^e)

ACHERIA BURTANAZ GABETUA.

ACHERI çahar bat, baina erenetarie,
Nombre gabe lapiñ eta oillo irexirie,
Inguruan urrun baguitz ospatua :
Fiñean-ican cen artean hartua.
Nola ez dakit handie itçuri cen yauna,
Ez oso, baiñan han utxirie bustana.
Atheraia, diot, guibela motztua,
Eta afruntu hortaz net ahalcatua :
Nola abilla baitcen, oro ukhaiteco
Guibel-aldardiaz bera beçalaco :
Acheri guciec billtçar egun batez
Ceducatelarie asco bertee gauzez :
 Baderra bere chaindean :
 Certaco guc guibelea
 Carga alfer hori dilindan ?
 Cikiñ khentcen hari dela
 Ezcartça diduriela ?
 Buztan hau certaco dugu ?
 Ez, ez, behar dugu motztu :

Eta segurki nere oldez,
 Ez derrake batec ceetz
 Batec badiotço, çure iduripena,
 Nere oldez ez laite segur gaitztoena:
 Baiñan itçul çaitte-ia placer baduçu,
 Errepusta guero adituren duçu.
 Hitz hoietarat eguiñ cen halaco carcaria,
 Non buztan-motça nahiz cen ya miotçatu nahia,
 Mutu baitcen egon arras, harritua gucia.
 Nola khentceco buztana,
 Alfer bai çaiteken lana;
 Eta galdua dembora:
 Seguitu cen moda bera.

Acheri buztan motztuac, eguiñ çuena bera,
 Yenden artean hainitcec, dute eguiten ardura:
 Berec dutelacotz galdu, yendetan precioa,
 Çeren duten praticatcen, baltoki bicioa:
 Bertceac bere idurico, billhaca detçaketan
 Beren hitz eta exempluez, bethi dire ensayatcen.
 Eta çoriz urusago, acheri hura baiño,
 Bere obitça tçarretara, daramate asco çoro:
 Çoiñec heiekin baidute, galteen bere omen ona,
 Ciñta urreztatua baiño, baliosago dena:
 Galduz guero nekhez baicen, berriz cobra ez daitena.



FABLE XIV.

(9.^o DU LIVRE III.^e)

OXDA ETA CIGOÏÑA.

OXOAC yale tçar dire,
Herresaca irexten dute :
Gaitz guertha dakiokete.

Hala nola bati behiñ guerthatcer baitcitçaion,
Yoco tchar bat hechur batec bada eguiter baitcion :
Egun batez bestacari bazkaitan hari cela,
Ohi beçala pochiñac laster çaramatçala;
Bildox hechur bat barnacheo gueldituric trebesca,
Eguitera prest çagoen ya bere testamenta :
Hitz bat ere eciñ eguiñez, exitua dagola,
Cigoïña bat ban hurbilldie badathor pasatcera.

Kheïñu bat eguiten dio,
Hau fite badathorkio :
Nola baita ere cigoïña,
Presunarie hoberena
Bethitic hala içan dena :
Lotcen çaio berehala
Lanari tenore dela.

Mokoa sarturic barna heçurra dio khentcen ;
Baiña cerbitçarentçat saria ere galdetcen.
Cer! dio hare, çu paga nie? badaitekeia hori?
Ene arreba maithenõa, trufatcen çare naski :

Etçare content lepoa baituçu çuc osoric
 Athera guibelat nere hortz çorrotcen artetic?
 Çoaz, esker gabe bat çare
 Eta urrun ni-ganic çande.

Cigoñac, eta asco bertce, cigoñac ez direnec,
 Deus eguiñ ezdute nahi, saria ez badute hec:
 Bertce nibon ez baidute, deusic igurikitec.
 Hemen pagoa ezbadute, haguiz dire khechatcen.
 Aldiz christauac bertcetac, uste baitu saria,
 Hemen pagoa ukhaiteaz, haguiz ez dauca anxia:
 Hare eguiñ onguia gaitzkiz, pagatua bada ere;
 Obra on hura galdutçat, hare ez dauca halere:
 Aitciñat onguiegniteti ez da guelditcen ere.

FABLE XV.^o

(8.^o DU LIVRE V.^o)

ÇALDIA ETA OXOA.

PRIMADERA sartceraco egun gocho-ephéletan,
 Çuhaitz, labar, belhar, oro ernatcen direncan:
 Beren egoitçac utciric animale guciac,
 Dabilltçanean non kausi bicitçeco beharrac.
 Oxo bat negu luceco dietaz unhatua,
 Eta yakituzco yanaz aphur bat herbaldua:
 Yauxten da menditic, eta leben begui-colpean,
 Ikhusten du haraneco phentce guicen batean,
 Eman çaldi gaztebat errekeitu hecean.

Penxa çaqu ikbuscaria
 Çoin cen loriagarria!
 Çer çathia, dio, hauche!
 Bahinñdaucat nie oraintche,
 Harahan mendi-gainea,
 Nere crocatic dilindan!
 Ochala bahintz cikiro!
 Nere contua eguiñ hiro.
 Heimen hargatic nere ustez,
 Yocatu behar naiz artetz.
 Ez badaite oxoarena,
 Dugun acheriarena.

Goacen beraz; eta urhaxac condatz astiroki,
 Yaunari çalo hurbiltcen-gure oxoa maltçurki;
 Agur, compai, diduritçait duçulacotz tchar-aldi,
 Errekeitu fresco huntan çaituztela libre utci:
 Medicu celebre baten dicipulu içatua
 Belhar suerte gucien puchantçaz yakinxua:
 Banathortçu escaintcera urriric cerbitçua.
 Nihaure erratea ezta eder, haiña ezta içatu gaitcie,
 Ibilli naicen tokitan, sendatu ez dudanic:
 Aguer çadaçu lainñoki bada dukeçun miña,
 Çure sendatecco eguiñen dut segur aleguiña.
 Abreac baderro atecco çango baten azpian
 Berriki çait handixu bat athera erdi-erdian.
 Ene haurra beguirauten
 Miñ tçarrenetarie duçu;
 Diotço yaun medicuac:
 Hau dio tokiac berac.

Hor berean sortcen dirē
Asco bertce gaitz traidore.

Baiña çaldi yaunec ere ni baithan confiantça
Badute; ikhasi baitut oraiño nie barbertça.
Maltçurrac bere erasian çuen chede gucia,
Parada atcematea cen irexteco eria.
Çamariac, bere baithan eerbait iduriturie,
Baderra, çztuc ez eguiñen gaur horlaco hirririe.
Eta aleguia deusic ez hedaturie çangarra
Medicu yaunac hurbilidu dueneco sudurra,
Uztarco sendo batez du hedateen ateez gora,
Hortçac bakhanduac, eta odola dariola.

Ederki eguiñ çaitac, dio oxo gaiçoac,
Bere baithan arras, ahalkeaz yoac:
Nahi naiz içatu hari, bathicariocoan
Ongui nahiz ez nakien, baicen carnacercoan:
Dagola hacoteça, bere oficioan.

FABLE XVI.^a

(5.^e DU LIVRE VIII.^e)

LEHOIÑA, ÑIÑA ETA ACHERIA.

ERROMATISMaz lothua,
Eta adiñez eciñdua,
Lehoiñ batec nahi çuen,
Baitezpada eiçaten

Aurki erremedioa

Adiñaren contracoa.

Gauça dela eciñ eguiña

Hori da gauça samiña,

Erreguér erran eciña.

Deitcen ditu beraz hunc arraca orotacoa,

Medicuntça eta barbertçan yakiñ direlacoa:

Badathor z lehiaz, ecen bacotcharen chedea,

Da erregue sendatuazco ardiextea ospea.

Éthorri ciren yendetan acheria esta ikhusten,

Baiña buru-colpe batez etche-alde da guelditcen.

Hortaz laster oxoac du mintça-razten gorthea;

Eta erregueren gogoan beltzten eguitatea.

Printceac derra, euchia acheri gaitztaguiña,

Bere egoitçan bedi bertan prisonier eguiña:

Bethorkit guero aitecinera amorez edo bortchaz,

Berac contu emaitera haren contra erran denaz.

Badathor, eta aguerteen da:

Baiña ya yakinxu baita,

Oxoaren lana dela

Orduco tretu tchar hura:

Erraten dio erregueri:

Yauna, çure aldean naski

Hala ez dena condaturic,

Naocakete beltzturic;

Mezprecioz orai arte

Çuri homaia eguiñ gabe

Arauz egotu naicela:

Yauna, gauça da bertcela.

Beilla bat eguina nuen,
 Arren çu senda ciñtecen:
 Hau compliteen hari nintcen.

Ditut ere ikhusi nere bidaiean,
 Asco yende aditu sabant medicuntçan:
 Eta oroc diote çutan bertce gaitcie
 Eztela odolaren hotztasuna baicie;
 Datborrena choilki çure adiñ handitie.

Horren erremediatçat huna cer den comeni;
 Çure manuz oxo eder bat bicirie larru bedi:
 Eta berehala haren bero-bero larrua,
 Bizcarretie har eçaçu cerbaitez tincatua.
 Pare gabea bethitie içatu da asmu hori,
 Indar ganac itçultceco natura hebaiñari.
 Oxo yauna guisa hortan, hau gaitci ez baçaitçu,
 Gambaraco soiñecotçat cerbitçaturen çaitçu.

Gustatcen çαιο erregueri
 Erreceta simple hori:
 Murde oxoa da hartua,
 Larrutua, çathitua,
 Laur azpitan partitua.

Eta monarcae eguiten du mamiez afari,
 Eta beroki larruaz gorphutçaren estalki.

Lehoiñaren gorthéan, ikhusi içan cena,
 Gorthé gucietan da, maiz ikhusten dena:
 Elkhar eciñ yasana, eciñ ikhussia,
 Elkhar engana, elkhar beltz, da hango bicia.
 Ochala mihi gaitztorie,
 Ez balitz gorthetan baicie!

Baiñan içurrite hori,

Alde orotara da isuri.

Lehoiñaren gorthea aise, correyitu çaiteken,

Oxoaren exemplua, hortaco net ona cen:

Baiña guiça-artean eguiñ, gauça bera ez baidaite,

Medisenter gosta-raci, behar litçaiokele,

Larrua khenduz ezpada, bertee moldez bedero.

FABLE XVII.^a

(6.^o DU LIVRE V.^e)

AXOA ETA BI NESCATOAC.

Axo batec hacituen bi nescato berekiñ,

Iruten hari citçaizcon, biac abillac berdiñ.

Heien aldean herrico axo irulle guciac

Etciren bertcecie haicen liho gatzatçailleac.

Ema çaharrac etçuen nihoiz berce griñarie,

Lan egunecoa nesker marcatcecoa baicie.

Iguzkia bere arrutan partiteeco aitecineie,

Alba aguertu baiño lehen lebanteco uharteie,

Ardatz, arrudac cebilltçan yadanie farra, farra

Baratu gabe çuntça bat bill, bertcea tira.

Oillar diabru batec baitu, cantari albacoa,

Herresaca yauz-arazten axo diabruagoa.

Hau, amarraturic erdi guerrian çaiia tçar bat,

Lampa batekin baçoan chuchen chuchena oherat,

Non, lorie hazcarren eta goçoenac hartuac
 Dohaxuki baitçauntçan bi nescame malurusac.
 Batec begui bat apenaz çuen erdi çabalteen,
 Bertceac estiran beso biac nekhez luçateen :
 Eta hieç, gaitcituae, ahopean cerraten :
 Oillar madaricatua ! luce ez due cantaturen.

Eta erran çuten beçala,
 Eguiña içatu cen bala :
 Hegastin malurusari,
 Atçarle goiztiarrari,
 Ichill çakion mokoa
 hauxi citen lepoa.

Hargatic ez citçaien çortea hobetu,
 Sasitic athera eta baitciren berhoratu.
 Ceren gure axoa bere oillarra gabe
 Ez baitcen guerthatu hobe.

Ecen escapa heldurrez bere oren ohitua,
 Baratcen ez cen iduri arima herratua :
 Gau gucia etçhea cena ceucala asaldatua.

Gaitz batì alabaiña eguiñ, dionac nahi itçuri,
 Uste ez cen handiago bat, harc du topatcen ohì.
 Gaitciç gabe mundu huntan, içan ez baitçaitezke,
 Ditutçunac pacientki, yasan hobe cintuzke :
 Çure pairuan orhoituz, bakharrie ez çaudela,
 Baiña Yaincoa lekhuco, eta lagun duçula :
 Çoiñac haren gatic hemen, dukeçuna pairatu,
 Ehunca bertcetani berac, pagaturen bai dautçu.

FABLE XVIII.^a(2.^o DU LIVRE VIII.^c)**ÇAPATAÏNA ETA BANKIERA.**

Hirur changoe çaduçaten alki baten gainean,
Çapataiñtto bat hari cen cantuz bere lanean.

Goiz arrax etcen ichilteen,

Othuruntçatecco baitcen;

Loria cen ikhustea

Eta areago entçutea :

Nola çarabillean boça

Gora behera itçulica!

Bethi çagon contentago

Ema erdi berria baiño.

Aiteitie hauçoan çuen aberax okhatuac,

Uteiac ceuzcan aspaldi bai loa, bai cantuac.

Eciñ bertecela çaiteken

Bankero bat hura baitcen :

Nihoiz alba hurbillean

Sarthu nahi baecn lotan :

Çapatai erneac cantuz atçartcen çueu betan.

Bankero logaleari haguitz eitçaion gaitci

Nolaz ceru arthaxuac moda etçuen eçarri ;

Yaki eta oguiarekiñ

Behar çaiteken orduan,

Cediñ içan mercatuan,

Loa ere betan sal-kidiñ.

Bere otclera hare deitcen du maistro cantaria,
Hauço, erraçu cer duçun, urtheco irabacia?

Çapatai madreac aldiz

Ihardexten dio hirriz :

Nic eztut horla condateen,

Ez nihoiz ere idukitcen,

Bi yornal elkharren gainzka :

Baiña ni content naduca,

Yakiñac ene sabela

Yanez escas ez dagola :

Urthea buru batetic dudanean nic hasi,

Bertce burua atcematen dudala casic-bethi :

Biba jaunaren gracia !

Bada eguneco oguia.

Erraçu beraz egunac cer derautçun emaiten ?

— Gutiago, guebiago, nola ere den guerthateen

Makurtcen hargatic nau ni gauça hatec halere,

Han hemenca urthe lucean, asco besta baitire :

Gure erretorac ezitu ahantzten nihoizere.

Hauc gure oficiocoac ohi dituzte galteen,

Lan-gabeco egunec ceren bi calte badakharzten :

Lebena ez irabaztea,

Birdena aldiz gastatcea.

Çapataiñaren linguaya phoz eta naturala,

Gustaturic bankerari, baderro berehala :

Petan, nahi çaitut egun nic eguiñ urusago,

Throuuan ororen nausi yarría dena baiño.

Horra chun luis : goarda-zkitçu behartcen çareneco :

Maistro Petani ordutic ciñez badiduritçu,

Hura beçain aberaxie ceru-pean ez dela,
Peruco urre-miac oro etchean dituela.

Eta badioa aleguera

Diruaren cerrateera,

Bere cutcha çaharrean

Guilltça herdoillaren pean.

Baiña han çuen cerratu harc bere umore ona ere

Adio cantu ariñac: guehiago ez deçake,

Haren cintçur herstutuan boçac aurki pasaia;

Loac ere arras utci du, haren egon-tokia.

Suspitcha, trantce eta griñac,

Ditu harc bici-lagunac.

Egun gucia çaraman erne bethi beguia:

Gauaz sentitcen haçuen gathu baten yaucia,

Baciduritçoa dirua gathuac ebaxia.

Guiça gaiçoa arkenean,

Carta galtceco mencean,

Badoatçu otelera

Aboro atçartcen ez çuen diru duna aurkitcera.

Ori, ori, derro, yauna, horra çure dirua;

Horren-gatic eztut nahi galdu loa, ez cantua.

Dirucoiac eztu choilki canta eta loa galteen,

Eta gau-egunac oro khechagunez bethetcen:

Baiña oraiño berthutea çain eguiten gaitçago

Baita ceruco bidea, baguitz nekhezcoago:

Christoe errana baidathor, aberax denarentçat,

Guciz dela gaitz helteca, ceruco erresumarat.

Ez baita aise bidaiatcen, haiñbertce cargarekin,

Ez aithe herxitie sartcen, haiñbertce bagayekiñ.

Cablea orrateetic eeen, pasateen da errechago
 Cernco bortha herxitic, aberax dena baiño.
 Cer yan, cer yauntz, non bici çue, baldiñ segur
 [baduçu,
 Content çauceci : san Pabloc, horla erraten derautçu.

FABLE XIX.ª

(2.ª DU LIVRE IV.ª)

ARTÇAIÑA ETA IXASOA.

ATHALDEAREN goçotic ixasoaren hauço,
 Artçaiñ bat bici ičan cen soseguan luçaro :
 Fortuna chumea çuen ;
 Aitçitic hau segura cen.
 Egun batez ikhusiric ixas-costa beguian
 Tresor asco çaudecila descargatuac metan :
 Guticia lotëen çaiõ,
 Bere arthaldea saltceco :
 Eta negociatecco
 Diru harrec ciraneño.

Bademo urari beraz çuen diru gucia,
 Baiña costa eguiñle galtcen da çaraman nntcia
 Ordutic berriz hartcen du utci oficioa :
 Baiña ezta ya cena lehen arthaldeco maistroa ;
 Aitçitic choilkĩ Patchicu artçaiñ soldatecoa.
 Cembait urtheren buruan, bere irabacitaric,
 Arthalde pollit baten da yabe eguiten oraíndic :

Eta egun batez haiceac ichilie caudecela,
Barcu betheac costara placentki çathorzela

Hola he! barcu ederrac,

Diru ketara ethorriac?

Dio: çoazte, çoazte, ni-ganie bertcerat

Ez nago segur aboro ni nerea emaiterat.

Ez derrat ez hau airerat,

Ezta ere asmu funx-gabe bat:

Baiña esperienteiatic, hartu yakitatea:

Haguitceaz batic-batean, hobe dela ukhaitca,

Sos bakhar bat escuetan,

Ecen ez hamar-menturan:

Eta batbederac duela egotea

Bere çortcaz satifo.

Ambicionearen

Eta ixasoaren

Dei enganagarriari.

Ez çaiola behar beharria ideki:

Nec entçun ukhanaz baldin, bat ongui bada heldu,

Hala eguiñaz hamar miller, aldiz çaiç urrikitu.

Irabaci guicenenac, orac ditu escañtceen,

Baita haice eta tubonez, emanac eramaten.



FABLE XX.^a(19.^o DU LIVRE I.^{er})

NAURRA ETA ESCOLA-NAUSIA.

HAUR bat dostatcen celaric ibai baten aldean,
 Ur handirat erori cen gaichoa ustecabean :
 Ceruac hala nahia, sahax bat guerthatu cen,
 Çoiñac, esker Yaincoari, salba-raci baitçuen :
 Ceucala, diot, tin-tinca sahaxaren adarra,
 Escola nausi bat handie badathor pasatcera.
 Haurrac oyhu : hel çakizkit, non ez, galtcera noa :
 Oyhu miñetara noizbait itçultcen da maistroa :
 Eta aire idor bat harturic, iduriz sasoiñ-contra :

Ah ! diotço : cithal tcharra !

Ikhus-açue ladrea

Certara den funx-gabea !

Canaila horieç guero

Har etçatçue arthateeco !

Ala hoien burhasoac

Baitire urricalteecoac !

Gaitztaguiñ hoieç gogoan

Bethi behar egon griñan.

Cer eztute sofritceco !

Çoiñ diren urricalteeco !

Eta erran gogoac erran ondoan hare astiro,

Haurra eçarri çuen noizbait ibai-heguien guero.

Baiña o maistro elbatia,
 Utz-ac gueroço erasia;
 Duken ondoan salbatu
 Eguic orduan predica.

Hemen ezta condenatcen errient hura choilki,
 Baiña oraiño asco bertce presuna hura iduri:
 Erasle eta criticari, baita hambat nausiteho,
 Eguintça ororen gaiñean dutenac errateco.
 Hula eguiñ, hala erran bacen, hara gan, honera yin
 Gauça eguiñ eta, bethi hec baçakiten cer eguiñ:
 Ondotie critica, abisu, letcioa eztute falta,
 Eusealdunac dioena bethi hill eta salda:
 Edo, hill eta abrea,
 Buztanean çaldarea.
 Holaco yenden arraçã hambat da poblatua,
 Non baididuri ceruaz choil benedicatua.

FABLE XXI.^a

{ 8.^e DU LIVRE VI.^e }

AGUDEA ETA ASTOA.

AGUDE bat cioala asto baten gaiñean,
 Phentce fresco guicen baten heguitie pasatcean
 Abreari bademo han sartceco licentcia,
 Hau laster iñoca dabill aleguera gucia;

Ihauska , itçulica , hatzca ,

Uztarça , irrincirîñaca

Belhar ferdea alha-alditan arraso daramala
Edoceiñec casu hartan eguiñ çuken beçala.

Baiña guti igurikia ,

Hor aguertcen çaiç exaia.

Goacen ihesi diotça ikharan agudeac;

Ha! certaco ? ihardexten dio abre teleac ?

Bi basta eta bi fardelez cargatuco naute ni ?

Ez, ez, derro agudeac çoalaric itçuri :

Cer çaiçet niri importa

Norç demadan niri basta ?

Çubaur baçoaske itçuri ;

Laket-lekhu çait haif niri.

Exai bakharra berdiñ gue yabea dugu bethi;

Euscara garbienean nic baderraitçut hori.

Guiçari astoarekiñ , guerthatu citçaiona ,

Hura bera bertce ascori , da guerthatcen çalena :

Azpicoer baldiñ brida , largatcen badiote ,

Nahi orduan alderat , eciñ bill detçakete :

Hunenbertce berec ecen , utzten diotenean ,

Haiñbertce haieç diote , hartcen bere chaindean.

Astoari nola , nombait laketcen baçaiote ,

Aiteç , çahar hare beçala , behar dute eguiñ bide :

Batçuen eta bertcentçat , ez baiça hori hobe.



FABLE XXII.^a(20.^e DU LIVRE IV.^e)

DIRU-ÇOIA TRESORA GALDURIC.

CERTACO daite tresora ,
Badago baldin alferra ?
Bakharric çurea dena ,
Da cerbitçateen çaitçuna.

Nahi nuke yakiñ beraz hambat yende çorocç ,
Urre, cillarrac metatcen bethi hari direnec ,

Cer duketen guehiago
Bertce guizon batec haiño ?

Erromesena hec beçaiñ aberax dago obian ,
Eta hura beçain pobre bici dire gaiñ huntan.
Diru-çale bat Esopoc hemen dakhar exemplu ,
Çoiñec gauça net gustoski senti-azazten baitu :

Bere içanez goçatceco harrec bacidurien ,
Birden bici bat oraiño çuela igurikitcen :

Çuen urrea etcen haren ,
Bera bai cen urrearen.

Haren goço bakharra cen bere diru maithea ,
Gau, egun, ordu guciez gogoan ibillteca :

Eta hartarie hartcea ,
Sacrelio idukitcea.

Cioan edo çathorren, edan edo yan ceçan ,
Barentçat ustekabea ongui behar cen içan ,

Baldin hare ez baçakharren gogoan fixatua,
 Haren dirua lurpean gordea cen lekhoa.
 Haiñbertee tornu hare toki hartara eguiñ cituen,
 Non leçoinguille bat hortaz noizbait ohartu baiteen:

Eta asmatu ric yocoa

Miratu çuen cilhoa;

Eraman han cen dirua

Eta iduki secretua.

Gure cicoitça cencan gueroago haratu,
 Diruaren ohatcea çuen choilki aurkitu.

Gaiçoa eman cen nigarrez,

Auhen eta deiadarrez:

Eciñ çaiteken consola.

Horla desolan dagola,

Norbaitec galdeteen dio cere duen hortaratu?

— Ene tresora baidautet, diotça, niri hartu.

— Çure tresora non bada? — Lauça horren heguian

— Cer hoiñ urrun eçartceco guerla dea herrian?

Ez cinduen bada hobe idukitcea etchean

Guiltça segur baten pean?

Behar ordu gueietan orduan çue han aise

Hartu eindukeien bethi hartarie lanyer gabe.

Bethil diotça, ay cerna! hori ere badugu?

Doan beçañ aise naski dirua dathorkigu?

Nihoiz unkitcen ez nuen.

Orduan, bericeac, arren

Cer diabrutaco cinduen?

Haren tokian emachu.

Harri bat nahi badugu;

Haiñ haliaturen çaitçu.

FABLE XXIII.^a(21.^a DU LIVRE IV.^e)

YABEAREN BEGUIA.

ORKHATZ bat herio-suhar heia bateratu cen,
 Çoîntan errara idi batçu hausnarrean baitçauden
 Arrotçari baderrote betbetan chutituric,
 Bertce nomhait gordetçera doala site handic.
 Anaiac, derroic lîunec, nere bîciâz doha,
 Othoitzten çaituztet arren ez maçaçuen salha.

Nic ere çner ordainez
 Nere ibilliaren bidez;
 Chuchen dautçuet erranen,
 Alha-pide onac non diren.
 Ascotan eerbitçu hori
 Balios cuentçat ongui,
 Içan daiteke segurki.

Cer guertha ere daie idiec aguiñtceen secretua,
 Çoko illhun batcan laster goibelteen da billdua:
 Haxa aise hartcen du eta badago trankilldua.
 Çilbuntcean ohi guisa manyatera, arrastelac,
 Belhar berde eta çubaiñez nasai dire betheac:

Sehiac goiti-beheiti,
 Hara-hunat ehun aldi,
 Badabilltça anxiatuac:
 Are etcheguiçonac berac

Aguertce bat eguiten du :
 Baina hau ere ezta obartu
 Çokoluan dagoenaz :
 Hunec salbo dauca beraz ,
 Ordutic bere carcasa :
 Ya esker biciae diotça ,
 Idien bihotz onari :
 Nahi du choilki iguriki ,
 Yendea oro landetara ;
 Doan here lanetara :
 Lanyer gabe cen tokitic ,
 Illki cedintçat gorderic.

Abre batec baderro ere; ederki doñ lana ,
 Baiña ezta aguertu oraino guïça ehun begui duna :
 Hunen bisita çuretçat guez da loxagarri ,
 Han arte , orkatz tristea , ez erran salbo naiz ni.
 Hortan nausia badathor , ikhustera betbetan :

Hau cer da? dio coleran ;
 Arrastela , manyaterac
 Cergatic daude erdi huxac ?
 Azpi haue eguiñ beharrac ?
 Deithcen tu bere sehiae :
 Hox ! laster çuhaiñ teguira.
 Behintçat hemendic hara ,
 Aditeen dut ene abreac
 Daiten arthatuagoac.
 Cergatic utz paretetan
 Marbalo lan haue dilindan ?
 Golde eta uztarri haue ere
 Berticela arrima ez daitezke ?

Beguiac darabillzkala heia çoco orotarar,
Azkenean ikhusten du lehen etcen buru bat.

Orkatça da eçagutua,
Hillcera condenatua;
Oroc çoiñ-guehiagoka,
Phaçota lodi colpeka,
Han berean dute ehotcen:
Deus ez çaizco baliatcen,
Ez, beguitarte eztia,
Ez nigarrezco isuria;
Salba ez deçake bicia.
Andetan hadaramate,
Çathitan gacitcen dute:
Eta hauçoac billduric
Eguiten dute ase-onic.

— Bego bethi, derra Esopoc nausiaren beguia,
Ikhusteco gauça nehor bertee ez ikhusia:
Nie aldiz exaiarena daducat haiñ arguia.

FABLE XXIV.^a

(2.^o DU LIVRE V.^o)

BURDIÑEZCO ELTCEA ETA LURREZCOA.

BURDIÑEZCO eltceac lurrezco eltceari,
Erran cion, goacen biac bidaiari:
Escusatu cen hau: cerralaric ecen
Hobe citçaiola haguitz iduritcen,

Sukhalde chocoa goardatcea bethi :

Ecen lukeneceotz bere tokia utci ,

Gauçaric mendrena liçatekela aski

Ilaren colpatecco ,

Baita ehun cathitan bertan eçartceco.

Aldiz çuc , diotço , larrua ez baituçu

Ilaguitcez nerea beçaiñ delictu :

Beldurtceco estuçu holaco deus ere ,

Eta nora nahi çu baçoazke aise.

Burdiñezco elteeac ihardexten dio ,

Lanyer guericen çaitut idukico.

Gogorcheo cerbaitec yotceco mencean ,

Çu causi çaitzekenean :

Colpea hartcetie çu beguiratceco ,

Artetic naiz pasatueo.

Escaiñtça eder horrec dio emaiten gogo ;

Burdiñezco aizpa ere aldera dathorco :

Eta bi presunac hirurna çangotau ,

Badoaz maiñguka daiguiketen guisan.

Harriçoric baldin topatcen badute ,

Bata bertceari yoca hari dire

Lurrezco elteeac haiñ patitcen çuen ,

Non , hola ehun urbax eguiñ baiño lehen ,

Compaiac baitçuen pusketan eçarri :

Baiñan ez caiteken çorte hortaz pleiñi.

Aldebat chuhur baduçu , çure herruncan çandë

Handiago direnekin , ez çaitceela kide :

Non ez , lurrezco elteearen , çortea daite çurë.

FABLE XXV.^a(13^o DU LIVRE V.^e)

DIRUCOIA ETA URREZCO ARRAULTCE EGUILLE OILLOA.

CICORTÇAC gucia nahiz, gucia obi du galteen
 Hala nola gaiço batec behiñ eguiñ baitçuen;
 Fable hunec dakarrena baldiñ eguia bada,
 Lafontenec edo Esopoc gauça condatua da.
 Egun guciez cioen oillo batec leyalki
 Urrezco arroltee bat elucheñ erroten yabeari
 Hunec aldiz penxaturic oillo harrec sabela;
 Tresor oso batez betan bethëa çaducala;
 Hilteen du eta idekitcen,
 Eta harritua aurkitcen,
 Difuntuac etçuela bere barnean densic,
 Dens ematen ez cioten oilloec ez çutenic.
 Eta bere buruari ciola haiñ çoroki,
 Eguneço errenta ona bethico gal-araçi.

Cicoiteec nahi badute
 Ezcola hor bar beçate :
 Cembatec gure egunetan
 Aberaxtu nahiz betan,
 Daucaten segurean
 Duten eçartcen menturan!
 Nahiz ukhan ez dutena,
 Galteen dute badutena :

Eta gaur bicitcecoa , ausarki baçutenac
Aurkitcen dire biharco , colpez erromesenac.

LIBURU BIGARRENAREN ACABANTÇA.

LIBURU HIRURGARRENA.

FABLE I.^a

(4.^e DU LIVRE VI.^e)

ACHERIA, CHIRINOA ETA ANIMALEAC.

LEHOIÑ bat luçaro oraiño bici ustea hill cen,
Çoiña, bicia çueiño erregue puchant baitcen.

Beraz hill cenean, haren peco ciren
Animalec oroc billtear eguiñ çuten;
Behar çutela eguiñ froga bakhuncoa;
Çoiñi çoacoken harc utci khoroa;
Erregue içaiteco haren plaçacoa.

Atheratcen dute khoroa cachatic -
Çointan altebatua baitçagon bethitic.

Aldizea çueice enxaiatecen dute,
Baiñan içarico batec ere ez duke:
Batçue tükiegui baïdute scoa,
Bertecet larriegui hunen tamaiñoa:
Hauc berriz adarrac copetan goregui,
Beharria astoac guti bat lucegui:
Chiminoac ere hirriz dagoela
Froga hera eguiten du bertecet beçala

Eta dostatceco miratcen tyara.
 Badabillzeca inguru haiñitz industria,
 Milla grímasa, eta chiminokeria :
 Brinco çalhu batez khoroa barnetic,
 Pasatcen da hala, nola uztai batetic :
 Animalec hori haiñ dute ederrexí,
 Non oroc baitute printcetçat onexi.
 Bacotchac eguiten dio bere agurra ;
 Orotaric choilki acheri maltçurra,
 Eguñ den hautuaz dago gaitcitua :
 Baiña aguertcen eztu batere kherua.
 Complimendutxo bat hanc ere eguiñ eta,
 Baderro erregueri : beraz yaun monarca,
 Toki bat badakit bertec ez yakiña,
 Tresor aberax bat gordea daucana.
 Bada leguea da, horrelaco aurkiñtçac
 Bere dituela çure mayestateac.
 Nihoiz içan diren bertec erreguen pare,
 Erregue berria baita tresor-çale :
 Aipatu lekhura bera da gan nahi,
 Ez dadintçat arren trampatna gueldi.
 Arte bat çagon han ongui harmatua,
 Chiminoç hartan içan cen hartua.
 Billtçarraren partez achériac dio,
 Eztutela eguiñec deusere balio.
 Heronec beure burna gobernatu ecin due,
 Eta hie gobernatu gu guciac nahi gaitue ?
 Cargu emana cuchia beraz khendu cioten :
 Eta oroc orduan claro ikhusi çuten,

Erregue içaitea dukenie mereci,
Ez daitekela aurki baicen haguiz guti.

Animalecc orduan certan eguiñ ez çuten,
Guiçonec casu berean ohi dutena eguiten?

Khenduric azken monarca

Iphiñtceen errepublica?

Nic ez dakit ceren gatic:

Fableac ez dakhar deusic.

Aiteitie berteeç cergatic

Gauça hura eçartceen dute

Bada oraiño hemen ere,

Berdiñ diot: ez dakit nic.

Çoiñ den hoherena, gauça bietarie

Yuyatecco deçagun utz, arbola fruitutarie.

Bethico esperientciac, gauça da irakhaxia,

Bordaria ontceen eçtela, mudatuz maiz nausia:

Ez aberaxten sehia, çanyatuz maiz tokia.

Yendeac ere diduri mudautça husutarie,

Nihoiz guti dakharrela, cargaren gutimenic:

Gutiago onant çaren nihoiz berratçapenie.

FABLE II.^a

(3.^a DU LIVRE XII.^e)

GATHU ÇAHARRA ETA SAGU GAZTEA.

SAGU gazteino bat mundura berria,

Guti ikhusia eta baiñ guti icasia:

Gathu çahar bati çagocon othoitceez,
 Ilura ematu nahiz bere arraçoïñ onez.

Biciteerat utz naçaçu
 Naicen beçalaco sagu
 Ttiki-ttiki pasa-errecha,
 Içan daitekeia carga
 Etchearentçat batere?
 Baliduritçaitçuke othe
 Etche huntan yaun andreac,
 Eta daitezken bertceac,
 Hill detçakela goseac,
 Nie yaten dudana-gatie?
 Ogui bihi bat bakharric
 Aski da nere asetceco;
 Eltchaur bat ere seguric
 Arras ni biribillteco

Mehe naiz oraiño : naçaçu utz aphur bat;
 Errepas hau bego çure ume yaunentçat.
 Horla sagu gazte çori-gaitcecoa
 Gathuari mintço citçaion laiñoa
 Trumpatu haiz bada, bertceac diotço:
 Horlaco discursaç niri hedateco.
 Gathu çahar batec nihoiz barkhatcea!
 Bertcelacoa dun bethitie leguea.

Legue horren arabera,
 Hill-hadi, ta berehala
 Hail toki goibeletara
 Hire arengac eguitera
 Ene haurree aski bertce
 Errepas ukhanen diño.

Ez çuen faltatu errana eguitea.
Huna fable hunen morala simplea.

Gazteac bere baithan, fidantcia asco du,
Errechki gucietan, du uste acertatu :
Aiteitic çaharra, gogorra da erraiez,
Ez bera, ez unki hau, ez daiteke deusez :
Bi defant hautarie, çoin da gaitztoena ?
Ene oldez seguric, da çaharrarena :
Ecen gazteenac, erresurxa badu,
Esperientciac, correyitcen baitu :
Aldiz çaharrena, da erresurxa gabe
Esperientciac, muda ez baidaitke

FABLE III.^a

(6.^o DU LIVRE XII.^o)

ORKHATZ ERIA.

ORKATCEN herrian behin orkatz bat eritu cen ;
Haren etçantçara laster haiñitz kide yiñ ciren :

Ikhustera, laguntcera,

Bedere conxolatcera.

Bethi çaioke erlari

Oste hori khechagarri.

Ah ! yaunac, utz naçaçue, trankill, otboi, hillicera ;
Eta herioa bertceç beçala seguitcera :

Ez daritela negarrec!
 Baiñan ez : conxolariee
 Eguiñbide triste hori
 Bethe nahi dute osoki.
 Goan ciren bada azkenean,
 Yaincoae nahi epheap:
 Ez hargatic edan gabe,
 Erran nahi da; eguin gabe
 Alha-aldi bat bedere.

Haritztegui hauçocotan denac barrâiatorie
 Alhapideac oro utci cituzten larruturie.
 Errekeitua eriarri citçalon baguitz moiztu,
 Plat onie ya ez çuen ceren okhaitea pensatu:
 Gaitz batetic erori cen areago batera,
 Eta azkenean ethörri osoki barurteera
 Eta goscac hiltteera.

Eriac ezditu choilki contuan hartcecoae,
 Medicu, sendagaillutan eguiñ diren gascocae:
 Ahal beçaiñ laster diru, onez pagatcecoac.
 Baditu bertee batçuec, ez gutiagocoac.
 Bisitari, conxeillari, eta gau-beillaritan,
 Arno fiñ, licur, chocolot, eta maçapanctan,
 Hambat aise badoaco, nola purga, ayutetan (*).
 Urus, diotçatenean, erresurxac gutiteen,
 Hitzketcz ez badiote, bere gaitça berretcen.

(*) Suberoa aldera, *ayutari* erraten diote *Labamen-
 dia*.

FABLE IV.^a(14.^a DU LIVRE III.^e)**LEHOIÑA ÇAHARTUA.**

URTHEZ eciñdua çagoen lehoiña
Oyhanac aspaldi ikharan çauzeana :
Eta orai galdua balore iragana.
Azpicoec beraz atacatu çuten ,
Hura ecintcean hec hazcartu baitciren.
Ostico batez du yoteen çamariac ,
Adar-ukhaldica sistatcen idiac ,
Oxoac ez daizca guphide ausikiac.
Lehoiñ malurusac , ecindua , triste ,
Orho illhun bat eguiñ apenaz deçake :
Bere çorteari sumetitcen çaiio ;
Pleiñta allerric ere batere ez dario.
Baiña ikhusten du bai dagoen lekhura ,
Badathorkiola are astoa bera :
Ay ! ay ! hau diotço , çaitac soberache :
Prest nindagoken bai hillcera hementche :
Baiña hire-gaie laido nie hartcea ,
Dietan çaitac hilltcea.

Gazte , sendo , handi denac herbal eta tiipia ,
Munduan ohi dauca deus , gutitçat idukia :
Tontokeria handia !

Ecen ardura ikhusten da, puchantena betbetan,
 Gucien meneco eguiña plaiñu eta auhenetan:
 Eta asto sendoac duke, balio guehiago
 Lehoiñ eri denac baiño.

FABLE V.^a

(7.^e DU LIVRE III.^e)

EDAILLEA ETA BERE EMATZEA.

BADU nore bere defauta

Çoinetara bihurteen hura bethi baita:

Ahalkeac ez loxac ez deçake aparta.

Hunen gainean dathorkit condaira bat gogora,

Çoiña exemplu batez orai bainoa lincateera.

Bakhusen (*) debot on batec çaramatçan gaitceera

Bere osasuna, centçua, baita are bolxa bera.

Ecen holacoac nekhez dire bidez erditan,

Non ya causitcen baitire bere sos ondarretan.

Hunec guciz emaztea çaocan gaitcitua,

Ahotic baitçaramacon menayuco dirua.

Guçça correyitu nahiz asmu hau eguiñ çuen:

Behar bada ema ezconduec oraindie ez çakiten:

Ez derrotet nie hargatic hec pratica deçaten.

Arrax batez bereciki

Citçaionean etborri,

Hare nola baitçuen ohi:

(*) Bakhus, arnoaren eta debochkerien jaincolet
 paganoen demboran eçagutua eta adoratua.

Ecén egon guisa chutic,
Aihen-yusac hartararic,
Boteillan centçua utciric

Eçartcen du damac tomba orde batean,
Arno berriaren laññacec coiñetan
Astiro iraki baitcioçaketen.
Atçartcean colpez hor da guiza ohartcen,
Hillteeraco tresuez dela inguratua:
Chirio luce bat aldean phitztua,
Hill-mihisea ere gaiñetic hartua,
Eta haraco-han ur bendicatu.

Ay! ay! diotça, hau cer da? albargun duta andrea?
Ordu berean da aguertcen haren sabex tendrea,
Estalki luce batean gorphutça troçatua,
Masea bat bisalan eta mintçoa mudatua:
Alde guciez arima herratu bat iduri,
Badoaco emeki-emeki hurbill hill-ordeari.
Escaincen dio salxa bat satanentçat eguiña,
Ordutic senharraç eztu dudarie chumeçna,
Egoitçatçat eztuela ifernuco barrena.

Nor haicen erradac, derro fantasmari:
Erresuma goibeleco despenxaria nauc ni;
Huna dathorzen orori nie cemotet yatera:
Guizaç cuchiañ baderra:
Ez demoten edatera?

Fabletto huni nere ustez, bi gauça badarraizco.
Bata, edateco ohitçari, darraiona luesco.
Haren esclabo dagola, hilltecco orduraino

Baita easie haratago,

Fableco gniça lekhuco.

Bigarrena, ema ezconduac, ez dukeiala ondotic
Moyenic, correyiteco, senharra biciotic.

Aitciñetic behar dela, sabex ona hautatu.

Uteiric gazte debocha, gazte prestua hartu :

Eta tristeac hautuan, trumpatu direnean,

Goçoric ez duketela, baicican othoitcean,

Gurutcearen aldean.

Non ez duten nahiago, senharrekin trincatu,

Bi burutan etcheari, biçc betan eman su :

Nola gure tokietan, maiz ikhusten baitugu.

FABLE VI.º

(17.º DU LIVRE IV.º)

ÇUHUR BATEN ERRANA.

Guiçon bat hari cen

Behiñ etche eguiten

Baiña guiçon handi bat cen

Icena Socrate (*) çuen.

(*) Greciaco filosoforic yakiñen eta çahurrenetarie bat :
duela bi milla eta hirur çhun bat urthe bici cena. Ha-
nec, bere centçu naturalaz haliatuz, ikhusi çuen eta
irakhaxi, Yainco bakhar bat baicic ez daitekela. Hortaz
izatu cen acusatua crimarie handienaz beçala; preso
eçarria, eta presondeguian escañi eioten edari poçoin-
datus irextera obligatus; eta hola çuen acabatu bicia.

Oroc eritacuten çuten haren laua.

Batec cerran, eguiazki etchearen barrena,

Holaco yaun bati segur ezta doakokena;

Bertce batec aldiz cion : etche aitcindegui hori,

Ez çait iduritcen ongui ni naicen simpleari.

Gueiec cioten apartimenduac

Herxi eirela eta haguíteez escasac.

Cer egon-tokia horlaco batentcat!

Bira ere ecin casie harat eta hunat!

Yaunac, ochala, diotça,

Dena bethe ahal baneça

Adiskide eguiazcoez,

Prestu, fiñ eta irauncorrez!

Çuhurrac arraçoin çuen,

Cembait froga eguiñ çukeien :

Halacoentçat etchea

Handieguia aurkitcea.

Bethi da bere mihlan adiskide nor nahi;

Baiña erhoa da fidatcen, çaiœena hitçari.

Iœena da comunena,

Içana aldiz bakhanena.



FABLE VII.^a(14.^a DU LIVRE V.^e)

ASTOA ERLEKIEKIN.

ASTOBAT cioalaric
Erlekiez cagaturic ,
Buruan eçarri çuen
Hura çutela adorateen.
Hartua hortaz burua
Baçoan fanfarrundua;
Iuxenxua eta canticac
Çaduzcalaric guciac
Ciñez beretçatecoac.
Nor bait hortaz oharturic
Khenteecco haren cascade,
Penzamendu supher hori;
Baderro abre gaiçoari:
Enganatcen çare, beharri-lucea!
Çure idukiteean oraico ohorea:
Gloria hau oro ez doatçu çuri,
Baiña daramaçunari.

Gauça bat da haguitz, maiz ikhustecoa ,
Doctor baten balioa,
Dela haren soiñecoa :
Harc duen arropa ez balu ,
Nore lake een hartaz contu ?

FABLE VIII.^a(15^o DU LIVRE V.^e)

ORKATÇA ETA MAHAXTEIA.

Ora eta ihiztariz behin orkatz bat bortchatua,
 Mahaxti hautiñ batean sarthu een exitua :
 Eta hartan edirenie gordetceco tokia.

Salbatu çuen bicia.

Ihiztariee ordutic dute penxamendua
 Orkatçaren arrastoa dutela orec galdua.

Deitcen dituzte oinetara

Aphur bat descaxatcera.

Eta orkatça lañyeretic itçuria doiean,
 Onguiguilleari hortceez lotcen çαιο goscen.
 Badaitekeia esker escas beltçagoric lurrean?

Baiña orec aditu dute,

Berriz hara billtceen dire :

Handic dute yauz-arazten,

Alde orotaric herstutcen.

Azkenean han berera,

Tristea dathor hilltcera.

Caçtigu hau, dio, leguez dut mercei :

Ingrata, çu huntaz balia çaiteci.

Erortcen da bertan. Eta orac billduric

Asetcen dire hartarie.

Alfer tu ihiztarier eracuxi negarrac,

Haukien erraiac daude ohi beçaiñ gogorrac.

Munduan esker eçcasa, da gauça ixusiena,
 Gueçur eta ohoiñtarekiñ, berdiñ eçarteen dena :
 Aldiz fedearen bistan, hagnitz areago da,
 Christau baten obenetan, handiena hau baita.
 Gaitzki eguilleari on-eguin behar badio,
 Oneguilleari hare çor, horlatan eer eztio ?
 Esker itçultceco plaçan, laido badu eguiten,
 Icen gabeco mustro bat, baicen ezta guelditcen.

FABLE IX.*

(19.^e DU LIVRE II.*)

LEHOINA ETA ASTOA IHICIAN.

ANIMALEN erregueac bekiñ chede eguiñ çuen,
 Eguiteco ihizta aldi bat, bere besta baitçuen.

Lehoiñaren ihicia

Ezta ez begastin itikia;

Baiñan edo basurdea

Edo orkatz har edo emea.

Bada eguitecoa çoacontçat ongui

Astoa çuen hare hartu cerbitçari.

Sorteeac emanic hunec nola baitu

Boz hazear bat çoiñac parerie ez baitu :

Beharri-luz beraz eordechaçalari

Citçaion içatu musde lehoiñari.

Hunec eman çuen panttupa batean,

Abar hece meta handi baten pean.

Erran cion handie orho eguiñ ceçala,
 Bulharree eman ahala.
 Hunen arramantçae penxateen baitçuen
 Beren etçhetarie colpez eraikiren,
 Cituela trantçituac
 Laur atçetaco guciac,
 Gutien iciac berac.

Oste hau oraino etçen ohitua
 Entçuten haren boz espantagaillua;
 Airtan çebillan trumboiaren pare:
 Oyhantarrac oro loxa eta herabe,
 Çoacela ibesi, denac baçathorzen
 Toki çorizeora, çointan baitçagoen
 Ehortçecoaz yakia
 Ephaitçan gure lehoia.

Ez duta egun ederki nie irabaci yornala?
 Dio astoac, gloria oro here harteen duela?
 Bai, bai, diotço lehoiaç, orho eguiñ duc gothorki
 Hire eta hire arraçaren ez banakie nie berri
 Loxa ninteken nerorri,
 Balitz astoa atrebitu,
 Coleran çaiten sarthu:
 Nahiz bada burla hori
 Leguez çoacoken hari

Eçen norc deçake yasan fanfarrandua astoa?
 Segur caratera haieç eztute hortacoa.

Handieç duteiño, tipiçen beharra,
 Ezdute guphide, lausengu maltçurra:

Baiña eguiñ dute bai, hec bere yocoa,
 Aise dute ahantzten, çor duten pagoa.
 Lanaren saria, çaie bai eskatcen,
 Urus afruntutçat, ez badute hartcen;
 Eta laidorekin, guibelat egorteen.

FABLE X.^e

(4.^e DU LIVRE III.^e)

IGUELAC ERREGUE-CALOEZ.

IGUELAC errepublicaz lehenago unhatuac,
 Eta erregue batez nahiz içan gobernatuac:
 Eman ciren Yupiterri (*) oro belan oyhuca,
 Eman ceçacoten arren desiratu monarca.

Erori citçaien lagona gaiñerat
 Cerutic betbetan printce bakhezco bat.
 Baiña hambat hunec erortcearekin,
 Intçura gucian çuen açantça eguiñ
 Non, yende iguericaria,
 Arraçà ergnel eta icia,
 Ikharatua gucia;
 Sunxitu baitcen ihesca;
 Edo urpera pulunpaça,
 Edo sesca eta ihipera
 Intçurac cituen cilbosca orotara;

(*) Jupiter, pagatotasuneco jainco falxo gucien nau-
 sia.

Luçaro ez cirela loxaz atrebiteen
 Printcea ikhustera nolacoa othe cen :
 Bonaparte bat ceucaten,
 Eta hura laça bat cen ,
 Çoifnaren hultuac baitçuen harritu
 Ikhusi behar çuela ,
 Chilotic atheratcera
 Lehen cena benturatu
 Hurbillteen da , baina ikharan dagola ;
 Eguiften du bertce batec hare beçala :
 Ondoan badathorz ebinaurrien pare ,
 Oste erguela guero haiñ da eguiten trebe,
 Non baidiote erregueri
 Gaiñerat eguiten yauci.
 Monarca gaiçoe oro yasaiten tu ;
 Sosegutic deusec ez duke mugitu :
 Yupiñee laster du burua arraildua.
 Oyhuz dagokio berriz populua ,
 Emaguçu , dio, printee dabillken bat :
 Lerrun bat egorteen daie monarcatçat.
 Hunee , hill eta banazea ,
 Irexiz badaramatça.
 Igueler hula ere pleiñtac darizcote :
 Yupiñee (*) orduan leguez baderroie :
 Zer bada çuen nahien
 Gathibo garela içanen ,

(*) Yupiñ, Yupiterri trebentziaz emaiten cioten icena.
 Hala nola , piarresentçat erraiten baitugu : berriri edo
 peillo.

Penxatu abal duçue ?

Behar ciñduten atchiki gobernu hastecoa :

Baiña ciñdutenaz guero bertcelaco gogoa ,

Aski behar citçaiçuen printee hastapencoa

Cen beçala cediñ içan eztia eta malxoa.

Bada duçuen hau , onhex eçaçue.

Non ez , tcharrago bat , emanen çaitçue ,

FABLE XI.

(15.^e DU LIVRE IV.^e)

OXOA , AHUNTÇA ETA PITTICA.

AHUNTÇAC , behiñ çoala

Hauçoco belhar berrira ,

Errapea bethetçera ;

Maatillaz bere bortha

Hexi çuen ; erran eta

Pittica bere umeari :

Behauten idec nihori !

Haurra , biciaren penan ;

Non ez dautçuketan erran ;

Adiskide seinaletçat :

Gaitça dela oxoarentçat ,

Eta haren castarentcat.

Harc hitz hoiec erratean

Oxo pasatu cen han ;

Ilunec , contuz billdu eta ,

Gogoan tiñki badauzca.

Gormanta orduan segurki
 Amac ez çuen ikhusi.
 Hau gantche deneco handie,
 Hunen mintçoa harturic,
 Eta boça meheturic
 Badoaco pitticari
 Nahi dion ez ideki;
 Derrolaric seiñaletçat.
 Gaitça dela oxoarentçat.
 Eta uste çuen çucbean
 Sarthu behar cela-etcbean.

Pitticac, heldurti bethi, ttarttetic du behatcen :
 Patta churia ikhus ? non-ez, nie eztut idekitcen ;

Da haren lehen mintçoa.

Baiña pata horlacoa

Oxoen artean guti da usatua

Gauça den beçala oroz yakiñdua.

Mintço hori aditceaz estonitua osoki,

Oxoa yin cen beçala handie goan cen prudenki

Pittica non içanen cen

Sinhexi içan baçuen

Hitz seiñaletçat emana,

Lehenago oxoac guerthuz atcemana ?

Munduco eguitecotan, calte eztela didori,

Segurantçaz ukhaitea, baten plaçan bahi bi :

Egundaiño nihorc eztu, sobraz guibelat utci.

FABLE XII.*(3.^e DU LIVRE III.^e)**OXOA ARTÇAIN BILLHACATUA.**

Oxo batec ikhusirie gutituaz çoala,
 Inguruc ardiatarie billtceen çuen grabela:
 Gogoratu çuen cela harentçat hoberena
 Eguitea casu hartan hare acheriarena.

Artçaiñ guisa da beztiteen,
 Capusaill batèz estaltceen:
 Bastoi bat ere eguiten du
 Chirola ere ahantzten eztu.
 Yocoa cediñ complia,
 Hare esribuz eçarria,
 Eman çukien gogotic
 Çariola capelutic:
 « Ni naiz Manoel artçaiña
 « Arthalde handi huena. »

Bere presuna horrela duenean compoundu,
 Eta bastoiaren puntan bi patac arrimatu:
 Aleguiazco Manoel hurbilltceen da oiñ bat oiñ bi
 Orduan lo çagon tinki
 Manoel eguiazcoa
 Sorhopilean gaiçoa
 Lo çagon ere çacurra
 Baita ehirola meharra:

Lo çauden ardiac ere

Guehienxuac bedere.

Madreac utzten dauzkitçu oro diren beçala :

Baiña ardiac billdu nahiz harc bere corralera ,

Bertee artçaiñac beçala oyhu eguiñ nahi içan çuen ,

Comeni hala iduritcen cela baitçitçaioen.

Hementche ekibocatu cen ,

Yocoa ere aguertu çuen :

Artçaiñac beçala oyhua eciñ eguiñ baitçuen.

Baiña eguiñ çuen orhoa

Oyhana iharrostecoa.

Hunen boxera guciae

Mutill , çacur eta ardiac

Betan iratçarri eiren.

Oxoac ordutic cer eguin haçuen.

Eciñ itçur , ez defenda ,

Capotea baitcen traba ;

Bere contua ukhan çuen ,

Nola mereci baitçuen.

Bere yocoa ez darama hipocritac luçaro ,

Ustecabez prestamuzeo masca erortcen baitçalo :

Eta orduan guciez da , leguez arbuiatua ,

Nola baita içaiten bethi , guezarti frogatua.

Bacotcha aguer bedi beraz , bethi den beçalaco.

Bertee edoceiñ defaut barkha , dakiok e aiseago ,

Trumpatu nabia baiño.

FABLE XIII.

(14.^o DU LIVRE II.^o)

HERBIA ETA IGUELAC.

HERBI bat bere chiloan

Çagon behin penxaketan :

(Ecen eer eguiñ celdetan

Ezpadago gogoetan !)

Gaichoa baçagon beraz

Hartua melancoliaz.

Animale hau triste da,

Eta losac biran dauca :

Yende iciperae, hare dio,

Çoiñ diren urricaltceco !

Yaten dutenec ere onic eguiñ ez deçokete

Placer garbi bat nihoiz ez : bethi trantcean daude.

Horra nola naicen bieï

Loa ondicozcoac niri

Loa ere daut ebakitcen :

Niholere nihoiz ecen

Har ez deçaket pausoric

Beguiac çabalie baicic.

Correyi çaitte derrake casco cembait çuhurrec :

Helas ! icipertasuna khien deçakeia deusec ?

Are, lainoki derradan, sinhexia daucat nie,

Guicec ere badutela nie dudan gaitz huntarie.

Horla cerasala herbi beldurtiac,

Erue alde orotara çauzean beharriac.

Osto bat, haice bat, ez deus, itçal simplea bera,

Aski cen hari betbetan emaiteco sucarra.

Amex horietan çagola sarthua,

Gure acinda triste, melancoliatua;

Hox ariñ bat çαιο beharritarateen,

Eta fite çαιο ibesari lotcen

Intçura baten heguitic çoalaric laurenca,

Iguelac ikhusten ditu yauzten urera osteca:

Ah! dio nere beldurra bada norbait duenic,

Bertceç nola niri; bertceç hala eguiten daiet nie.

Naiceneco aguertu oro loxa dire,

Campac ere ikharan daude.

Cer! animaleac detçadan nie ici!

Guerlaco ozpiña bat içango naiz naski?

Alabaiña segur ezta nehor haiñ pultrun denic;

Causi ez dukenic bera baiño pultrunagoric:

Yauuari esker munduan, bada gucieticaric;

Hautaric ez gutienic.

FABLE XIV.^a

(16.^a DU LIVRE IX.^e)

TRESORA ETA BI GUIÇONAC.

Guiçon bat cituen oroz gabetua,

Creditic gabe eta sakelan diabrua;

Erran nahi da deusic ez :

Asmu eguiñ çuen ciñez,

Haren hoberena cela,

Bertce ascoe ohi beçala,

Fiñatceco axecabca

Bere burua urkhatcea :

Berdiñ hare ez bacen, goscac hau bera

Laster eguiñen çuela :

Çoiña baita segur beriotce guisa,

Bici-gura direnentçat haguiz guti gustosa :

Badioa ordn beretic etché tçar batetarat

Bere chede ondicozcoa pratican emaiterat;

Daramalaric soea bat.

Hau nahi du itce batez seguratu paretan,

Baiña murru çabartua lehen maillu colpean

Erortcen da, eta tresor bat dathor harekin betan.

Billtceen du gure exituac, badarama boztua;

Badioa urrearekiñ, nteiric caprestua.

Condatu gabe ere, suma ixura da hartua.

Galaia doala handie istapeca,

Yabea badathor tresoraren cherca :

Dirua aurkitcen du berteetara goana.

Çorigaitz hori cen hare ecin yasana.

Cer! diotça, suma hau ni galduric nadiñ bici!

Eta ez naiz ordn berean urkhatuco nerorri?

Bai eta hala eguiñen dut,

Non ez, soca ukhanen eztut

Caprestua han çagoen;

Choilki guiçona falta cen.

Hartcen du hau eskutara ;

Eguiñic urkha-billerra ,

Tincatuz hartan cintçurra ,

Badoa bertee mundura.

Eta hunc ceucan naski hura consolatua.

Bertee batec çuela eguiñ, lacearen gastua :

Eta horrela ukhan çuen , guerthuaren drolea !

Diruac berea nola , socac bere yabea.

Dirucoi guña hillcean, ez daite negar gabe ,

Bere tresora berekiñ , hare ez baidaramake.

Nekhez billdu cituenae, utzten ditu bertcentçat,

Ahaiden, ohoiñen edo bedere lurrarentçat :

Billduez goçatu gabe , den gaiçoa miñekiñ ,

Bertee aldean aguertcen da begui larrituekin

Hemengoa baitu , bethicotzat galdu ,

Hango bethicoa , ez aldiz beretu.

FABLE XV.º

(17.º DU LIVRE IX.º)

CHIMINOA ETA GATHUA.

YACOT chiminoac eta Mimi gathuac lehen,

Etche bera, mahaiñ bera eta nausi bera çuten.

Aciñda gaitztaguñezco horra ene ustez pare on bat :

Ausart eta maltçur ciren bat bertcea beçambat :

Nihoren beldur etciren,
Edoceiñ iñan çaiteken.

Etchean bacen deus nihoiz escas edo hasirie,
Acusatcen eteen nihor hauçoco yendetarie:

Yacot cen ohoiña bethi;
Eta bere aldetie Mimi,

Sagüer baiño erneago çagokion gasnari.

Gure bi fricun maistroac egun batez çaudela,
Erretcen hauxpean çauden gazañ batçuer beira:

Hauien escamotatcea,
Hee cioten: cer colpea!

Madrecc ikhusten çuten hor abantaill doblea,
Bere ona lehenic, eta guero berteen caltea:

Yacotec derro Mimiri,
Bada egun-doakie hiri

Colpe on baten eguita;

Haux-petic atheratcea,

Bocado goço horiec:

Ya ecen daniçatu lituzkec,

Yayo iñan baninduc ni

Gaztai erreac hauxetic atheratceco egoki.

Eguidac axeguiñ hori?

Lotceco ez çuken Nimic

Othoitzte luce beharrie.

Erran beçaiñ laster eguiñ

Mimic modu haiñitcekiñ,

Hedaturic patta surat,

Baztertzen du hauxa aphur bat:


Eta guibelat erhiac

Badakhartz beroeguiac:

Guero berriz luçaturic ,
 Badakhar gaztaiñ bat sutic ;
 Bertee bat hunen ondotic :
 Hirugarren bat oraiñdic :
 Yacotec ethor ahala
 Badaramatça tripara.

Baiña nescatcha hor dathor : adio nere galaiac ,
 Penaz utciric gaztaiac :
 Handic itçuri gan eiren
 Mimi content ez omen cen.

Errebolucionetan horla dire guelditcen ,
 Fanfarrun barricadetan , direnac guducateen :
 Gaiçoece eguiñ tortilla , baitate abillec yaten.
 Populu soberanoa , den ondoan nekhatu ,
 Membroez , edo biciaz , denean han puntchatu ,
 Charlatanec dutenean , yocoa seguratu ;
 Oyhuz diotela : biba nacione handia !
 Elhe ederreiz daienean , eman ferecaldia :
 Doble carga bademote , laster abercari ,
 Eta baldiñ eciñdua , badago hura nagui ,
 Merke bastoi ukhaldia :
 Biba populu handia !



FABLE XVI.*

(14.* DU LIVRE VI.*)

LEHOIÑ ERIA ETA ACHERIA.

ANIMALEN erregueac
 Cilhoan eri çauntçanac
 Bere aspico gucier
 Ordena çaien egorri:
 Arraça ciren guciec,
 Adardun, adargabeec,
 Bidal cetçaten gorthera
 Monarca bisitateera,
 Deputatu hantatoac;
 Çauzcala segurthatuac
 Berac, baita are seguidac,
 Lehoiñ bitçaren azpian;
 Aurkituren çutela han
 Cariño eta beguitarte:
 Segurantça ere bertçalde
 Hortz eta atçaparren contra:
 (Ez baitcen hau gauça alferra.)
 Pasaporte on bat oraiño
 Trankill bidea eguiteco.
 Printcearen decretua
 Içatu cen complitua:

Alde orotaric gan ciren
 Haiñitz yende, çoinac lehen.
 Acheriac ciren choilki
 Etche alde egotu prudenki :
 Batec eguitate hærren
 Arraçoin hau eman çuen :

Cilhora gan yenden oiñen bideco arrastoac,
 Dire oro haratecoac.

Aldiz bisitatie nihor guibelat yin othe den,
 Batec ere eztu marcatcen.
 Horrec gaduzca beldurti :
 Haren mayestateac guri
 Digula beraz dispenxa :
 Pasaporta goarda beça.
 Yanna uste dut ona dela :
 Baiña haren gatzelura,
 Ikhusten dut asco sartcen,
 Eta bat ere ez illkitcen.

Behiñere ez balu eguiñ, acheriac treturic
 Fable hunec dakharrena, baiño gaitztoagoric :
 Duen fama tçarra segur, ez çuken garraiatu
 Ecen çuhurtcia bera denac erraiten daucu :
 Usoaren pare, içan çaitte laiño,
 Çuc nihor ez trumpateco :
 Suguearen pare, erne bethi çaren,
 Bertec engana ez çaitçaten.

FABLE XVII.*

(13.* DU LIVRE VIII.º)

ARRATOÏNA ETA ELEFANTA.

FRANXESEC guenre buruac daduzcagu net handi,
Egun guciez ikhusten den gauça bat da hori:

Aire important bat da harteen,
Eta ezta gaiço bat baicen.

Hau da bereciki Frantziaco gaitça:
Banitate erguela da gure primeça.
Españolac haidor dire duda gabe;
Baiña bertecela bedere.*

Heien urguillua niri diduritçait, bitz batez,
Erhoago haguitz, baiña ez haiñ gaiço haiñtceez.
Emakegun gurearen
Itchura cembait bederen.

Ttipienetarieaco arratoiñ bat cegola,
Handienetarieaco elefant bati beira:
Estai haltoco abre hunen ibill-aira torpeaz,
Laur patta ariñen gaitetic trufatcen cen hura arras.
Bertcea baçoan bakban eskipaia handian;
Hirur alasetaco abre largoaren soñean,
Printcesa turco bat haguitz famatua,
Bere etchadia oro berekiñ hartua

Gathua, ora, chiminoa,
 Perroketa, baita axoa;
 Pelegriñ cioan beilla compliteera;
 Turcoa pendi da romerietara.
 Arratoiña estoniteen cen,
 Yendeac nola çaudecen,
 Fabrica moldegaitz haren bultoaren mirexten:
 Gutí edo haiñitz nombait idukiteecac tokí,
 Balemake beçala iñoiz arabera mereci.
 Baiñan, ô guçonac, dio, cer duçue
 Bada horren baiñan mirexten hoiñbertee?
 Haur-espantagaillu gorphutz larri hori?
 Eguia derradan, duçue aski guti.
 Garen ttikiee guc guhaur gutiago
 Batere ez daucagu elefanta baiño.
 Aboro ere erranen çuen;
 Baiña gathua orduantche çayolatic illki cen:
 Eta gainera yaucirie erakuxi cioen
 Arratoiña eta elefanta ez direla igualateen.

FABLE XVIII.^a(16.^o DU LIVRE V.^o)

ÇAMARIA ETA ASTOA.

Mundu huntan behar dogu elkhar bethi lagundu,
 Lehen ere hori bera nombait errau dukegu:

Baiña gauçac hiruretan erratea calte ezta.

Elkhar behar da lagundu :

Hauçoa hillcen baçaitçu

Haren carga çure duçu.

Beharri-luce bat behiñ bacioan,

Çaldi guti ikhasi baten compaiñian.

Hunec bizcarrean hasta buxa çuen ;

Asto gaiçoa aldiz haiñ cargatua cen,

Non aboro ez baitcirauken.

Compaia ohoitzten du socorri deçala :

Heldu baiño lehen non ez hec hirira,

Hill-hotça ererico cela.

Galde hunec çboca, diotça, ez çaitçake :

Cargaren erdia çue harturic ere,

Çuretçat dosteta laite.

Çaldiaç egortcen du pasaietarat

Botarie oraiño burlaz uztarco bat.

Haiñ ongui non bertan ikbusi baitçuen,

Hill-gogorra astoa ecindua erortcen.

Urriki baçuken : ecen mementean

Carga eman cioten cena bizcarrean :

Eta pisa-goiti ona,

Larru difuntu arena.



FABLE XIX.*(17.^o DU LIVRE V.^o)

ORA AHOCOA ITÇALARENTÇAT LARGATÇEN DUENA.

MUNDUAN gauça batçuen
Itçalari darraizconen,
Hain da handia nombrea,
Non gaitz baita condalcea.

Ciñbitacotan comun da gaiçokeria hori :
Uteiric funxezco gauça lotcea airecoari.
Baiña laur ateetacotan guez da estonigarri.
Bedariac hala bada Lafontenec derrana,
Haukietan ere osoki gauça ezta ecin-içana.

Ora bat, dio, çoala
Haragui zathi bat ahoan ceucala,
Ibai baten bazterrean :
Ikbusi çnen urcan
Haraguiaren itçala :
Hau ere behar çuela,
Yauzten da laster urera,
Ikhusia atcematera :
Baiña ahocoa du galcen
Urecoa aldiz ez harteen.
Betan urac handituric
Iho ordean ibilliric,

Nekhez cen heldu beguira,
 Baiñ gaiçoki hare utçira.
 Eta guelditu cen ahalkeaz gaiñdi,
 Ez çaducalarie, ez itçal, ez çathi.

Berriz ere diot, gauça çait handia,
 Orac larga deçan aboco çathia
 Harria non ez den, eta ez haraguia.

FABLE XX.*

(11.^o DU LIVRE III.^o)

ACHERIA ETA MAHAX-MULCOAC.

ACHERI bat behiñ çaharra eta fiña,
 Ecen omen cen Gascoiña,
 Batçuen nstex Normana :
 Dena dela hortaz, batetic bertcera,
 Hagnitz da yauci laburra.
 Trumpatu duela Normanae Gascoiñie,
 Edo bertçaldera Gascoiñac Normanic,
 Ezta nihoiz exempluric,
 Nie dakidala seguric.
 Acheri hau beraz goiceco frescuran
 Çagon bazteretche baten ingurnan
 Oillo cembaiten ephaigan :
 Hartu çuken oillarra ere,
 Den çaharrena halere :

Baiña deusic etcen yalgui.

Partiadan handic behatcen du goiti;

Eta ikbusten ditu treillatic daudela

Dilindaca cembait mulco musketela

Colorea haguitz eder ceucatela.

Ah! diotça, baldiñ atceman banetça,

Hoitaz eguiñ niro goiceco othuruntça!

Hartaraco eguiten ditu aleguiñac:

Baiña alfer ditu guciac.

Bah! dio azkenean, beude;

Oraiño berdesco daude:

Ez dire on bertee iñorentçat,

Baicen mutico içarrentçat:

Eta goan cen sereno haiñ

Gardiano aita bat beçaiñ.

Hobeki çukeiena eguiñ

Harç aserretcearekin?

FABLE XXI.^a

(15.^o DU LIVRE IX.^o)

SENHARRA EMAZTEA ETA OHOIÑA.

Guiçonteno bat ezcondu cen,

Nahitua aspaldi baitcen:

Laguna ecuean maithea,

Içanic ere emaztea:

Hunec aldiz maithe etquen

Senharra arauz çeren çuen.

Egundaiño ez cion eman batere seiñaleric,

Nahico çuken beçala, maithe çuelacoric;

Nihoiz solhas gocho, nihoiz hirrittoric

Nihoiz deus ezcontçan cilleguietarie.

Gaiçoac ez çuen are gueroraco,

Esperantça-kidin baicen gutiago.

Ez çuen beraz ikhusten harree bertce çorteric

Pacientcia eta barur seculacoa baicie.

Horla dagola gau batez, aihen eta plaiñutan,

Ohoiñ bat aguertcen çaiç bere guelan betbetan.

Anderea loxac yoa

Herresaca badioa,

Guiçaren besoclara

Loxan guerice-ketara.

Oy! ohoiñ guciç maithea! dio orduan senharrac;

Har çatçu, har etche huntan, nahi tutçun guciac:

Har eçaçu etchea ere.

Ecen onetçat çu-gabe,

Cen nihoiz cciñ ukhaua,

Orai dudan çoriona.

Behiñ erratea aski cen:

Ohoiñac nola çhi diren,

Yende guti delicatu, malonest eta ausartac;

Hunec gogara eituen bethe bere atçaparrac.

Hunec erakhusten digu daiteken clarkieua,

Pasione guciçtan, daiteken gogorrena,

Icipertasuna dela :
 Ikhusi dugun beçala ,
 Denaz guero hazkarrago
 Higuiñtça bera ere baiño.
 Amodioa baiño ere :
 Yakiñec hala diote.
 Eracuxten da oraino ,
 Ezcontça urus içaiteco
 Eztela aski bolxacoa ;
 Behar dela amodioa.

Eeen diru gabe ezcontça , purgatorio bada ,
 Ifernu da amodioa , han aurkhitecen ezpada.

FABLE XXII.º

(18.º DU LIVRE IV.º)

ITÇAINA BASAN GUELDTUA.

Irçaiñ bat almacenera chistuz çoala behin,
 Bezeoitceco intha urxuctan, orga bat çuhaiñekiñ :
 Bocic çoala gaiçoa,
 Ikhusen dautçu carroa.
 Colpe-colpez guelditua,
 Cilho batean sarthua.
 Baserria nola baitcen
 Laguntçac urrun çandecen.
 Ez çaiten aurkitu orduco apuroan,
 Cen tokian baiño lekhu tçarragoan.

Çorteaç nahi ičan du bai itçaiñ bat erho-araci ?
Bezcoiteeco muguetara hel-araci du bethi.

Guccerua othoitz deçagun

Idue gaitçan handie urrun.

Ematen çaitçu tristea, burho, yuramentuca,
Madaricateen tuela bihotz osoz aldizca ;

Cilho guciac lehenic,

Bere abereac ondotic,

Guero orga eciñ muguitua,

Askenic bere burua.

Çakiskien arneguac

Aspalditic yakinduac,

Eta orai eguiñ berriac

Erran ondoan guciac :

Arrapoa ahotic, besoac dilindan,

Cerurat oybuca yarteen da errabian :

O çu ! san Isidro santu celebrea

Labrarien eta itçaien habea !

Naicen apuroan urricari nauçun

Ethor bekit çure besoa arren lagun.

Handia tchit dago haren podorea,

Haiñ handia nola daucaçun ospea :

Ikhus açu nere orgaren çortea.

Hor dago lothua charma cembaitekin,

Cilhotic ilkirie eguiçu gan dadiñ.

Asco lehen ere bertee miracuillu,

Aditu dudanez, çuc eguiñ dukeçu.

Oracionea akabatua ez cen ;

Hedoipetic horra non aditcen duen,

Boz bat hunela derrona :

Entçun eçac, ô guiçona !

Isidroç bada dic nahi

Dadiñ batbedera mugui :

Lagun çac heure burua ,

Lagun dakiken cerua.

Ikhus-ac nondicacoa ,

Den hire traba oraicoa.

Hox! khiñ çotec arruderi

Mortero diabruzco hori :

Bustiñ-basa ondicozcoa ,

Çoiñac bai dauca carroa ,

Hacheraiño cikindua

Eta cilhoan lothua.

Hox! hire ond-aitçurra barçac ,

Harri hori porrosca eçac ;

Nibel çac panttupa hori ,

Cillhasca hau bethe bedi :

Eguiñ duc? — bai: bada oraintche noakie laguntcera,

Dio boçac : har eçac hic akilloa escutara.

Hartu dut : cer da hau ? orga badoakit gogara.

Biba san Isidro! bedi laudatua.

Eta erremesiatua.

Hemen boçac derro : ikhusten duc horla ,

Hire abreac hortie aise irten dircla.

Lagun çac heure burua ,

Lagun dakiken cerua.

FABLE XXIII.:

(20.^e DU LIVRE I.^{er})

OILLARRA ETA PERLA.

OILLAR bat cabazea behiñ hari cela,
 Perla eder bat çuen athera arguitara :
 Harripreciatu marchant baten gana
 Badoa lasterrez, derrolarie, Yauna,
 Uste dut perla hau dela harri fiñ bat;
 Baiña diduritçait laitela neretçat
 Haguitz habeago bihi cheheren bat.
 Iñorant bat behiñ liburu-gai haten,
 Ondocotasunez primu causitu cen :
 Imprintariari baderamakio;
 Ona dela haguitz uste dut, diotço :
 Baiña peceta bat baicie ez bada ere,
 Nere oldez neretçat nahiago nuke.

Biee nola biee, arraçoïña çuten :
 Bere aorkintcetarie, cer çuketen ecen
 Athera berentçat, bertee probetçhurie,
 Oillarrae perlatic, guiçac liburutie,
 Bacotçbac çuhurki, çuena eguiñ baicie ?
 Haiñ da eguija beraz, usna eta centçua
 Direla haiñ dohaiñ onac
 Eta guidari segurac,
 Nola yakitatez garnitu burua.

FABLE XXIV.*

(16.* DU LIVRE V.*)

SUGUEA ETA LIMA.

ERRANA da sugue batez (berme ez naiz hala dela),
 Lehenago harotch baten hauçoañ bici cela.

(Segur harotchac hauçoa
 Ez çuen hambatecoa.)

Sarthu cela beraz haren suteguian,
 Aurkitu çukeien yateko çerbait han:
 Eta ez edirenec han bertce fricoric,

Lima altceiruzco bat baicic :

Huni citçaiola lothu carra-carra ausikica :

Limaç ciola aldiz hula trankill eguiñ musica :

Cer iduriteen çaic iñorant simplea ?

Cer eguiñ gogo due cocheo fuiñ gabea ?

Hitaz gogorrangoari ,

Hatçaiñ enferrateen eiki !

Hire hortçac oro lehen tue hauxico ,

Ecenez baidautac hie niri khenduco

Corrado baten laurdena :

Erguela utçac hasi lana.

Ez diat beldurteen hortcic ,

Demboraren hortçac baicic.

Hau çuer doakiçue, caratera bachoac ,

Gorderic ausikilari, mihi ondicozcoac :

Yende on eta berthntoser , yaçarteen dioque,
 Eguiaz edo gueçurraz , berdiñ daducaque :
 Çuen poçoña nolazpait , isur badukeque.
 Çuen chedea bargatic , eztuque ardiexten,
 Çuen fletcha samiñenac , alfer baitire erorteen:
 Eta cembat ere çuec , heiki yaçarriago ,
 Hambatez heien ospeac , du distiatcenago
 Eta ez dioque , khentcen guehiago
 Limari biperac , eguiñ cion baino.
 Çuec idurien , yaçarmenac ceren
 Denac landorio , baitire bihurtcen.
 Haiña da ecen bethi , mihiz ausartena,
 Çoiñac baitu bere , linya cikiñena.

FABLE XXV.^a

(15.^e DU LIVRE II.^e)

OILLARBA ETA ACHERIA.

OILLAR çahar bat luçaro sama handico içana,
 Basacurtecø cargua uteia ya çuena :
 Haritz adarrean çagon sentiñel paratua,
 Hori da heien artean çaharren emplegua.
 Esperientcia handicoa baitcen,
 Oillar hau siña eta den maltçurrena cen.
 Acheri bat bada hurbill badathopeo
 Eta eztituz boça kula çαιο minteo :

Agar, anai, bakho dugu,

Guerlac acabo ditugu :

Baiña bakhe yenerala

Bethi balirau ochala !

Berri hori çuri nathor emaitera

Yaux çaiten arren, çatho ni besarcateera,

Bakhearen fineateera.

Hemendie aiteciñat asalduric gabe

Çuen aferer hox demoquekete;

Guhaur ere çuen lagun bagathorzke.

Çatho, çatho deusez ez ukhan anxia,

Hitearen esclabo bethi da acheria.

Ez naçaçun idue hemen guehiago;

Hogoi-ta bortz leçua baitut eguiteco;

Eta asco bertce eguiteco :

Çorion horrentçat eguitçue bestac.

Baiña bitartean, baterarie hiac,

Nahi nuke ukhan hartua

Çure bakhezco musua.

Kide, derro oillarrac, ez çaiten deusic

Placer guehiago cemakidakenic

Berri handi hori baiño.

Baderraket ere oraiño,

Axeguiña dela neretçat doblea,

Çure ahotic aditcea.

Baiña haraco-han badathorz ora bi

Berri berarekin hec dathorzke naski;

Uchaxa hatte dakharte,

Mementean hemen dire.

Yauxten naiz : eta oroc birlduac orduan,
 Besarcatuco ahal elkhar dudu betan.
 Acheriac aldiz banoa, diotço,
 Bide lucea ecen danecat eguiteco :
 Placer eta bestac bertee aldi bateco.
 Galaia laurenca badioa itçuri,
 Chara, mendichketan gaiñdi ;
 Gauçaren segnidaz content baguitz guti.
 Eta oillarra baren loxaz burlatu cen,
 Bere baithan asco birri eguiñ çuen :
 Arraçoin baçuen, ecen :

Axeguiña da doblea,
 Trumparia trumpatzea

LIBURU HIRURGARRENAREN ACABANTÇA



LIBURU LAURGARRENA.

FABLE I.^a

(7.^e DU LIVRE VI.^e)

MANDOA BERE ETHORKIAZ HARTUA.

ABADE baten mandoa
 Bere hidalguiaz hacia cascoa
 Bere ama behorraz baicen etcen minteo
 Condatcen cituen haren eguiñtça asco :
 Harc hau eguiñ, içatu han
 Semeac segura ceucan
 Cela emana içanen istorioetan.
 Ciduritçon aphalteca.
 Medicu bat ere soiñera harteca.
 Baiña cenean çahartu,
 Eyharaco çuten saldu.
 Orduan cen choilki bere attaz orhoitu.

Malura ez balitz on, deus bertectaraco
 Baicen gaiço baten, escolatceraco;
 Hortaz beraz leguez, erran ahal laite,
 Çerbaitetaraco, on dela balere.

FABLE II.²(15.^e DU LIVRE IX.^e)

YUPITER ETA BORDARIA.

YUPITERREC (*) lehen borda bat baçuen,
 Errentan çoiña eman nahi baitçukeien.
 Publicatu çuen haren etcheguiçac :
 Bordaria ordutic falta ez çuken bordac.
 Bada aguertu çiren baten plaçan bia :
 Laburra ez çaiteken heien erasia.
 Borda itçuli çuten alde orotaric.
 Hunec cerran, yauna, claro ikhusten dut nie,
 Alhor hori dela nekhe handicoa
 Horco labrantça ere gastu bicicoa.
 Harrec cion, lurrac haguitz patar daude,
 Hortic egarriac maiz pena detçake ;
 Sustraiaç bertçalde hurbill sopra eztire
 Horla bieç hambat baiña dute eçarri
 Densic eguiñ gabe non ya baidoaci.
 Batec, nola hura eçu bertcea baiño,
 Çuhurrago ez segur, baiña animosago,
 Azken hitçareniçat Yupiñi baderro :
 Çure borda harteen dantçut :
 Baiña abantaill bat behar dot.

(*) Ikhus, Jupiter eta Yupiñen gaithean, hiru bo-
 goigarren flableari iratchiki notac.

Erran suma ukhanen duçu ,

Baiña aldiz çue emadaçu

Aireari manateca,

Nere gogara eguitea ,

Edo haice, edo uria,

Goibela edo iguzkia.

Tuzkedañ arras aroac

Bethi nahicarazcoac.

Bademo Yupiñec escatu duena.

Horra beraz nere laborari yauna ,

Sasoiñen erregue; dakharla gogara

Ona edo tçarra dembora.

Aldizca haice, edo uri,

Orai goibel, sarri iguzki.

Idor orai, hece sarri.

Eta oro bere içarirat;

Baiña bakharric beretçat.

Horiec guciataric

Hauçoec ez dute deusic

Probetchuric guehiago

Ameriça-ñoec baiño.

Hauientçat hobe içatu cen ,

Uzta ederra eguiñ baitçuten:

Bibiz bethe soillaruac,

Ardoz ere bai guphelac

Pribiliatnuc aldiz

Billdu çuen ere haiñitz,

Osto, lasto, corbotch ere:

Bihiric casic batere.

Hurren urtheraco plama itçuli çuen,

Contrara sasoinac, biratu cituen.

Baiñ içatu cen fruituez,

Hauçoec bai, hanc berac ez.

Ordutic cer eguiñ? desesperatua,

Yupiñi doako humiliatua.

Eta cofesatuz bere imprudenteia,

Othoitzten du barkha deçacon gaitzkia.

Yupiterrec yabe ou guisa,

Barkhatu cion ofenxa.

Erragun beraz ausarki

Probidentciac segurki,

Guerorrec haiño hobeki

Duela ikhusten çuhurki-

Comeni cer çaicun guri.

FABLE III.^a

(9.^o DU LIVRE X.^o)

ORA BEHARRIEZ GABETUA.

ORA bati beharriac ebaki ciotçaten,

Nahiz berari trabaric eguiten ez cioten.

Yabeac ber-berac ciotçan picatu.

Cer guisa ederrean nauten ni paratu!

Lagunen artean aguertcera oraintche

Nondic atrebi naiteke?

Oy! animaleen erregue ürguillusac,

Hobeki derradan, tyrano cruelac!

Ezta bada iñanen nor edo nor behiñ,
 Çaituztena uteico murriztuac berdiñ!

Ordea hunen sanguez,

Eta marrasca miñez,

Çauden guti beratuac

Motztaille costumatuac

Açorri baciduritçon asco çuela galdu.

Baiña guero cen ohartu.

Haiñitz ceta probetchatu.

Eeen nola çuen sortcez ardura bihurria,

Bere kider ceucaten a khentcera net pendia;

Haiñitz ocasionetan

Etchera çerçaman

Membro erregretatua,

Dilindan sacaillatua.

Ora liscarxuac bethi

Beharria darama eri.

Gauça da den boberena

Ahal beçaiñ gutiena.

Bertcer lot-bide emaita

Hartcen da atencionea,

Toki bat ðenean choilki goardatecco,

Ilura ongui defendatecco.

Lekhuc da açor maistroa.

Eta haren itce-puntez garnitu lepocoa.

Gaiñera, nola buruan, escu-gaiñean baiño

Ez baitçakarren prudenki, beharri guehiago,

Oxoac berac ez çuken, hau bideric lotceco.

FABLE IV.²(13.^e DU LIVRE IV.^e)

2 CALDIA ETA ORKATÇA.

MENDE çaharretan ez ciren çaldiaç
 Sorteez mundurateen guiçonen sehiac.
 Guiça-casta ezcurrez cecean neurriteen,
 Mula, asto, çaldiaç oyhanetan çauden :
 Ez çakiten ere caprestua cer cen.

Ez cen ikhusten orduan mençan beçala.

Haiñbertee basta eta cela :
 Hambat guerlaco barnacha,
 Haiñbertee carro ez carrosa.
 Ez cen ikhusten oraiño
 Haiñbertee eztai eta frico.

Bada mende hetan çaldi batec behiñ,
 Liscar ukhan çuen orkatça batekin.
 Eta nola baitcen hau oiñcari ona
 Eta çamariae eciñ atcemana ;
 Hau çaiço adreçateen guiçon artechari ;
 Garxuki othoitzten du demon socorri.
 Guiçonac brida bat laster dio eçarteen.
 Eta bizcarrean yauciz çaiço yarteen.
 Ordutic ez demo pausurie batere

Non ezten orkatça
 Ahituric haya
 Guelditu bicirie gabe.

Nan eguiñ eta, caldiac esker bihurtzen dio
 Guixa ongui-eguilleari : guero hunela derro :

Adio : çure cerbitçari :

Orai nahi naiz itçuli

Lehenço oyhanetara ni.

Guixonac dio : ez horiche ;

Sobera presatcen çare.

Egonen çare gurekiñ :

Ecen nic sopra dut yakiñ ,

Cer probetchu çure-ganic dudan athera-kidiñ.

Çaude beraz, arren, çaude ;

Tratatua hemen onxa içanen çare

Arrastela bethi berdez fornitua ,

Eta triparaiño nasai ihautua.

Ah ! mantenu onac cer goço demake

Bada, libertate gabe !

Gaiço içan ceta caldia obartu cen ,

Baiñan ez herantche baicen.

Eguiña çagoen ya prest eçarria ,

Bici-lekhutçat harc behar establia.

Bethi egoitea estecan ,

Cen haren çortea içan.

Çuhurrago haguitz çaiteken aguertu ,

Hux ariñ bat lehen harc balu barkhatu.

Nahi beçaiñ handia den, bengantçaren placerá,

Carioegui çait niri, halere erosten dela ;

Harentçat emaiten bada, on preciatu hura

Coiña gabe berteeac deus, segur oro ezpaitira.

FABLE V.*

(14.* DU LIVRE IX.*)

GATHUA ETA ACHERIA.

GATHU bat eta acheri bat aleguia bi saindu,
Behin debotki pelegrin biac ciren partitu.

Ay! cer hypocrit pareia!

Cer filur-maistro eublea!

Bere colpea eguiteco denean loth-bidea.

Halaber hec iragaiten ciren inguruetan.

Oillo eta gasna ascoc çuten escas eguiñ etchetan:

Çoin guehiagoca hec hola cituzten,

Bere bidaiaco gastuac ariñtzen.

Bidea nola cen luce, horlatan unhagarri;

Unhadura ebitatecoo disputan ciren hasi:

Disputac badakhar hortaco socorri:

Hau gabe ecen loa balathorke bethi.

Gure bi debotec çuten gora-gora,

Larrutu bere cintçurra.

Çutenean bieç asco argudiatu;

Nahi içan citçaizeon lagunari lothu.

Acheriac bada derro gathuari:

Net haicela abilla diduritçaie hiri:

Badakiea nie beçambat?

Asmu badiat çacu bat.

Bertceac derra , ez segurki ;
Nie bakhar bat diat choilki :
Baiña ausarki derradana ,
Milla balio tuena.

Hortan berri-berritan hor dute disputa altxateen ;
Baletzea , ezetzea hec horla cirelarie beroteen ,
Ora multço batec builla siñaraci ceraien.

Gathuac acheriari :
Hox , mira çac çacu hori .
Hire casco madre hortan
Billha çac hox ! ordu huntan
Inguiñu cembait segursco ,
Lanyeretic itçartceco.
Huna nere bakhar hura :
Ikhus-ac çoiñ den segura.

Hau erran eta cokiña badoa herresaca ,
Han çen baitz batean gora laur atcez çarrapoca .
Bertceac , eguiñie asco itçuli alferretan ,
Yo cilbo bat , yo berteo bat , ibilli çen hersturan ;
Ascotan ere çakurraç cituen enganatu :
Baiña asmuac oro deus ez citçaizcon haliatu.

Lurpe batetarie illkitcen celarie ,
Çacur oiñcari bi gaiñera yaucirie ;
Eciñ eguiñ gogor , eciñ itçuri gan :
Itho çuten han berean.

Certaco asmu haiñitz , eguitecoetan ?
Edo haiñitz chede , helantça gaitcetan ?
Eciñ decidatuz , dembora da galteen ;
Maiz onena utciric , tçarrena ere hartcen.

Bakhar bat haguitzez, hobe baicen ezta,
Hura baldiñ ona bada.

FABLE VI.^a

(6.^o DU LIVRE VIII.^o)

EMAZTEKIAK ETA SECRETUA.

DEUSIC haiñ pisuric nola secretu bat :
Garraiatcea urrun da gaitz andreentzat.
Baiña lan bereco badakitzat ere
Biçardun ez guti direnac emazte.

Bere andrea frogatecco senhar bat gau batean,
Plaño, deiadarca hasi citçaion sahexean.

Ay! ay! ay! cer dut nie-erdiratcen naute :
Ez dirauket hula leher eguiñ gabe.
Ha! . . . siñean bada, soleatu naiz ni :
Arroltce eder batez oraintche naiz erdi.

Arroltee bat! derra andreac:

Bai, horra non duçun frogateen du berac.

Horra, ikhus açu çoiñ larri,

Bero-beroa, erron berri.

Behautçu, othoi, hargatic,

Gauça huntaz mintçatcetie;

Oillo deitha mintçakete:

Arren beraz ieñil çaude.

Nola andrea berri baitcen casu hontan,
Baita bertee asco aferetan;
Sinhexi çuen gauça, eta ciñekiñ promes eman
Ez çuela deusic erranen secular.
Baiña ez çuen ciñac iraun guehiago
Gauaren itçalec baiño.
Aguertu deneco albaren arguia,
Ema simple, hitzuntcia,
Yauciric ohetic erdi billhucia;
Badoa fite hauçorat
Bere comaia baitharat,
Berriaz erdi nabia.
Adi-çan, no, bahakbarnat
Hementche berri handi bat.
Baiña ez tinat nahi erran
Baitcen nehorì hic ez erratecotan.
Ecen bahu publicatcen,
Senharrac çampa nintçaken.
Nere guiçae erron çautan arroltee bat,
Arroltee bat handi bertee laur beçambat.
Baiña misterio hori
Hire eta ene artean egon bedi hethi.
Nola! hic hoiñbertee, berteeac baderro;
Eguñ nire gomendio!
Segurki batçait trufatcen,
Edo ez naun eçagutcen:
Hoa, traukil bahagoke,
Beldurtu gabe deusere.
Erruillearen andrea hortan etchera goau cen:
Bertee aldiz erran nabiz ya hari cen erretcen.

Badoa sei lekbutara

Gauçaren barraitcera.

Arroltee batentçat hirur badiotça,

Baiñan acabateen hortan ezta gauça

Ecen bertce ema bat doa lauretara;

Eta condaceen du beharri chilora.

Precauçione hau alfer een segurki,

Secretua campo ya baitcen aspaldi.

Ahotic ahora nola currituz yend-artean,

Arrolteen nombrea bethi berretuaz baitçoan

Arraxa ethorri ceneco,

Bacen ehunez gorago.

FABLE VII.^a

(8.^o DU LIVRE XI.^o)

AGUDEA ETA HIRUR YAUNTTÖAC.

GUIÇON çahar bat hari cen,

Bebiñ arbola landateen :

Laur hogoi urthe cituen.

Etche eguiten paso oraindic :

Cerraten estonituric,

Yauntto hirur hauçeoec beira çagozeolaric.

Baiñan adiñ hortan landa!

Segur erhokeria da.

Ecen çuc çuhaitz hoitaric

Cer goço, othoi, bada deçaçuke iguric?

Mathusalen beçaiñ luce bici behar cintezke

Certan griña borrenbertce

Guero batez, çoiña ezbaita çureçat aguertuco ?

Ocupa ez çaitela aboro,

Baicen çure iragan huxez :

Esperantça luce eta obra handiez,

Ocupatcea ya ez çaitçu comeni :

Horiec hobeki doazkigu guri.

Ez hambatic cener ere,

Çaharrac aldiz derraie.

Establimendu çoin nahi

Bethi dathor berant eta dirau guti.

Herio latçaren sega

Çuen eta nere egunex orobat yocatcen da.

Gutaric çoiñ daite segur ikhusiren duela

Falta gabe biharamun goiecco argui çabala ?

Baduçnia çure bician orduric

Ondoco mementaz beraz segurtha çaitçakenic ?

Nere illobasoac noizpait itçal huntaz

Içan dakizkiket niri çordun beraz.

Cer ! eztnçu nahi bada

Çuhurrac dukeien artha

Berteen placera eguiteco ?

Hau bera da neretaco

Placer bat egundic nic harteen dudana,

Eta bihar ere har deçakedana;

Baita bertce cembait egunex oraiño;

Ezta ecen seguratceco,

Çuen tomba gaiñetarie,

Ez ditudala tristeric,

Oraiño asco alba fresco condatuco.
 Çaharrae arraçoiñ osoa ukhan çuen.
 Hirur gazteterie eenen bat ilho een,
 Celarie ilkitteen apenaz portutic
 Ameriketara partiteen celarie.
 Bertcea igan nahiz gradu goretara,
 Guerlaco emplegutau cerbitçatcen cela,
 Colpe ustecabeco batec atceemana,
 Han çuen causitu bere egunen siña.
 Hirur garrena erori cen
 Bere escuz chertatu nahi ukhan çuen
 Arbola baten gainetic;
 Eta gnebiago ez cen alchatu handic.
 Eta guicæe nigarretan,
 Heien tomba harrietan
 Cicelatua gothorki.
 Condaira han çuen utci.

FABLE VIII.*

(22.^e DU LIVRE XII.^e)

ERHO BAT ETA ÇUNJR BAT.

Eano bat çarraion behiñ harrica çubur bati;
 Itçulteen çαιο çuburra, derrola : compai, thori;
 Ongui due eguina
 Dic eguiñ dukana;

Har-çac lais hori,
 Nekhatuz guero hoiñbertee,
 Aboro ere behar buke;
 Eeen errana due travailluac bethi,
 Yustu den pagoa duela mereci.
 Baiña horracó-hor dathorren guìçona
 Due sakelan diru asco baduena:
 Baieta pagatçaille ona.
 Egorzkioc horri hire present berac,
 Falta eguiñen ez dauc segur sari onac.
 Irabaci nahiz gure erhoac hemen,
 Laido bera buryes hari dio eguiten.
 Baiña etçuten diruz orduan pagatu:
 Matill on multçobat baitcen hara bilidu;
 Oroç harturic artean,
 Çampatuz tirria onean,
 Eho çuten han berean.

FABLE IX.^a(19.^a DU LIVRE V.^o)

LEHOINA GUERLARA GOAKI.

LENOIN erreguec çabillean
 Chede handi bat cascoan.
 Iduki çuen hortaco guerlaco conçeillua:
 Eta guerla içan cenean hartan decidatua,
 Carrierez heldu çuen orotara meçua

Azpicoac oro ciren sarthu haren chedean,
 Bilidu ere eguiteraco guerla, haren menean :
 Bacotchac bere moldean.

Elefantac behar çuen bizcar çabalarekin,
 Guduraco behar diren tresnen garraioa eguiñ :
 Cela bera guducateen ohi beçala berdiñ.
 Hartça asautetaraco cen printceac hautatua ;
 Acheria yoco gordez içan cen cargatua.
 Chiminoac exaia aldiz behar çuen dostatu,
 Bere yusta eta grimasez gadutic harraiatu.

Baiña batec derro yeneral yaunari :
 Asto hau cértaco baiñ tonto eta nagui ?
 Eta herbi iciper, buru choro hori ?
 Igorzkitçu, yauna, beren etchetara
 Ez, ez, dio erreguce, ez nago hortara :
 Nola astoac duen baiñ larria orhoa,
 Yende espantateeco nahicarazcoa ;
 Içanen da trumpetari.
 Aldiz herbi simple hori,
 Cochcoa içan arren oiñac beçain ariñ,
 Currier uet onxa da cerbitçakidiñ.

Horla printce çuhur batec, erresuman badaki,
 Emaiten doakioken, eargua bacotchari.
 Baldiñ handitaric baiñitiz, ignrikiteen badu,
 Ttipienac horren gatic, arbuiatcen ez ditu.
 Baditu ere hare, handiac guicentcen,
 Hortaraco ez ditu, chumeac larrutcen.

Baidaki horla eguiñ, duketen guetiaç,

Içatu direla, yendez gaitcexiaç :

Ordutic direla, segur desmasiaç,

Eta khoroa ebaxiaç,

Baita buru ebakiaç.

FABLE X.^a

(8.^a DU LIVRE VIII.^a)

BUFUNA ETA ARRAIÑAC.

Asco badabilltça bufunen ondotic,

Aldiz nie ihes dut eguiten hetarie.

Gaiçontçat een dituzke Yaincoac

Creatu choilki bufunac.

Behar bada fable huntan

Noa halaco bat eçartecera bistan.

Behar bada ere norbaiti

Badiduritçoke dudala eguiñ ongui.

Farra-eraguille bat cen behiñ-batean.

Bankero diruxu baten mahaiñean.

Etçuen hare bere aldean

Arraiñ ñimiñoric baicen :

Larriac urrun çaudeen.

Chikittoac hartcen ditu bana-bertee,

Eta beharrira mintçatcen çaiote.

Aleguia guero hare igurikitcen

Heien errepusta, baçagon entçuten.

Billeuia gucia çagon barritua,

Eciñ sumatuz asmua.

Orduan bufunac, serios yarría,

Derroie : beldurra çaucala handia,

Bere adiskide bat, çuela ya urthe bat,

Fortuna eguiñ nahiz gana indietarat,

Galdua içan behar eela

Untcia ganic costara.

Hortaz çaiela miñteatu arraiñ gazteño heiki ;

Yakiñ nahiz cerbait berri :

Baiña hec gucien errepusta eela,

Gauça yakiteco gaztegui eirela :

Larriec hobeki baçakiketela.

Nahi nioke orai yaunac, larri bati,

Galde bera eguiñ, ez baçaitçue gaitci.

Billeuia gustatu tretuaz othe cen,

Nic ezlut seguraturen.

Hargatic gure bufuna haiñ ongui cen yocatu,

Non arraiñie gordoena baitçuen escuzatu ;

Çoiñac baitçukeien adiñiçan aski,

Ehun urthe hetan,

Munda berri-ketan,

Ibilli içan eiren,

Eta marraçoen

Triparatu eien,

Gucien çorte eta icenac, yakiteco segurki.

Noiz ere bafun hare, hau eguiñ baitçuen,

Astoec ere ya, hitça baçuketan.

Orai tretu horlacoa,
Chistuz laite yocatua.

FABLE XI.^a

(1.^{re} DU LIVRE VII.^e)

ANIMALIAC ICURRITEAZ ERINBAC.

Gaitz bat orotarie icigarriena,

Aide gucietan ikhara demana:

Ceruac bere coleran,

Gure obenen castigutan,

Naski creatu çuena:

Içurria bada, duen bere icena:

Erresuma illhuna, egun bakhar batez,

Pobla deçakena, nasai abitantez.

Gaitz hare abrer guerla çaren eguiten;

Oro ez ciren hillteen, baiñan eri ciren.

Eteen ikhusten aboro

Biciaren luçatceco

Moyen-keta çabillanie.

Eteen nibon yanaririe

Her gura cemoketenie.

Acheriac eta oxoac ya etciren ocupateen

Oillo eta arcumeac nondie arrapa cetçaketen.

Ihesca tortoila eztiac elkhar ganie çabilltean;

Eteen aboro canturie ez placerie horlatan

Oyhanetaco ostroieletan

Astoaac etcion casuric eguiten ,
 Astacarloari net çale cen arron.
 Lehoi yaunac beraz biltçarra du deiteen
 Eta anaier hula çaiote mintçatcen :

Este dut ceru çucenac ,
 Ikhusiric gure obenac ,
 Cigorrada hau duela
 Eraunxi gure gainera.

Ara bada , gure artean obendunena dena
 Bekio ofrei ceruaren colerari bictima :
 Ardiex othe deçaken ororen osasuna.

Istoriac ecen badakhar hortaco ,
 Horlaco casutan , exemplu horlaco :
 Menayatu gabe , hox , gneure buruac ,
 Detçagun çorrotzki mira gure contciencieiac.

Nitaz kestione , eguia bada ere ,

Cikiro bat edo bertee ,

Guerthatu dakiket iñoiz irextea ;

Baita noiz edo noiz , hekien yabea :

Nuharroinsco baitut maiz apetitoa ,

Eta yan-chaharra modu gabecoa.

Içanen naiz beraz , ez naiteke duda ,

Bictima escañña , hala behar bada.

Baiña diduritçait net tomeni dela ,

Eguin deçan nie beçala

Norc bere cofesioa ,

Daiteken beçain laiñoa.

Ecen da desiratceco

Yusticia complitceco.

Obendunen daitekena,

Dadiñ eaztigu dukena.

Acheriac derra, yauna.

Sobera çare erregue ona;

Çure esculpuletarie clarki dugu ikhusten,

Çure contienteia çoiñ delicatua den.

Cer! yatea cikiroki,

Mota gaiço, triste hori,

Nondic daiteke hux handi *

Ez, ez, irextarekiñ her çuc haiñitz halere,

Eguiñ dacoçute obore.

Eta artçainaz mintçatceco,

Edoceiñec erran diro,

Eztela gaitz suerteric

Hare mercci ez çuenic;

Celacotz yende hetarie

Çoinac, bestien gaiñean nausitasun baño bat,

Baitire bere baitharic ausartatcen hartceerat.

Fiñatu maltçurrac çueneco arenga,

Lausengari meta hasi cen bibaca.

Eteiren içatu sopra barna examinatuac,

Tigre, hartz, oxo eta berice puchanteen eguinduras:

Ciren arren gutienic barkhakiçun segurki,

Aboac baitciotçaten loxac orori hexi.

Gaiñeraeo oste liscarxu, çbacur simpleac berac,

Hambat saiñduñotçat ciren içatu pasatuac.

Astoa orduan yin een,

Hunela ceta mintçateen:

Oraiñtche çait gogoratcen,

Behiñ batez niñdoala
 Phentce bat hera beçala;
 Goseac kilicaturic,
 Paradae tirriaturic,
 Belhar onac tentaturic,
 Eta behar bada oraiñdie
 Diabruac escu harturic;
 Phentcetie hartu nuela
 Enpasantean beçala
 Mihiz troçatu abala:
 Hori neretaco derradan eguia,
 Eteen gauça cilleguia.
 Hitz hauietara, oro hasi ciren oyhuz:
 Bedi marca beharri-luz.
 Abocat aire bat çuen
 Oxo bat han guerthatcen cen.
 Honec aise çuen orduan frogatu,
 Abre pelatu, çacarxu
 Eta gaitzki yayo hura,
 Heier ethorri gaitçaren cela causa baxharra.
 Berteen belharra yatea,
 Cer oben berdiñ gabea!
 Horlaco crima bati çor çαιο heriotcea:
 Hala ukhan çuen çortea.
 Çarenaren arabera, aberax edo pobre,
 Gortie eta tribunaletan, hala eguiñen çaituzte:
 Osoki beltz edo, çuri bethi ere.

Orobat da ikhusten, gaitztaguiñ handia,
 Carrosan ibiltcen, ohorez gaindia:
 Urkhatcen aldiz tipia.

FABLE XII.

(15.^e DU LIVRE VI.^e)

PEISANTA ETA SUGUEA.

BASERRITAR batez Esópec derraicn,
 Negueo egun batez baitcen atheratu

Etebeco ingurutara

Itçuli bat eguitera;

Betan ikhusi çuela

Elhur gaincan çatçala

Sugue bat hilla beçala:

Hotçac arras pasatua,

Yelatua, gogortua,

Sentimenduz gabetua,

Hillteco meneratua.

Peisantac harteen du badarama etchera,

Su ondoan hedateera;

Ekharri gabe gogora

Berari labore horren

Cer pagu cãthorkioken.

Berotcen du contuz eta phitz-arazten.

Ezto haiñ laster bestiae senti berotasuna ,
Non baidathorco guibelat arima çoacona :

Harekin colera miña.

Eçarian hor du altchatcen burua ;

Eguiten betbetan ohitu chistua.

Ondoan gorputça pleguca billduric ,

Abiaduran yarriric ;

Yauci nahi çajo on-eguilleari ;

Salbatu duen aitari

Ay! haicen eskergabea ,

Hill behar haiz, infamea !

Peisantaç diotço furian sarthua.

Pagu hau neretçat haucan gardatua?

Eta harturic haiotça ,

Trencatcen dio gorputça.

Eta haiotz-colpe bertce bat emanic ,

Hirur eguiten tu sugue batetarie ;

Separaturic troncoa buru-buztanetarie.

Yaucica hari da hirur çathietan ,

Nahiz hauc elkharri , yuntatu berritan :

Baiña sinatcen da , eforta alferretan.

Eder da içaitea caritate eguille ;

Baderraicu christoc ere :

Içaitea dela hobe

Hartçaille baiñon emaille.

Baiña , noiz , nola eta nori ?

Pontu gaitcena da hori.

LIBURU IV.^a

Ecen laur alferrer, eguiñ dena baiño
Pobre on bati eguiñ dena, haguitz da hobeago
Hemengo eta ceruraco.
Eskergabeari aldiz, hare mereci çortea,
Falta ez dakioke nihoiz, fiñ gaitzto eguitea.

FABLE XIII.^a

(7.^e DU LIVRE 8.^e)

ORA BERE NAUSAREN BAZCARIA DARAMANA.

GUIÇONA maiz galtcen da, bere beguietarie :
Haiñ maiz edo maiçago, bere atçaparretarie.
Gutic hala tresor bat, ohi dute goardatcen,
Non ez çaien nolazpait, cerbait bartarie lotcen.

Çacur bat baçoan caricatic behiñ,

Bere nausiaren bazcariarekin.

Colier beçala çaramala çoan

Dilindan lepotic otharre batean

Sobre cen : sobreago ere nahi çukien baiño,

Bereçiki çuenean menean cembait frico :

Baiña fuñvean hala cen-

Aldiz gu bagare aarkitcen,

Gauça onen aldamenean,

Hirrixa dugu barnean :

Çoiñ gauça estranioa den !

Ora da moldatcen içatera sobre ;

Gauça bera guiçac ikhas ez deçake !

Ora hare çuela beraz holacoa ,

Caratera sorteezcoa :

Çacur gothorsco bat atheratcen çaiò ,

Eta otharrecoa khendu nahi dio.

Baiña aurkitu çuen hare eguitecoa ,

Uste baiño gaitçagoa.

Bertceac ecen çarea goardatceco hobeki ,

Laster lepotie khenduric aldean çuen utci ;

Traba eta cargatic libre gudu bacemon tinki.

Baiña orduan yinie hara ,

Bethi obi den beçala ,

Comunetic bici diren ,

Colpeen beldur eztiren ,

Çacurrezco tropela bat ,

Disposatuac yaterat :

Eta ikhsiric ordutic

Ez ceçakela bakharrie ,

Ororen contra hariric ,

Salba bere haragua ;

Erraten diote : Yaunac, dudan nere portcia ;

Guero bedi çuendaco gaiñeraco gucia :

Ez gaitela samur : nie dut aski nere çathia ,

Erran eta : herresaca beretcen du pusca bat :

Oroc çoiñ guehiagoca dute eguiten orobat.

Buryesaren bazcaria cuchia sunxitu cen ,

Aboro ere içan balitz aise irexi çuketen.

Bada orai çoinec condena

Ora hare eguiñ çuena ?

Badeia nihon dotoric
 Hala eguiñ ez çukeienic ?
 Ez diduria oraiño
 Çacur harrec ordu hartan
 Baçakharrela cascoan
 Centçu guehiago jabe Yaunac baiño ?

FABLE XIV.^a

(20.^a DU LIVRE V.^e)

HARTÇA ETA BI COMPANEROAC.

Bi compañero bolxa-ariñ
 Yarri ciren elkharrekiñ,
 Ukhaiteco diru nahiz eerbait eguiñ.
 Larru-negociant bati saldu cioten bertan
 Hartz eder baten larrua, çoiña hunec soiñean
 Oraiño baitçarabillean.
 Hartcen printcea cen : heien arabera,
 Martehanta cioan fortuna egaitera,
 Larrua herritz saltcera.
 Hotcie handienez burla eguiten çuen ;
 Aise espos soiñ bi orra ere eetçaken.
 Pacoc ez çaduzcan bere cikiroac,
 Precio haiñ handicoac,
 Nola hec beren larrua
 Abo bethcka ospatua.

Berea bai, beren ustez ,
Baiña ez bestiaren oldez.

Bi egun hetan lucenaz engaiatzen cirela,
Marchandiça eroslearen escuetaratcera.

Acordaturic sariaz ,
Hartçaren billha badoaz ;
Hau laster aguertcen çaiç :
Trostean dathorkiote.

Baiña bi banditac haiñ loxatzen dire,
Nola ozpiñaz yoac içatu balire.
Acabo tratua, ordutic hauxi cen,
Heç eman erhesac aiphatu ez ciren.

Bi mutilletarie bata
Haitz batera herresaka
Içatu cen çarrapoca :
Bertceç aldiz haiñ botz nola
Içaiten baita marbola :
Auspez hetbetan yarteen da,
Lurraren contra copeta ;
Badago hilla beçala ,
Haxa tiñki daduçala.
Aditua baitçaducan
Hartza ez çaiola seculan ,
Asperten gorphutz hillari ,

Ez mobimendu, ez hax ez duenari.
Içatu cen hartz maistroa
Astoa beçaiñ gaiçoa ,
Sinhexteco hori hola :

Ikhusiric gueldi gorphutça çatçala ,
Penxatcen du arras bici gabe dela.

Hargatic beldurrez baden trumperia,
Birateen du pataz gorphutz eroria :

Hara-huna badabillea

Bere bi patez aldizca.

Eta hurbillduz musua,

Badauca celatatua

Haxaren yalgui lekhua.

Baiña hau hilla da, azkenean dio :

Goacen hemendican, usaiña dario.

Eta goibeltcen da hauçoco oyhanean.

Arbola gaiñeco tratantea orduan,

Yauxiric, doaco lagun gaiçoari,

Eta derro : ongui dela mirexgarri

Kito baita hura loxarekin choilki.

Eta, anai, gure larrua

Oiebtin haiñ onxa saldua?

Baiña cer erran dauc beharri chilora?

Hurbillsco cabillken hare ecen sudurra ;

Ilire soiñ-gaiñean çaucala atçaparra.

— Erran çautac iñoiz eztela saltceco

Hartçaren larrua berac dabilcaiño.

Hill behiñ, eta sal guero.



FABLE XV.^a(1.^{re} DU LIVRE VIII.^e)

HERIOA ETA HILLTCERA DOANA.

HERIOAC eztu nihoiz çuhur dena atcematen,
Bethi partitcera ceren hura prestie dagoen :

Bethi hare bere burua

Bai daduca abertitua,

Azken urhax haren eguitêco orduaz.

Ordu hare badauzca, helas!

Bertce dembora guciac,

Egunac, orenac eta mementoac :

Bat ezta tributa çor ez dioenie,

Ez haren dretchotie itçur daitekenic.

Erreguen umeeç munduan sarteco

Beguiac çabalteen dituzten orduco;

Maiz ordu berean herioac daie

Becokia itçaltcen urricaldü gabe,

Mundutic partitceraco.

Ez edertasunac, ez handitasunac,

Ez prestutasunac, ez gatzetasunac,

Deusec ez detçake hec salba garabic,

Herio latçaren segaren aspitic.

Noizbait ere mundu hunec den guciac,

Berreturen ditu haren ontasunac.

Hiltcea den baiño deus seguragorie ;

Halere derragun , eztela garabie

Gatiago anxia demalcuníc deusic.

Urthe ehun bici ondoan ,

Buryes bat hiltceera çoan.

Hau herioari çagocon pleintaca ,

Certan horla herresaca ,

Nahi çoen bada eraman lasterca.

Testamenta araoz eguiteco utciric ;

Abisatu gabe batere aicinetic.

Cer ! hola , ez bat , ez bi , berehala parti !

Diotça agudeac , aphur bat çauceci :

Eztu nahi nere andreac hura gabe noan ni.

Badagot illobaso bat oraiño ezcontcecoa ;

Etcheau ere hegai bat oraiño eguitecoa.

Çoin hertchacor çaren nausi barbañoa !

O çaharkitua ! herioac derro :

Ustecabetan ez natçaic ni yin atço ;

Ene presaz eztue hic ceren pleiñitu.

Ez baiça ehun urthe ya bici içatu ?

Paris gucian , hox , dietçadac aurki ,

Hire berdiñ çahar agude bertee bi.

Franteia gucian hamar emadatcic

Baiña abisu cembait behar hiududan nie ,

Eman , huntara hi prepara-razteco !

Orduan nitian chuchen causituco ,

Testamenta sinatua ,

Illobasoa ezcondua ,

Etchea ere acabatua

Cer! hire ecin ibillia,
 Çangotaco dardaria;
 Beharritarie gorthua,
 Beguietan lambrotua,
 Sudur cilbotarie cikiña darian,
 Senti ere hibaure ez bukeien guisan:
 Centçua arras flacatua
 Memorioa galdua
 Galdua ahoco gustua:
 Ez haudala guero dioc abertitu?
 Hauc eteiren hambat hiretçat abisu?
 Içate guciac hiretçat ya ciren,
 Nola hec batere içan ez baciren:
 Iguzkiac berac hiretçat alferrac
 Ditic bere artha ohitnac.
 Balia ecin dakizkiken
 Gauçac tue erregretateen.
 Nec ikhus-araci dauzkiat lagunac,
 Edo hillteen, edo hillac, edo eriac.
 Hauc oro bada cer dire?
 Hainbertce abis ezipadire?
 Hox, agudea, hox, iharduki gabe,
 Gaurguero parti haiteke.
 Eguin duken edo ez hire testamenta,
 Republicarentçat guti die importa;
 Herioac segur arraçoïña çuen:
 Hoberena laiteke ecen,
 Goatea mundu huntarie
 Nola desterru batetic,

Lehiatz be: e herrira
 Sumis eta aleguera :
 Arraicia aurpegiua
 Bakhea contienteia.
 Eeen bada cembat othe
 Bidaia luça daiteke?
 Agudea, badarasac !
 Gazte hoiec ikhus-etçac
 Hiltcera dioacinae ,
 Duda gabe glorioski ,
 Ascotan ere cruelki ,
 Baiña bethi curayoski.

Baiñan alferretan , dut eguiñen oyhu ,
 Ez duke ene kharrae , ardiex cfetu.
 Nor ere een baita , hilla idoriena ,
 Hura ohi da hiltcen bethi bortchacena.

FABLE XVI.

(22.^o DU LIVRE L^{re})

HARITÇA ETA SESCA.

HARITÇAC erran cioen lehenago sescari ,
 Badukeçu bai segurçuc tristea certaz pleiñi :
 Erregue pettitta baduçu gaiñean ,
 Aski baduçu cer yasan :

Eta haicerie mendrenac ,
 Apenaz ur-gaiña chimurteen duenac ,
 Gurtcera burua çaitu obligatcen .
 Nie aldiz gothorki hauçoa hedotcen
 Daducat nere copeta :
 Larhunec (*) nola capeta .
 Ekhe-arraioac ditut bara-razten :
 Uhar hazcarrenez naiz ere burlatcen .
 Guçiac çaikkitçu ixas haice çuri :
 Aiteitie guçiac iphar gocho niri .
 Bacinte bedere yayo ordu oneap ,
 Nere ostroila-çabal çuchantaren pean ;
 Gaichoa , ez cinduke hambat pairatceco .
 Aski baininte ni çu defendatceco .
 Baiña ondicoz easie bethi sort cen çare ,
 Non ere haiceac erregue bailire :
 Badiduritçait cerua
 Çuretçat dela inyustua .
 Çure urricalpenac , çuhamueçac derre ,
 Bihotça net ona dukeçula dio :
 Baña utz-açu griña hori .
 Haiceec ez dautet niri
 Loxa emaiten guehiago ,
 Çuri ceroniri baiño .
 Doblateen naiz , hauvi gabe .

(*) Escual-herrico mendi gorenataric bat : dituen
 here inguruan , Urruña , Azcañ eta Sara , frantziaco al-
 detic , eta Berra , espainiacotic .

Çue, eguia da, orai arte,
 Heien colpe gogorrener,
 Azpiz sendo, gainez fier,
 Iharduki dioçute,
 Bizcarra macurtu gabe.

Baiña gauden, othoi, azkenaren beira.

Hitz boieç hare cerratçala,
 Hor dathor furian uhartz urronetic,
 Nihoiz ere athera bere erraietarie
 Northeac çukeien ume terriblena,
 Haritea iharroxten hazkarki duena.

Hunee eguiten du gogor;

Aldiz seseac badema amor.

Haieeac, colpeac erredoblaturic,
 Bata bertcearen asti gabe ondotic,
 Haritz urguillusa haiñ du tormentateen,
 Non hedoièn hauço burua çuena,
 Eta erroac hillen herrian çauzeana,
 Erroz-gora baitu fiñean eçarteen.

Horta ikhusten dire, maisterrac ascotan,
 Mendeac irauten, egoitça beretan;

Berthuteapratizatuz.

Eta aldiz ikhusten dire bertce aldera,
 Etehe hazkarrenac, yausten errecara,
 Bicioa guida hartuz
 Gauça gucietan bethi,
 Bekio beha azkenari.

FABLE XVII.*

(13.^e DU LIVRE VI.^e)

IHIZTARIA, BELATCHA ETA ALLAUDA.

GAITZTAGUIÑEN obra tçarrac
 Net ardura dire gureen escusac :
 Legue hori du mundnac.
 Menaya haçaten bertcece nabi baduc,
 Menayatu bihaure bertceae behar tuc.
 Miraill baten bidez, mutill bat hari cen
 Hegaztin chebe atcematen.
 Mirailleco itchura brillanta ikhusirie,
 Aillauda ariñ bat cen harbilldu hartarie.
 Belatcha bat fite, bisa bis goiean,
 Balentçan çagona begalen gainëan,
 Hura ere ihicitie hethi bici cena,
 Eta ora indie oso barura çuena;
 Yauxirie hethetan chori lañoari,
 Tombatie haiñ hurbill, cantuz çoanari,
 Çaio gainëratcen, eta atçaparretan
 Daduca ya segurean.
 Hari dela haren gogara biphiltcen,
 Hor ditu mutillae safcac cerratcen,
 Eta briganta da hartua guelditcen.
 Ihiztariari, laster itçulirie :
 Utz naçaçu, derro, nioan bicirie;
 Egundaiño ez dautçut nic eguiñ gaizkirie.

Hardesten dio mutillac ariñki :

Eta chori horrec çuri,

Cer dantçuke bada nihoiz eguiñ gaizki ?

FABLE XVIII.^e

(7.^e DU LIVRE VII.^e)

LEHOINAREN GORTHEA.

MONARCA lehoiñac behiñ yakindu nahi çuen,
Cer leiñutariac cernac sor-aracia othe çen.

Orotara currierac

Meçu beraz cargatuac,

Pecoen gombidatcera

Erregueren gaztelura,

Egorriac içan ciren :

Escribu harrec çakharren,

Ciguillatua façoñez :

Illabethe bethe batez,

Erreguec nahi çuela

Iduki gorthe pleniera (*).

Ilunen hastean banket bat

Içanen cela ororentçat,

Baiña banket bat handia :

Eta guero comedia.

(*) Azpico guaien billtear yenerala.

Tretu noble hartaz hare nahi baitçaien
Oror erakhuxi çoiñ botherexu cen.

Bere yaureguia beraz hare nobleki

Emaiten daie bill-toki.

Baiña hura gaztelua!

Hobeki çaiten deithua

Carniceria-lekhua.

Odol çastac hemen, hara-ñan heçurrac

Ez osoki garbituac;

Huna-hemen larru-puscaç,

Eta urrina ecin-yasana

Sudurretan barna betan sartcen cena.

Phu! dio hartz yaunac han sartcearekiñ,

Tapatuz sudurra bere patarekin :

Hare hobeki eguin çuken

Holaco sinoric eguiñ ez baçuen :

Ecen erreguec coleran

Egorri çuen cuchean ,

Satanen erresumara ,

Miñardarena eguitera :

Erran nahi da, itho çuen.

Chiminoari net onxa citçaioen

Erreguec eguin bengantça,

Içanic ere garratça.

Guero lodituz mintçoa

Lausengari gaindizeoa,

Eman cen laudatcen yaunaren colera,

Eta haren atçaparra;

Guero cilloa ere, baiña usaina bera:

Çoinaren aldean loren erreguiña (*)
Baitcen, cion, choilki baratchuri miña.

Hunen lausengu sorryesa

Içatu cen malurusa.

Eta içatu çuen hartçaren fin latça.

Gure yaun lehoiña nombait,

Cela niri diduriçait,

Robespierren cusi cembait.

Acheria han hurbill cen :

Erreguec erran cioen :

Hauguia hi, eta erradaç :

Cer cioe hire çundurac ?

Mintça hakit bada oraiñtche

Itçal eta itçuli gabe.

Berteeac cuchian : buratie beheara,

Mafrundi tchar batec daut hexi sudurra :

Eta khendu baitaut usna,

Erran ez deçaket cer çaitan urrina.

Horla ederki athera cen.

Hau çuri bekiçu balia irakhaspen.

Nahi baduçu ukhan, printceen gorthetan,

Eta bertce yende handien etçhetan,

Besta eta ongui ethorri,

Etçare içan behar, sopra lausengari,

Ez erasle lainoegui.

(*) Arroza.

Baiñan ičan çaito, horlaco tokitan,
 Ardora çure hitcetan,
 Edo gascoiñ edo norman.

FABLE XIX.

(9.^e DU LIVRE VII.^e)

CARROA ETA ULIA.

PATAR harexu batean,
 Ekhiaren kbalda-pean,
 Carro bat behin cioan,
 Çahar, andere eta frailez cargatua,
 Sei çaldi hazcarrez nekbez tiratua.
 Barneco yendeac oro yauxi ciren :
 Ukho eguitera ya çaldiaç çoacen,
 Hav- hauntuac, eciñduac,
 Icerdiz bocatatuac.
 Badathor uli bat dena aferatua,
 Gan-araci nahiz carro guelditua.
 Badoacote abrer aldera burumbaz,
 Animatu-nahiz hauc bere abarroçaz.
 Huso badabilla hegaztin hattea,
 Ausic bat, guero bertcea.
 Ikhustearekin carroa doala,
 Aira uste du harc demola.

Yarteera badao timoiñ muturrean,
 Guero gutien ustean,
 Eraguillearen sudurraren puntan,
 Mecanica doanean,
 Yendea ere treiña onean,
 Hegaztiñ anxiatua,
 Bere eguinduraz hartua,
 Sartcen da banitatean.
 Hara huna dabill nihon ez dagoke;
 Yeneral on baten pare,
 Çoiña, here osteae curayeztatceco,
 Eta bictoria laster beretceco,
 Herruncaz-herrunca khecho hailabilke-
 Herstura publico hartan gure tlia
 Pleiñi da bakharrie oroz dela utcia;
 Haren bizcar ere dela artha gucia;
 Nehor eztela orotarie
 Çaldiaç lagundu nahi dituenic
 Uruski yalguiten empeiñu hartarie.
 Hari cen fraile gaiçoa
 Erraten officioa:
 Othoitceco cer aroa!
 Cantuz çagon damatcho bat;
 Centçu cochecoan hare etçukeien hambat:
 Cer tenore hauta musica eguiteco!
 Çure uli lamera doacote listo,
 Beharri cantaletara
 Bere cantua eguitera:
 Eta oraiño eguiten diti
 Asco borlaco baur-tretu.

Haiñitz nekhe iragan eta,
 Cotchea goieratcen da.
 Ha! dio uliac oraintche,
 Hax handia har daiteke.
 Hambat eguiñ dudanean,
 Huna ene yendeac celhay ederrean.
 Hola! çaldi, yaunaç, nore bere contua,
 Dudan nic nere pagua
 Vende artean badire asco
 Uli haren idurico :
 Noiz nahi bertceeren prest escolatcera.
 Eta afera erotan sudurra sartcera.
 Hastean badakite cer eguin behar den,
 Ondoan badakite eer eguin behar cen.
 Bertceentçat bethi dotor handi dire,
 Aldiz beretçat ez choil aprendiz ere.
 Horlacoac etchetie kbasatceco dire.
 Bertcen eguitecoez haiñitz dacusanac,
 Gaitzki eguiten ohi hare ditu bereac.

FABLE XX.º

(12.º DU LIVRE XII.º)

ARRANOA ETA PHICA.

HEGAZTINEN erreguiña
 Arranoa deithcen dena,
 Eta phica elhati Margota madama.

Baçoacen paseari,

Phentee buru bata gaindi.

Choco baztertu batean.

Batcen dire ustecabeen.

Margota icitu cen : aldiz arraneac

Ya onxa bazcaldu çuenac,

Baderro : Comai, ez ici :

Goacen biac paseari.

Yupiter han goiecoa

Yainco ororen gaiñecoa,

Ardura omen da eneateen,

Ocupatua den arren

Mundoaren gobernatcen.

Ni cerbitçari harena (1),

Oroc ongui dakitena,

Noiz edo noiz uaski enea naiteke

Nere nausiaren pare.

Hox ! dembora pasa, solhas emadaçu;

Ceremoniac uzkitçu

Mocoluch cuchean lothu cen erasten

Huntaz, hartaz, oroz; gauça hortau ecen,

Ezta ema çaharrie, ez eta edanscorie,

Hari comparateccoric.

Etcen gure agasac (2) deus ez çakienic.

(1) Paganoc arranoa çacaten Yupiterren hegaztin laborita beçala.

(2) Agasa, phicaren icen goitia.

Non eer pasatcen den nahi dio ekharri
 Dama arranoari berri.
 Yauci motchea dabillala,
 Toki batetic berteera,
 Espiun paregabecoa,
 Yaincoac badaki helas! nolacoa.
 Escaintça hau gaiteituric
 Eta coleran sarthuric,
 Arranoac derro : Chuhurra baduçu
 Çure etchea goarda çaçü :
 Hitzuntei, Mocoluz, adiu :
 Nere gorthean eztut nie
 Çaren beçalaco hitzeari beharrie;
 Caratera hori haguitz da tcharra een.
 Margotac etçuen berteerie galdeteen :
 Sobra een tokian, ez baitcen fidateen.

Ezta gauça usteteen den beçalacoa
 Printcen egoitcetän, sarteco dretchoa.
 Hetan trançee eruelenac
 Estire ez falta direnac.
 Espiun, erreportariae
 Han dire topatcen, becokiz arraiac,
 Bihoteez bertecelakoac :
 Gorderic yaçarle bata bertceari;
 Orentçat dire leguez higuingarri.
 Urus toki hetan, Margotac beçala,
 Dituenä bi yaunzeura :
 Bata bere herricoa,
 Eta berteca hangoa.

FABLE XXI.*

(4.^o DU LIVRE XII.^e)

BI AHUNTÇAC.

Eguñ dutenean beren alha-aldia,
Lotcen çaie ahunteer ibilli nahia :
Gogoz arinsco, eta libertate gura,
Badoaci curri fortuna-ketara.
Hurbill balinbada balaco tokiric,
Ez bide, ez bidechea nihora ez dutenic,

Ez-ta guiça oiñ arrastoric,
Capriçac hetara daramatça bethi.
Arrocaz-arroca, lece-heguiz-hegui,

Net artechki badabiltça :
Aciñda igaillea deusez ezta loxa.
Çoacila beraz horrela ahuntz bi

Çoiñ bere alde curri-curri,
Biec çutela ere berdiñ patta churi,
Urrundu ciren hatteric

Phentce beherecotaric.
Cirenean çoiñ bere alde hola aphur bat ibilli,
Elkhar gana guerthuz çuten bidea hec itçuli.

Ibai batec ditu biac separatcen;
Çubitçat han ezta soliba bat baicen :
Çoiñtan andreyaer bi soñez-soiñ yarric,
Pasa ez bailaizte salboric.

Bertçalde ibaiac han çaraman gaiac,
 Eta uren ondo handiac,
 Behar cituen içitu
 Eta loxaz herabetu,
 Gure bi marimutillac.

Bedariac lanyer hauc gucien bistan,
 Fincatcen dire chedean.
 Batec bi haiña hetaric
 Eguiten du bere aldetic
 Çubian sartceco urhax bat,
 Bertceac ere orobat.

Gogoratcen çazkit niri bada oraintche
 Betan erregue bi puchant eta noble,
 Luis hamalaurgarrena,
 Eta Philip laurgarrena,
 Bidasoaren uretan (*),
 Irlachca ospatu batetan,
 Elkhaz-ganatcen direla

Ezcontça bat eguiñ han behar dutela.
 Hala urhaxez-urhax eta musuz-musu,
 Çubian badoazkitçu
 Gure andre curritçalleac,
 Baiña nola ciren biac nola biac,
 Ethorkiaz fiertuac,

(*) Ibaia, Franteia Espaiñatic separatcen duena,
 çoinaren uretaco irlachca batean bi gortheac billdu
 baitciren, Behobia deitcen den, Urruñaco cartierari-
 bisabis.

Çubi erdixura heldu direnean ,
 Biee amaiñatu ez çuten nahi içan.
 Glorios baitcen bat , bere iraganetan ,
 Baçuela ahuntz bat , Yupiter haurrean
 Bere errape urusaz bazcatu çuena ,
 Amalthea deiteen cena.

Berteeac çakharla titulū bertee bat
 Çuena çorâteen edoceiñ beçambat :
 Copetaz copeta çubian yarriac

Gure andere hisitiac ,
 Ez beharrez elkhar utci
 Pasatcera lehenbichi ,
 Sobera lehiaturic ,
 Biac betan lerraturic ,
 Urera ciren erori.

Hori bera da guerthatcen
 Maiz fortunaren bidean ;
 Batac bertceari ceren
 Irabaz-bide berean
 Nahi baitio yaçarri ,
 Ez dadiñ yalgui hobeki.
 Exaiari dio halaber bertceac
 Egniten bertce hainbertce ;
 Hala non finean biac
 Errecaratcen baitire.



FABLE XXII.^a(13.^e DU LIVRE XII.^e)

ACHERIA, ULIAÇ ETA SAGARROIA.

ACHERI bat behiñ, oyhantar çabarra,
Nihon bacen eta madre eta maltçurra,
Ihiztariz colpatua,

Çatçan hasan hedatua.

Odol-traçac guida laster haren-gana

Suryitu cen hegaztina

Ausikilari samina

Ulia deitcen duguna.

Pleintaca cerura hasi cen eria,

Nolaz çuken barrec haiñ exai çoria,

Haiñ bertee pairatu behar ukhaiteco,

Uliez sliñcan yana ere içaiteco.

Cer! hauieç gaiñera dathorzkidan niri

Oyhantar orotan bada abillenari!

Noixtic hunat acheria

Da pochiñ haiñ berecia?

Eta buztan hau certaco?

Badea deusetaraco?

Carga inutil bat ez dea?

Hoa! animale ladrea

Dakikela madarica!

Comunetic hadi bazca.

Sagarroi bat handic hurbill bici cena,
 Presuna aiphatu nic oraiño ez dudana,
 Badathorco urricalduric :
 Duela ordu beretic
 Nahi gaiñoa libratu
 Oste khechos, ostriñatu
 Haren ausikietaric.
 Ebunea nere sistetan
 Sarthuco ditiat bertan :
 Eta eztue iñanen, hauço,
 Derra, aboro pairatecco.
 Ez, berteeac derro; beguirauc ni-gatie,
 Holacoric eguitetic.
 Utz-kie bere othuruntçaren
 Trankill-trankilla acabatcen :
 Hauc aseche ditue : tropela berri bat
 Balathorkiket gaiñerat,
 Cruel, hamicatuago :
 Ez laitec enetçat segur hobeago.

 Yende-artean bethiere
 Falta ezta gosc eta yale.
 Gorthetan, tribunaletan,
 Sal eroslen botiketan,
 Nasai hauc aurkitcen dire :
 Sos arrapatçaille; yenden chueatçaille.
 Populuac ere, noizpait unbaturic
 Eta coleran sarthuric,
 Edo charlatanec, aise trumpaturic,

Dukenean eguiñ reholucionea,
 Gauça da duda gabea,
 Aseac baditu khentcen,
 Goșeac tuela harteen :
 Bere cortea ere hatere ez hobetcen :
 Baiña areago bai segurez bihurtcen.

FABLE XXIII.

(21.^e DU LIVRE 1.^{er})

LISTORRAC ETA ERLEAC.

OFICIALEA çoiñ den,
 Obrac daucu crakhusten.
 Ezti-bresca cembait, utciac debalde,
 Baçauden yaberic gabe.
 Ethorririe listor batçu,
 Nahi ičan çuzten beretu.
 Erlec eguiñ çuten contra :
 Eramana ičan cen gauça yuyetara :
 Hartu cen ere yuyetçat
 Hartaco cen listafin bat.
 Yuyatcea gauça etcen errech hambat.
 Baciren bai lekhucoac
 Haltoki bacerratenac,
 Ikhusi cirela airetan
 Ibilteen luçaro, bresken ingurutan,

Halaco animale batçu
 Hegaldun, ta burrunbaxu,
 Lucesco gorphuteez, colorez ubelac,
 Erleac ciduritenac.
 Baiña cer! listorrer ere
 Marca hauc badoazcote.
 Arraçoñ horietara,
 Gure listañ lamera
 Atrebitcen ezta deliberatcera.
 Eta nahiz ukhan argui guehiago
 Ankesta berri bat behar dela dio.
 Deitcen dute lekhucotçat
 Chinaurrieria oso bat.
 Baiña pontua halere
 Arguiteen ezta batere.
 Orduan, yendeac, hauc oro certaco?
 Erle çuhur batce dio.
 Sei illabete ya baduke nombañ han,
 Gauça ecin yuyatuz dagola dilindan.
 Ikhus-açue garela
 Hastean beçain guibela.
 Horla doala dembora
 Eztia doa galtcera;
 Yuyec, claro errateco.
 Ordu luke khechateco.
 Ala, oraindie ez othe du,
 Askî hartça milieatu (*)?

(*) Luçatuz hauciac, partidac telupatu, chucatu.

Hambat ankesta eta palabria gabe,
 Ponderu hau trenca daiteke.
 Lanean loth gaiten, gu gure partetik,
 Eta listorrac beretik.
 Horla da aguerico ecea,
 Çoinec dakiten eguiten
 Yusa haiñ goço batekin,
 Brescae hambat antcerekiañ.
 Desafio horlacoa
 Etçaiten listorrer içan gustucoa.
 Eta errefusatuz, eracuxi çuten
 Antee horlacoetic hec çoiñ urrun çauden.
 Eta erleen faboretan
 Yuyamendua cen eman.

Hauci guciac ochala
 Balire yuyateen fablean beçala!
 Eta causa orotan segi
 Turcoen moda baledi
 Ez laite bertee codarie (*),
 Centçu naturala baiciç:
 Ez eta haiñbertce gastatu beharrie.
 Baiña orai gaituzte biphilteen, iresten,
 Luçamenez arruinatcen.
 Fiñean, hambat da eguiten,
 Non ostria bethi baita yuyearen,
 Coscoac choilki partiden.


(*) Leguezco bilduma, edo legueac daduzcan liburua.

FABLE XXIV.^a(16.^e DU LIVRE III.^e)**EMAZTE ITHOA.**

Nic ez nerrake : Ezta densic ,
Ema bat ithotcen baicie.
Eecn ezta guti hori :
Çor çαιο ere sexoari
Dadiñ erregretatua ;
Delacôtz guiça-castaren erdi preciatua.
Ez derrat hau funxie gabe :
Denaz guero kestione
Ema batez fable huntan ,
Ibaso baten uretan ,
Ondico lastimosenaz ,
Bere fiña ukhan çuenaz :
Erran nahi da, itho cenaz.
Senharra çabillan gorputçaren billha ,
Nahiz , comenî beçala ,
Eguiñ azken ohoreac ,
Frogu, oracioneac.
Hala beharra ere, orduan
Ondicozco ibaso baren beguietan ,
Vende baçabillan guerthuz pasaietan ,
Guerthatu cenaren berri yakiñ gabe.
Senhar hunec beraz galdeteen diote :

Ea ikhusi duten
 Haren andrearen
 Nihon traçarie bateŕe ?
 Ez, derra batec hetarie ;
 Baiña beherago ganie ,
 Seguituz uren yauxpena ,
 Dukeçu ediren chercateen duçuna.
 Bertce batec aldiz baderro contrara :
 Hobe da itçul çaiten guibeleco aldera ,
 Gaiñ-aldean chercatcera.
 Cembat nahi gaiac deraman beheiti ;
 Emen ohizco hisiac ,
 Eta -contra eguiñ nahiac ,
 Segur da gorphutça daramala goiti.

Aski sasoiñ contra hemen
 Haiña bura cen burlatcen.
 Contra-eguiñ beharraz bada kestione ,
 Arraçoiñ çuen-ez nie aise ez nerrake.
 Baiña emaren baithan , default horlacoa
 Dadiñ edo ez dadiñ baitezpadacoa
 Gauça da den segura ,
 Harekiñ sorthuren dena
 Berarekin hillen dela :
 Eta contra-eguiñen harc bethi duela
 Hill eta ere ahal bada.



FABLE XXV.*

(2.^e DU LIVRE III.)

SABELA ETA MEMBROAC.

BEHAR çaiten içan erreguetasuna
 Nere obraren hastapena:
 Alde guisa batetarik
 Consideratuz guerostic,
 Gaster (*) yaunac dakhar haren imayina.
 Deusic harrec badu falta,
 Gorphutz gucia pleiñi da.
 Harentçat bethi lanean
 Haritceaz, azkenean
 Aseac membroac, eguiñ çuten chede,
 Elkhar adituric, deusic hari gabe,
 Nor bere alde bicitceco
 Ale aithorenseme, laço.
 Harrec, cerraten, gu gabe,
 Airez bici behar luke.
 Cargaco abreac iduri,
 Nekhatcen gare net, darigula icerdi.
 Eta gucia norentçat?
 Bakharriç alfer horrentçat:
 Deusic ez dathor gureçat.

(*) Estomaca edo sabela, greken linguaiañtic hartua.

Gure nekheen chedea
 Da horri asea chuchen forniteea.
 Gaiten gueldi : badiduri
 Oficio berri hori
 Nahî dauenla irakaxi.
 Nola erran, hala eguiñ; badaude atçaparrac
 Deus hari gabe, eta huxac;
 Dilindan besoaç badaude gueldiric :
 Eta ez dute eguiten oiñec ere urhaxie.
Gasterri guciec erran çaien beraz
 Eguiñ ceçala bereaz.
 Baiñan ez citçaien gança
 Içan uzte beçain phoça;
 Dolntu citçaien onxa.
 Laster baitciren guelditu
 Herbal eta languiatu :
 Ecen, ez ceman guerostic
 Bibotçac odol berriric.
 Net patitu çuen betarie bacotchac;
 Ahitu ciren indarraç;
 Eta bide hortaz, bekhaiztiec laster
 Çuten ikhusi, hec alfer
 Eta inutil ceucatena
 Cela orotan beharrena :
 Baita on comunaren procurateeraco,
 Hec berac baiño ere haguitz beharrago.

 Erregueren graduari
 Hau badoacoke ederki :

Eguiten du har eta eman ;

Dathorkiona cerguetan,

Badoaco faboretan :

Gauça berdiñ da horlatan.

Harentçat guciac travaillatcen dire ;

Haren ganic chaindez, oroc harteen dute

Bere mantenimendua ;

Harc languille penatua

Bicitceco du laguntcen ,

Negocianta aberasten ,

Yuyec harc ditu , oneski pagateen ,

Laborariari harc nekhea ariñtcen ,

Soldadua sariztateen :

Fiñean , emaitçac ehun tokitara

Barraiatcen dituela ,

Arrimn onean harrec eçarria

Dadoca estatu gucia.

LIBURU LAURGARBENAREN ACADANTÇA.

LIBURU BORTZGARRENA.

FABLE I.^o

(8.^o DU LIVRE IX.^o)

ERHOA ÇUHURTCIA SALTÇEN.

ÇAUDE urrunseo bethi çoroen raenetic :
Gonxeillu hoberic ez demaitçuket nie.

Çuhurrena daite bethi
Ihes eguita casco arrailduari,

Aire sartcen çazionari :
Erhoekin trebe içan nahi denac
Ez duke cascoa betheena berac.

Erho bat çabillan çarricaz carrica,
Çentçua saltceco baçuela oyhuca.

Eta yendea ostez,
Erosi beharrez,

Baçoacoz berresaca.
Lehenic baçuten asco yasaiteco
Erhoaren escarnio

Baçaraman guero baçutçhac berekin,
Behar cena pagaturic,

Erho marchantaren esentie harturic,
Macelaco sin bat hari bi bracekin.

Guchienac segur aserretcen ciren :
 Baiña her balia cer çakioketen ?

Borlatuenac hec çauden.

Hobe ere çuketen eguitea hirri,
 Eta ichil-ichila goatea itçuri
 Bere çasfaco eta hari.

Gauçari centçuric billhatu nahia,
 Çaiten aguertcea bere inoranteia,
 Merecitcea ere gucien hirria.

Centçua eenen nondie içan ahal daite
 Erho batec eguin dukenaren berme ?

Cer nahi daiten iragan

Casco nahasi batean,

Haren causa ezta centçua,

Baiña bakharrie guerthua.

Trumpatu bat, bedariae,

Çartaco erosia eta hari braçac

Ez baitcetçaken hare ahantz niholere,

Ez utz esplicatu gabe,

Çahur baten ganat egun batez gan cen,

Argui cerbait hortie bill othe ceçaken.

Eta erran cioen hunce berehala :

Hyeroglifac (*) cirela.

Eta gança aphur bat esplicatceraco,

Erran cion lula guero :

Yende ongui conxeillatuec

Edo centçuari bethi darraizconeç,

(*) Figura mysteriozeote.

Bere eta erhoen artean,
 Ahal duketen gucian,
 Baitezpada dute emanen
 Çue erosi hari horren
 Lucetasuna bederen.
 Non ez, iguric beçate
 Cembait holaco axecabe.
 Etçare ez enganatua :
 Erho hare segurki saltcen du centçua.

FABLE II.^a

(I.^{re} DU LIVRE III.^e)

EYHARAÇAINA, MUNEN SEMEA ETA ASTOA-

OROREN gogara nahi bada eguiñ,
 Oro gaitcituac uzten dire berdiñ.
 Frogatceco erran hau çoiñ den eguia,
 Ondoco fable hau daiteke balia.
 Asto bat cioan behiñ,
 Eybara bateco aita-semeckiñ :
 Aita cen çaharra,
 Semea aldiz haurra :
 Ez hargatic haiñ haurra ere,
 Orhoit banaiz onxa, haituzken urthe
 Hamabortz bat edo hamalaur bedere.
 Biec çaramaten feriara astoa,
 Hau ongui saltceco çutela gogoa.

Bi gauça horiee falta badituten,
 Bakhea alferretan chercaturen duen;
 Ez deusee emanen daiten ere asaldu.

FABLE III.^a

(2.^o DU LIVRE VII.^o)

GAIZKI EZCONDA.

Ona bethi balitz ederraren lagun,
 Nor ez ezcon bihar baiño lehen egun?
 Baiña nola aspaldi dibortatu ciren,
 Eta gorphutz eder bagnitz guti baicen
 Ezbaita, arima eder bat aloyituric,
 Gauça biac betan yuntalceen taenic:
 Ez aipha ezcontcea niri;
 Nahi duena ezcon bedi.
 Ikhusi iñan ditut nic asco menayu,
 Ez çait çalegarri choil bat idoritu.
 Halere guizonen hurren laur laurdenac,
 Loxatu gabe lanyerac,
 Barcu hortan phocic embargateen dire;
 Hurren laur laurdener dolutcen çaie ere.
 Badakhart bat, çoiñac, dolutu ondoan,
 Deusic ez baitçuen hoberic atçeman
 Casatcea baiño etçhetic andrea.
 Ema moker, cicoitz ta mocolucea,

Dens etcen bunen gogara,
 Ez deus behar ceu guisara;
 Berantegui yaiki, goicegui ohera.
 Hau churi, hori beltz, guero bertee hura;
 Erhoteen siren schiac;
 Ez cirauken ya nausiac;
 Yauna deusez ez ohartcen,
 Yaunac oro despendatcen;
 Yauna curri dabill, yauna ezta muguitcen.
 Hambat harrec erran çuen,
 Non fiñean yaunac, eciñ yasanez ya
 Duende haren erasia,
 Baitçuen egorri site baserrira,
 Bere burhasoetara.
 Horra bada non den ethecco andre ohia,
 Nesca antçara-çaiñ batçuen
 Eta mutill urde-çaiñen
 Compaiñian eçarriā,
 Ephe bat gan den ondoan,
 Aphur bat mudatu daitekelaçoan,
 Senharrac berriz hartcen du.
 Ea bada ! eer dioçu?
 Han nola çare bicitu?
 Campainaco bici laiño eta inocenta
 Çure gustucoa othe da?
 Bai bada, diotça; baiñan ikhustecac,
 Cirela hango yendeac,
 Gureac beçain alferrac,

Haguitz ninduen kechatcen :

Ez nie erran faltaz , eeen

Ederric aditeen çuten.

Baiñan irabazten nie ez nuen deusic

Laço hee ororen exaicoa baicic.

Hola! andrea, dio senharrae cuchiañ ,

Baldiñ caractera çuc çorigaitcean

Haiñ tcharra haduçu , non , istant bat choilki

Goicean apenaz çurekin daudenac ,

Arraxean guero bihurtcen direnac ,

Bakhean çurekiñ eciñ badathorzi :

Cer eguinen dute horlatan sebiec ,

Egunac dituen ordu gucietan ,

Hekien contra furian

Ikhusico çaituztenec ?

Eta cer eguinen du çure senharrae ,

Çure aldean gau-egunac

Goan detçan nahi duçunac ?

Çoaz , bihur çaita baserrira : adio.

Baldiñ nie haxa dudaiño ,

Baçaltut berritan deiteen huna handic ,


Badathorkit ere horlaco guraric ,

Tuzkedan hillen berrian ,

Nere obenen caztigutan ,

Bi sabexetan nie bethi ,

Çu iduri emazte bi.



FABLE IV.^a(9.^o DU LIVRE IV.^o)

UZKINACHO PAONAREN LUMEZ BERREGUINDUA.

SASORNEAN paona bati

Lumac citçaizeon erori :

Uzkinacho batec , oro billdu eta ,

Hetaz çuen eguiñ bere tualeta.

Guisa hartan aphainduric ,

Ampurus eta haidorric ,

Gan cen site morgateera

Paona hatçuen balxara :

Uste baitçuen barc hala

Personaia eder bat cela.

Batec eçagutu çuen :

Eta bertan içatu cen ,

Burlatua , chistutua ,

Trancatua , yocatua ,

Bai eta yaun Paonec çoiñ guehiagoca ,

Furian moco-colpeca ,

Biphildu çuten ederki.

Gan cencan guero ihesi ,

Handie bere kidetara ,

Hauç site eman çuten borthatic campora.

Uzkinacho horren ðpare

Munduan asco badire :

Berteerena bartuz , hec ondu baitire.

Erdingotac eta fraeac,
 Chapel fiñac eta botac,
 Muntrac eta muntra-chenac,
 Morga handirekiñ, hedateen dituzte.
 Nori berea hec itçul balirote,
 Athorra-arras gueldi bedere laitezke.

FABLE V.^a(10.^e DU LIVRE IV.^e)

CAMELUA ETA ÇARO-ÇAMA.

CAMELU bat lehen çuena ikhusi,
 Lasterca gan cen ihesi:
 Gauça berri harrec loxatu baitçuen.
 Bigarrena hurbildu cen:
 Caprestu bat eguitera,
 Huntaz abrea lotcera,
 Bertce bat atrebitu cen.
 Horla çhitçaz bethi ere,
 Gauça guciekiñ gare eguiten trebe:
 Terrible eta arraro ciduriçaicana,
 Gure beguitara da laster eguiña.
 Eta orai soyet hau guri
 Çaicunaz gueroz erori:
 Eman içatu cen yende atalayean,
 Agueri-cena urrun ixas çabalean

Cer othe cen yuyatceco.
 Haue erran çuten hasteco;
 Segurez gauça ikhusia
 Cela guerlaco untcia,
 Eta bedere fragata;
 Handie laster etcen baicican brulota,
 Guerocheago canota,
 Oraiño guero balota:
 Azkenecotz etcen deusic
 Ilaga çamachea hat baicie.

Ah! mundu huntan combatez
 Ez daiteken erran leguez:
 Cerbait diduri urrundie
 Eta deus ezta hurbildie!

FABLE VI.*

(17.^e DU LIVRE III.^e)

ANDREYERRA SOILHARD BATEAN SARTHUA.

BEHIÑ andreyer madama,
 Guerri luche-lerden-duna,
 Chilo herxiño batetie,
 Ez guti eforta eguiñie,
 Sarthu cen bada azkenean
 Granera aberax batean:
 Eri-ondo, onera cen emara doiean.

Han bere gogara pochiñ on-caleac

Eguiñ cituen aseac.

Haritu cen yan eta yan;

Yaiñcoac daki orduan

Cer biei çuen eguiñ han :

Eta cingar guicen cembat cen sunxitu !

Baiña cer citçaion damari guerthatu ?

Betan cen loditu, guicendu, çabaldu;

Cortçetarie etcen oraindic asmatu.

Aste osobat gan cenean,

Bazcaria acabatcean,

Abarrox bat adituric,

Icialdurac hørturic

Badoa site chilora,

Athera nahiz campora.

Bainan ez daiteke pasa niholere :

Hau cer da ? diotça, trumpatcen naiz othe!

Eta itçuli cembait eguiñ duenean

Bira-bira granerean :

Chilo hura, dio, cen hemen berean!

Bortz edo sei egun duela bakharric,

Iragan nintcen hemendic.

Arratoiñtto batec ikhusiric horla

Net penatua çagola;

Orduan, diotço, ez çaiten, andrea,

Çure pantça haiñ bethea :

Nola çaren mehe ethorri :

Mehe behar çare yalgui.

Hemen orai derradana,
 Da bertce haiñitcer erraten çaiena.
 Baiña sobra barna huntan sarthu gabe
 Çare eguitecoac eta hekienac
 Nahastatu gabe beude.
 Erragun hemen hargatie,
 Fableac gogoraturie :
 Mundura mebe eta, billhuz dena ethorri,
 Nola yin den, hala behar dela yalgui.
 Baldin ambicione ohore, ontasunez,
 Çucen- contra ardiexiez,
 Edo cicoitzki idukiez
 Hartu badu hemen, andana bandia,
 Iragaitecotçat goico athe herxia
 Behar du utci gucia.

FABLE VII.^a

(12.^o DU LIVRE VI.^o)

IGUZKIA ETA IGUELAC.

PRINTCE baten eztaietan
 Oste handi bat hari cen,
 Bere penen lorietan
 Pitçar-arnotan ithoteen.
 Esopo choillari hemen diduritço,
 Yende hec direla segur ongui gaiço
 Aguertceaz hartaz hambat bozcario.

Beraz hanc erran cioten :
Ekeac aspaldi lehen,
Ezcontceco gogo ciñez hartu çuen.
Entçun ciren berehala
Elkhar hartuac beçala,
Intçuretaco egoilleac
Oyhuz pleiñtaca guciac.
Helas ! cer eguinen dugu
Haurric hare ukhaiten badu ?
Hec cerroten çoriari.
Iguzki bat ere choilki,
Apenaz daiteke sofri :
Dotcena erdi batec ixasoa ere aise,
Eçarrico du ur eta abitant gabe.
Adios, ihi, adio intçurac :
Ez dirauke gure arraçac
Behar gaitu egarriac
Finatu garen guciac.

Animale pobre, iguelen partetic,
Nere idurico seguric ;
Arraçoiñ igurie, çaiten tcharragoric.
Rebolucione bat, eguiteracoan,
Eta republica, iphiñtceracoan,
Ochala osteac hau, balauca gegoan !
Erregue bakhar batekin,
Naspi badugu cer eguiñ :
Erregue multço bat, gaiñcan badugu,
Cargaren azpian, nola iraunen dugu ?

FABLE VIII.^a(14.^e DU LIVRE VIII.^e)

LEHOISAREN OXEKIAC.

LEHOISA madama hill cen;

Laster lehiatu ciren

Yendeac tropan gorthera

Printceari doluz bisita eguitera :

Hobeki derradan miña berretcera.

Probintcier meçu egorri cioten,

Oxeke, froguac, nola eguinen ciren,

Hulaco egun, eta hulaco tokitan :

Içanen cirela haren prebostac han,

Ceremoniaren erreguelateeco,

Eta nori bere plaça eracuxteco.

Penxa çaçue hec ea

Faltatu çuten goatea !

Izcolaca eman cen erregue gaiçoa

Bethe aradac çuen lamia cilboa

Eliça bertcecie lehoiñee eztute.

Haren exemplura site,

Aditu ciren marrumaz

Batbedera bere erdaraz

Yaun gorthesanoac oro.

Gorthea ecen, hemen clarki errateco,

Herri bat da, çoiñtan aleguera, triste,

Gauça orotaz anxicabe,

Prest eguitera cer nahi

Yendeac baitire bethi;

Printeeac cer duken nahi.

Edo ez badukete ciñez han gucia,

Eguiten dute aleguia.

Populu mudacor chiminozco ostea,

Bere nausiaren imitatçaillea:

Milla gorphutz betan dabilzcala, choilki

Arima batec diduri;

Segur ere erran daiteke

Yende hec direla menanica simple.

Baiñan emogun kox gure chedeari.

Orkatçac etçuen negarrie isuri.

Nondie hori eguiñ çuen?

Heriotce harreec mendecatcen çuen;

Erreguiñac aspaldisco

Semea eta andrea baitciotçan itho.

Bada nigarrie harc eciñ eguiñ çuen.

Salatcera fite gan een

Lausengari tçar hat : oraiño cerrala :

Are eguiten hirri-ikhusi çuela.

Erregue baten colera

Salomon çuhurrae derraicun beçala;

Terrible da segur : eta terriblena

Erregue lehoiñarena.

Baiña orkatz hunec etçuen

Libururie eracurteen.

Erreguec erraten dio :

Ciñhal tcharra! hirriz ago!

Eta eztue campoz bederen
 Auhén hauc orotan hie parterie harteen!
 Gure behatz sacratuec
 Unkituco ere ez ditiztec
 Hie membro profanoac.
 Çathozte çuec, oxoac,
 Çuen erreguina mendeca çaçue:
 Traidore hau eçaçue
 Sacrifica hemen bertan
 Haren orhoitçapenetan.
 Orkatçac aldiz orduan:
 Yauna, dio iragan da
 Nigarretaco dembora,
 Eta dolna alferra da.
 Hemendie ez urrun loretan yarria,
 Aguertu çait niri çure andere ohia:
 Eta erran darot, ô kide!
 Ahocuba hunen gatie
 Beguietarie nigarric
 Isur ez bedi batere:
 Lekhu urusetara ni nioanean.
 Phentce lorexu batçutan
 Hemen nabille lorietan:
 Urus, eta elheztakidiñ
 Ni naicen beçala saindu direnekin
 Utçac ene sahex noblearen miña,
 Den nahi beçaiñ samiña,
 Domborarekiñ hichtera:
 Gutia eztue horrec demaitan placera.

Apenaz da hau aditu ,
 Non oroc baitute betan eguin oyhu ;
 Miracuillu ! miracuillu !
 Orkatçac caztigu beharraren plaçau
 Sari handi çuen ukhan.

Erregue eta bertice , yende handieri
 Eguiotçue amex-condairac-ausarki :
 Flata, lauda, inxenxa , çatçue guicenki.
 Çuen contra aserro
 Balin badire ere ,
 Laster dire eguiñen , çuen adiskide.

FABLE IX.^a

(3.^e DU LIVRE XII.^e)

DIRU-BILLTÇAILLEA ETA CHIMINDA.

Guiçox bat hari cen bill eta bill diru ,
 Baiñan oroc badakigu
 Enganio hau ardura ,
 Furiaraiño doala.
 Hunec etçuen penxatcen
 Carraca eta otchiñez baicen.
 Içantça horiec alfer daudenean ,
 Deus eztire nere oldean.
 Segurago bere tresora ukhaiteco ,
 Gure dirukoiaç bere egoitçaraco ,

Toki bat hautatu çuen
 Çoiña ixasoac baitçuen
 Inguraturic osoki
 Ohoiñ orotarie salboan eçarri.
 Han haren plācer gucia,
 Nere oldez haguitz gutia,
 Bere ustez haguitz handia,
 Cen diru billitea bethi eta bethi.
 Gau-egunac çaramatçan
 Conda eta erreconda, bethi carculetan;
 Carcula eta conda, erreconda bethi,
 Yornaleaz hartu taxa bat iduri:
 Bere carculetan ceren
 Bethi cerbait escas baitçuen aurkiteen.
 Etcen gauça mirexgarri;
 Cimino handi bat baitçuen presiski,
 Çoiñac, haguitz çuhurrago
 Nere uztez seguric bere yauna baiño;
 Otchiñ cembait bethi, dostetaz beçala,
 Baitçuen botatcen leihotic campora;
 Eta nausiaren nahasten carcula.
 Gambara celacotz onxa gacotua,
 Aise çaiteken utz libroan dirua.
 Egun batez don Beltrani,
 Gogora citçaion yauxi,
 Cenaz eguiteco ofrenda urari.
 Nitaz den beçambatean
 Ercatcen ditudanean
 Chimino haren plācerac,
 Eta dirucoiareuac;

Nic ez nakike eguiazki,
 Nero hautua eman çoiñi:
 Izpiritu batçu laiste
 Naski don Beltranen alde,
 Baiña erratea certaco,
 Orai laiteke lucesco.

Egun batez beraz gure animaleac
 Bidegabe eguiten net laket duenac,
 Harturic metatic, orai ducado bat,
 Carraca bat, edo Luis bat orobat,
 Guerocheago ontçaco bat.
 Bere adrecia eta abala
 Frogatu nahiz beçala,
 Etchatcen cituen guero beso-gaiña,
 Hare leihotic bederazca,
 Metal-çathi hec guciac;
 Guiçon gaiçoec bethitic
 Gauça gucién gaiñetic,
 Desiratcen dituztenac.

Baldiñ ezbalu hare aditu siñean
 Gultça sartcen sarraillean:
 Ducado guciac, bide bera-gaindi
 Çorte berarekiñ citçaitzken gueldi:
 Eta oro Beltranec, azkenecoraiño,
 Ixasoaren çolara
 Hambat costa-eguitez-hain aberaxtura,
 Çuzken begalda-racico.

Fable hunec demaizkigu
 Beguitara bi exemptu:

Çointarie bata ez bertcea
 Çuhur ez baita hartcea.
 Dathorlacotz segur, bata erhoa ganic,
 Bertcea bestia-ganic.
 Çer da praticatu, beraz behar dena?
 Bien erdian datçana,
 Eta bietarie, berdiñ urrun dena.
 Dirua ezta behar, metatua iduki;
 Haiñ guti leihotic, camporat aurtiki.
 Nola behar tutçun, sobrac gobernata,
 Ebanyelioan, ikhasiren duçu.

FABLE X.^a


(5.^o DU LIVRE VI.^o)

OILLARRA, GATHUA ETA SAGU YTIPIA.

SAGU gazteino, eta deus guti yakin bat,
 Erori cen behiñ arte tchari baterat.
 Huna nola amari condatu cioen,
 Çer guerthatu citçaioen.
 Iragan eta mendiac
 Erresuma hunen mugarri direnac,
 Nindoala lastereari,
 Bere burua eracuxi
 Nahi arratoiña iduri:
 Aguertcen çaiçkit betbetan,
 Bi animalia hurbill aitecinean.

Bata arrai cen eta gocho ,
Bertcea harro eta khecho :
Hunec boça gogor eta clara çuen ;
Buru-gaiñean bæuen
Haragui pusca bat : bi besoz beçala :
Airetara altchatcen abiatecen cela ;
Plumaia eder bat beçala
Bustana çarabilcala.
Gure saguiñoac hemen
Oillarra çuen pintatcen ,
Americatic honera
Ethorrieaco gauça bat beçala :
Yotcen çuen , cion , harc gorphutça colpez ,
Bi aldetan bere bi beso çahalez ,
Hambat hox eta açantcekin
Non , goico graciarekin ,
Falta ezdudan arren curaya segurki ,
Ikharan bainintcen gan handie itçuri :
Bihotceez eguin ahala
Madaricatcen nuela.
Haren-gatic ecen , eçagutçac aise
Eguin nituzken nic animale bertce
Hain gocho iduritu citçaitan harekin.
Belusatua da gu beçala berdin ,
Pincardatua , eta buztana lucea ,
Modest becokia , humilla portea ;
Arratoiñ yaunekin nere ustea laite ,
Laster laitekela kide ;
Ecen ditu beharriac
Formaz guren iduriac.

Baniñdoacon aldera ,
 Noiz eta bertceac , botarie airera ,
 Izcola miñ bat luceki ,
 Egorri bainau ihesi.
 Sagu-amac derro hemen :
 Haurra , gathua cinduen ;
 Arpegui hypocrit , falxo haren pean ,
 Harrec bere bihotcean ,
 Çure casta guciari
 Gaitz nahi içan dio bethi.
 Bertce animalea aitecitic ,
 Hagnitz urruu guri gaitcie eguitetic ,
 Egun batez gure othuruntcetaco ,
 Yaki içan daite oraiño.
 Aldiz gathuari , gauça da yakiña ,
 Gure arraçac dio fornitcen cociña
 Egosia edo errekiña.
 Haurra beguirautçu duçuño bicia.
 Arpeguitic yendez yuya.
 Maiz bekhurundea , duenac belteena
 Harrec berac duke , arima ederreña.
 Aldiz hirria ezpaiñetan
 Eta arraicia cõpetan ,
 Dathorkiçun hura
 Bera duçu exai , handiena ardura.



FABLE XI.^a(17.^o DU LIVRE V.^e)

HERBIA ETA EPHERRA.

MALURUSEZ inoiz ezta burlatceco ,
Nore ecen derrake naiz urus bethico.
Herbia eta epherra lur berean lehen
Harturic egoitça , hauço bici ciren.

Bicia çaramaten han

Iduriz goço onean.

Baiñan egun batez , colpez hurbilduric ,
Ora multço batec egortcen du handic

Herbi gaichoa lekhora ,

Ihes-lekhu chercatcera.

Chilora itçuri badoa.

Gal-arazten ere diote arrastoa.

Milor ernea are da bera trumpateen.

Baiña berac bere burua du galteen.

Gorphutz berotutic darizeon lanhoac ,

Açer çaharraren sudur filosofac

Estudiatu baititu ;

Eta laster bere herbia eçagutu.

Kharxu badarraio : eta tambur sinac

Hala eztenic nihoiz erran eztuenac ,

Seguratcen du , herbia

Aspaldi dela yalguia.

Eta miserable hura
 Badathor bere chilora
 Azken baxa botateera.
 Epherrac, tronco-gaiñetic,
 Bere ustez net seguretic,
 Burla eguiñ cion; erranic :
 Haiñ abill hintcelacoa !
 Non tue hire oiñac, gaïchoa ?
 Horla hirriz dagolarie,
 Bere chaiñdea ethorririe;
 Atcemana da betbetan.
 Bere gagoan hare segura çadukan,
 Bere hegalez noiz-nahi,
 Lanyer orotarie çaitekela yalgui.
 Baiña eguitean contuac
 Ahantci cituen berac
 Buçoca yaunaren, atçapar cruelac.

FABLE XII.^a

(18.^o DU LIVRE V.^o)

ARRANOA ETA UNTÇA.

ARRANOAC eta untçac
 Utciric bere kereillac,
 Bakhea elkarrekin haiñ onxa eguiñ çuten,
 Elkharrî musu non eman baitcioten.
 Batec eman çuen hitça erreguerrena;
 Bertceac çre untçarena;

Etciotçatela aboro
 Umeac elkharri nihoiz irexico ?
 Batere ez guti, ez azco.
 Eçagutcen othe ditutçu nereac ?
 Derra hemen chori olio-çaleac.
 Ez, derra arranoac : hambat gaitztoago,
 Bertceac aldiz baderro :
 Heien larrua horlatan
 Sobra ez daucat segurean.
 Ustecabea içanen da
 Hetaric batere conxerbatcen bada.
 Nola erregue çaren, cer, ez nor daiteken
 Eztuçu consideratcen :
 Erregue puchantec bethi,
 Derrakioten cer nahi,
 Guciac beren oldean
 Dauzcate lerro berean.
 Nere ume gaichoac adiu !
 Atcematen baditutçu.
 Erraçu nolaco diren,
 Hemen arranoac derra, edo bederen
 Eracux dietçadatçu :
 Hau aise eguiñ deçakeçu.
 Ez ditudala unkituco,
 Hitz dautçut, bici naicciño.
 Untçac aldiz : nere haurrac
 Haguitz dire guisacoac,
 Ongui-eguiñ, eta ederrac,
 Bere kide orotan ascoz pullitenac.

Seiñale hortarie aise
 Çue eçagut detçatçuke;
 Ahantztetic beguirautçu;
 Gogoan haifñ onxa emaçü
 Non, çure bidez malura,
 SARTHUREN ez baita nihoiz ene etchera.
 Bada untz damari ceruac
 Eman ciotçan premuac
 Eta illhuntce batez celarie illkia
 Familla emearen billha hazcurria;
 Gure arranoac goietic
 Bertcerie gogoan çarabilcalarie,
 Begui-colpe batez ditu ustecabean
 Ikhusten çori-gaitcean
 Arroca-choco batçutan,
 Edo pareta tçar baten eilhoetan
 (Hoieç biçtarie ez baidakit çoiñtan)
 Mistro ttiki batçu haguitz ixusiçac,
 Tratchu eta moldegaitçac,
 Ema çahar boz batekin.
 Hare bere buruarekin:
 Haue eztire, derra, umeac
 Gure adiskidearenac:
 Detçagun elica direnac.
 Galaiaren othuruntçac
 Eztire ez erdizeçacoac.
 Untça cenean itçuli
 Causitu cituen choilki,
 Ume maithen atchaparrac:

Gaitico guciac, belas!
Sunxituac ciren arras.
Samiñki da errenecurateen,
Cerna duela othoitzten
Puni deçan brigant hura,
Haren gaitçaren autora.
Orduan untçari hemen
Dio norbaitec erraten:
Certaraco duçu pleiñta?
Cierorrena duçu falta:

Hobeki derradan, legue comuna da
Causi deçan bethi, nore bere duena,
Eder, maithagarri, eta ongui-eguiña.
Çue ciñon portreta hori,
Çure haurrez eman, arranb yaunari.
Hunen çaitekena falta
Falxoa bacen portreta?

Aita-amen artean, abal da untça franco
Bere umen gaincan, direnac ixusco:

Hauc badire ixusisco
Heier çaiçcote guisaco;
Eta guisaco badire,
Ederrago deus ez caic
Ume guisaco hec baiño;
Nahiago dute oraiño
Aditu bere umez, hauc direla gaitzto
Ixusi direla baiño
Nahiz içaitea hobe den segurki,
Eder gaitzto baiño, berthutos ixusi.

Eguiazco edertasuna
Baita berthutearena.

FABLE XIII.^a

(17.^a DU LIVRE II.^e)

PAONA YUNONI PLEINTACA.

PAONA lehen behin Yunon (*) Yaincosari
Pleini citcaion samiñki.

Pleiniiteeco, cerron, bai eta crasteco
Segurki badut motibo.

Emana çaitan cantua

Yende guciez da net mezpreçatua
Aldiz Rochiñolet chirtchilla horrena,
Bere tornutan da çusle eta ocenena;
Bera da ohorea primaderarena.

Yunonec coleraturic,

Erraten dio goietic :

Chori haicen bekhaitztia !

Ichil hobe huke atchiki mihia.

Hiri badagokikea

Rochiñoletaren boçaz yelostea ?

Ez haugüia eçarri hiri

Inguru lepoan oltçadarra iduri

(*) Yupiter, Paganoen Yainco gucién nausiaren es-
posa eta betan arreba.

Cherrenda bat ehun coloretacoa ?

Eta guibeleco hire abenicoa

Haiñ aberaxa , eta lilluratcecoa ,

Perlazco uztaiia iduri ,

Gucien begüen leguez choragarri ,

Astiz dukela çabalteen ,

Ez haiça morgaz hampatcen ?

Ceruaren pean badea choriric

Bistaco hi beçain agradagarriric ?

Animalc batec berac

Ez ditic dohaiñ guciac.

Eta gue inobre donu ,

Partitu dauzkitçuegu.

Batçner çaie eman tamaiño larria ,

Bertcer indarra handia.

Belatcha airean due hate ,

Arranoa animuz bethe :

Belea eguiña due oracletaraco ;

Aldiz Bele emea gaitça anontçatceco :

Eta guciac musicaz

Content caudec çoiñ bereaz.

Iebil-hadi beraz errencurateetic ;

Non ez , nie orai beretic

Hire punigarri ,

Yauntzcura eder hori ,

Khendueo daiat soñetic.

Horla handi nahi denac

Duenaz satifo , nihoiz ez dagonac ,

Eta eztuenaren , bethi gura denac ,

Lehen çuena ere , galtcen du maiz haiñac.

Eta nahi dena, bethi gan gorago
 Ardura da gueldituco
 Aitcinean çagon, beïño beherago.
 Horla gazte asco, Parisat doazi,
 Plaça edo diru han, nahiz ardiexi;
 Duten ondoan hec, luzaro iguriki,
 Pobreago handic, dire maiz itçuli:
 Leben cituztenac, baidituzte irexi.

FABLE XIV.^a

(17.^a DU LIVRE VII.^e)

SUGUEAREN BURU-BUZTANAC.

SUGUEAC baitu bi parte
 Çoiñac guiçonaren exaiac baitire:
 Buru-buztanac hec dire,
 Biac nola biac dire ospe gorean
 Erresuma goibelcan.
 Halaco guisaz non lehen
 Disputa handitan içatu baitciren
 Aiteiñean çoiñ ganen cen.
 Burua orduraino bethi
 Cen içan aitcinguidari.
 Eman cen buztana pleiñtaca cerura,
 Hunela mintçateen cela:
 Lecua asco eta asco ditut eguiten nic,
 Nausitcho hunen ondotic,
 Herrestan narraiolaric.

Uste duia horla bethi
 Nahi naicela ni bici?
 Mafua! horren cerbitçari!
 Yaincoari esker eeen eguiñ naute
 Horren aizpa, ez seguidante.
 Odol ber-beretic biac nola garen,
 Berdiñ gaitçatçu trata arren:
 Nic ere dudan poçoiña
 Da horrena beçaiñ lasterra eta fiña.
 Ez naiz aboro hedatcen:
 Horra cer dudan escateen.
 Oraï, çuri manatcea
 Dukedan nere çhaiñdea
 Aizpa buruaren abrean gateco;
 Haiñ ongui dut guidatuco,
 Non, ez baita içanen deusic errateco.
 Entçun cituen ceruac
 Ondicoz hunen botuac.
 Maiz haren complasenteçiac
 Baditu seguida tcharrac:
 Galde ixuer bethiere
 Eguiñ gorrarena behar liokete.
 Hala eguiñ etçuen hemen.
 Buztana aiticinean eçarria içan cen.
 Eta guidari berriac
 Egüerditan guehiago
 Labe beltz batean baiño
 Deus ikhusten etçuenac;
 Yoteen cituen aldizea
 Çioala ixa mandoca,

Gauça topatu guciac
 Marbola bat hemen, bideante bat han,
 Guero haritz bat hara-han:
 Etçuen hare onic ukhan,
 Non etçuen aizpa bertce aldera eraman.

Çorigaitz beraz segurki!
 Yende edo populuari,
 Buruaren plaçan, buztana guidari,
 Nihoiz hartcen duenari!
 Falta ez dakioker hari
 Trumbilca itçuliz-itçuli,
 Ondicoz-ondico bethi,
 Goatea airoski beheiti;
 Duken artio azken, lecea ardiexi:
 Ixua eman baitu, arguien guidari.

FABLE XV.^a

(18.^e DU LIVRE IX.^e)

MIRUA ETA ROCHINOLETA.

MIRU larroiñ famatuac,
 Loxatu ondoan urrun inguruac
 Has-araci ere oyhuca
 Herrico baurrac murruea:
 Çoriz atçaparretarat
 Erori citçaion rochiñoleta bat.

Primaderaren chantria

Dagoco galdez bicia.

Berdiñ cer khen ahal yaki

Soiñu baicen ez denari ?

Entçun eçaçu hobeki

Cantateera noatçuna :

Hura da Tereo (*), eta birrixa harena.

Tereo cer ? hura dea cembait yaki

On çaiena mirueri ?

— Ez, baiña erregue bat çoinec

Pasione tçarrez, su likix batçuec

Baitçanzkidan eracuxi,

Filomela deithcen mintecnean niri.

Casu hortaz nahi dautçut,

Aspaldi ikhasia baitut;

Istorio bat cantatu

Çoiña entçun nahi baduçu,

Charmatu behar baitçaitu.

Ezta animale, ez yenderie

Nere boça entçuten laket ez duenic.

Miruae orduan cion ihardexi :

Hau ederra dugu, pardi !

Barur gaitcean nagola,

Hathorkit musicaz niri mintçateera !

(*) Mende çabarretaco Erregue bat, ezcondua Proiñe Filomelaren aizparekin; eta hau bekhatara behartu çuelacotz, içatu ciren gambiatuac, Proiñe Enadara, Filomela Rochiñoletara eta Tereo has-oillarrera. Ordotic Rochiñoletari ematen çalo maiz iceua Filomela.

— Mintzateen nitzaieen segur printzeeri.

— Alta bada : erregue bati ,

Bethi asean denari ,

Escutara hauenean

Eguizeoc asti-onean

Hic hire condaira ederrac.

Baiña boietaz miruac ,

Burla eguiñen baicen eztiç:

Sabelgose denac eztiç beharriric.

FABLE XVI.*

(16.^e DU LIVRE VII.^e)

ANDREYERRA, LAPINA ETA GATHUA.

ANDREYER madama Yadot lapiñaren

Yaureguiaz egun batez yabetu cen.

Melecia baita dena ,

Aise eguiñ çuen hare lana.

Yabca behiñ etebetic

Ilkia cela goicetic

Sorropill lorexutara

Albari gorthic eguitera :

Orduan çuen cuchiañ

Bere menayua hare harat eramaz.

Albatu cenean phozki

Hara yauei , huna yauei ,

Eta bere yustac oro eguiñ ondoan,
 Etebeco alde Yanot contentic cen eman.

Hurbiltcean bada etchera

Andreyerraren sudurra

Aguertcen çaiç leihora :

Oy! ceru yustua! eer ikhusten dut nie?

Bere arbasoen etchetic

Casatu bestiac dio.

Hola! andereñua atchatcho

Tokia hux baciniro?

Non ez, meçu daiet egorrico laster,

Herrico arratoiñ gucier.

Andere sudur chorrotçhac

Ihardexi cion, lurrac

Etçuela bertce yaunic

Lehen bartçaillea baicie.

Arraçoiñ ederra, pardi!

Guerla emaiteraco niri!

Egon-toki bat çoiñtara

Sar erbaidaiteke bera,

Baicen lurrean herrestal

Erresuma balitz ere,

Mafua, yakiñ nahi nuke,

Cerran, çoiñ leguec dioken

Bethicotçat eman haren

Yabetasuna Yoanesi

Pitre edo Guillenen seme edo illobari?

Eta ez Yani edo niri?

Yanot lapiñac orduan

Allegatu çaiçcan betan

Costuma eta usarioa :

Horra , dio , bide net queenezcoa

Nauena egoitça horren ni

Bihurtu yaun eta nausi :

Seguidan pasa-racirie

Haurra-ganat aita-ganë :

Peilloe emanie Simunë

Guero hunec ni Yanoti.

Lehen arrapatçaillea ,

Leguea hobeia dea ?

Bada orai mococa hemen hari gabe

Bedi gure artean yuye ,

Diotça , Raminagrobe.

Gathu famatu bat hau cen ,

Ermitaua iduri çoiña bici baitcen ;

Gathu santanitucha bat

Idukia oroz saindutçat :

Belusapean sarthua

Guicen , yori , malxatua ,

Causa orotan espert haguiz aditua.

Yanec onbesten du yuyetçat enchean.

Biac billdu direnean

Mayestate orratu haren aitecinean ;

Gripaminoc baderroie :

Çathozte , haurrac , çathozte ,

Othoi , burbillago yar çakizkidate

Urthee arras gorthu naute.

Eta biac badoazco

Ezduelacoan deusic beldurtceco.

Ikhusi orduco menean partidac,
 Minotz apostolu onac,
 Etchaturic patac ezker-escuiñ betan,
 Net acort cituen eman :
 Bata eta bertcea clicaturic bertan.

Halaxu çaiote , guerthatcen ascotan
 Printcechca batçuer ere ,
 Çoiñec bere disputetan
 Erregueac harteen , baidituzte ynye.
 Ez nahiz elkharri , barkhatu gutia,
 Galtcen baitute gucia.

FABLE XVII.^o

(16.^o DU LIVRE II.^o)

BELEA , ARRANOA IMITATU NAHIA.

YUPITERREN (*) hegaztina,
 Hedoietaco erreguiña,
 Bebiñ bele hatec bada ikhusi çuen
 Cikiro bici bat goiera eramaten.
 Herbalago erraiñez, gormant hura beçain,
 Hare beçala nahi ukhan çuen eguiñ.
 Bada arthalde baten badabilla inguru :
 Ehun burutaric beguiz hautateen du

(*) Arranoa.

Ederrena, guicenena,
Sacrificiotan ofrei çaitkena,
Aho saiñduentçat berechia cena.
Bele fanfarrunac chitatcen beçala

Bi beguiez çaducala :
Etçakiat, cerran, lehen hic nor othe
Içatu duken unhide.

Baiñan orai nere ustean
Hire gorphutça duc ardura ederrean :
Asc-on baten gaia neretçat menean.
Hori cerralarie, abre malxoari
Hirrixan gaiñera laster çαιο yauxi.

Cikiroki creatura
Aurkitu çuen harc cela
Aphurbat pisueçago
Demboraco gasna baiño.
Haren illea oraiño
Baitcen lodi içan ahala ;
Eta nahasia hala

Ema hordi baten bilhoa beçala :
Içan ciren hartan baiñ engayatuac
Belearen atçaparrac,
Non chori tristeac ez baitçuen handie
Escapateeco lanyerie.
Badathor artçaiña : harturic, cayolan
Cerratçen du segurean :
Eta ematen daie laster
Dostagaillu bere baurrer.

Hasi baiño lehen lan eguiñ beharra,
Içar beça beraz, norc bere indarra:

Ez erran: bertcec eguiña

Ezta neretçat eciña.

Listorra iragan tokian

Badago uliteha ascotan

Eciñ iraganez bertan.

FABLE XVIII.^a

(7.^o DU LIVRE II.^e)

ORA-EMEA ETA BERE LAGUNA.

EGGITECO umeac ya muga ethorria,
Eta ez yakin non utz carga haiñ yoria:
Ora batec bada haiñ onxa eguin çuen,
Non erakharri hare laguna baitçuen

Prestatcera bere etchola,

Çoiñtan baitcen guero sarthu berehala.

Cembait dembora gan eta,

Prestatçaillea itçultcenda.

Ora-amac galdeteen dio

Hamabortz bat egun demotçan aboro.

Umeac ez çabillzcoken,

Cerran, haguitz nekhez baicen.

Beraz ardiexi çuen.

Birden termio hau iragan deneco,

Berriz galdetcera hura badathorco,

Bere etchea, bere guela,

Ohea, ciren beçala.

Oraicoan amae hortçae aguerturic
 Baderro fier barnetic;
 Nere troparekiñ illkitceera nago,
 Baldinçu baçare gai ni casatceco.
 Haurrac ya cituen eguiñae gothorsco.

Tçarrer emanicacoa
 Bethi da urrikitecoo,
 Non ez daducaçun chedean Yaincoa.
 Biltceco hetarie, çaiena prestatu,
 Maiz ukhalditara, behar da pasatu:
 Behar da çman hauci, behar eguin gudu.
 Utz-atçu etchean, escu bat hartcerat
 Laster dute berec, hartuco bertce bat.

FABLE XIX.*

(6.^o DU LIVRE X.^o)

OXOA ETA ARTÇAINAC.

Oxo carateraz haguitz ezti batec,
 (Halacoric baldin badu mundu hunec)
 Çuela egun batez gogoan ibilteen
 Çoin cruel hura aguerteen cen;
 Beharrae bakharric çarabillean arren:
 Sarthu cen barna eçarian
 Meditacione hūntan.

Aborritua naiz, diotça, eta nortaz?

Oroz eta batbederaz.

Oxoa exai publico da:

Billteen dire nere contra

Çacur, ibiztari, herritar guciac:

Yupiterrec beharriac

Gorthuac ditu gaiñ-bartan,

Ilaiuen haroaz betbetan.

Angueletarretic bide hortaz ere,

Gure anaiac oro sunxituac dire.

Gure buruac ciren haa

Eçarriac preciotan.

Baserritan ezta noblechea simpleric

Hesu gure contra bandoa ez demanic:

Ilaur bat bada oyhuz hasten

Amaç oxoaz du fite mehatchatcen.

Eta hauc oro cergatic?

Cikiro ustel cembaiten,

Asto çaragarxu baten,

Edo ora eihar baten gatic,

Çoiñen gostuz iñoiz, derradan egula,

Baiduket pasatu nere fantesia.

Eh bien! dugun ez yan aitiña homendic

Bicia duken gauçarie.

Gaiten haz belharrez, eta gaiten alha

Cikiro casta beçala;

Edo lehenago, gaiten gosez fiña;

Gauça dea haiñ samiña?

Eta oraiño hobe dea

Gucien higuintça bere-ganateca

Hitz horieci erratean,
 Ikhusten ditu hara-han
 Artçaiñ batçu bildox baten
 Guerrenean biracateen,
 Guero hartaric aseteen.
 Oh! dio hare horren bistan,
 Senti dut nie escripula,
 Arraç horren odola
 Isurtcen dudalacoan.
 Horra hoien goardariac
 Hoitaric non diren aseteen guciac
 Berac eta beren orac.
 Eta oxoac, nie gaiçoki
 Beharco tut guphidexi!
 Ez alafede bargatic,
 Nitaz holaco hurriric.
 Mattiñ arcume yoria,
 Iduriz guri-guria
 Despedituco dut site,
 Guerrenean içan gabe:
 Ez bakharric hura, baiña
 Errapea demon ama,
 Baita are aita dukena.
 Oxoac arraçoïn çuen.
 Gu beraz gare ikhusiren
 Harteen yateco cer nahi
 Abere, acinda edo chori;
 Eta hec nahico tugu
 Aleguiñaz obligatu

Yanari simple hetara
 Urrezco mendecotara! (*)
 Eta egon beharco dire
 Croca eta tupiña gabe!

Artçaiñac, artçaiñac, hor ikhus açue;
 Oxoac bada ezta, nihoiz ere obenie
 Gaiña ez duenean baicie.
 Ala nahi cindukete
 Bici lediñ bethiere
 Ermitaiño baten pare?

FABLE XX.^a

(5.^e DU LIVRE X.^e)

TRESOR GORDETÇAILLEA ETA BERE CONFIDENTA.
 Sos chikitatçaille trätulari batec
 Billedu çuen diru haiñ bertçe, non barree
 Ya non gorde ez baitçakien :
 Abaricia nola den
 Inorantciaren aizpa eta laguna ;
 Hare çuen gure guiçona
 Griña handian eçarteen,
 Bere sosac nori fida ciotçaken :
 Nombait seguratu nahi baitcituen.
 Eta arraçoña hau çuen :

(*) Hastapeneco dembora inocent hec, çoinetan
 aiçonac ezcurrez eta barateccariez baitçiren bici.

Gauça da baguitz tentosa:
 Baldiñ nere etchean hec iduc banetça,
 Nere ontasunaren laster ebastaille
 Nihaur billhaca ninteke.
 Cerorren oboiñ! cer! beretic hartcea
 Içan daiteke ebaxtea?
 Adiskide, çaitac net urricalgarri
 Enganio handi hori.
 Nahi deraiat nic orai irakaxi,
 Eztuela urreac nihoiz halioric
 Batetic bertecera dabillala baicie:
 Bertecenaz, ez on bat, baiña gaitz bat dela.
 Ala nahiago duc gardatu hura,
 Urthe eta egun hetaraco
 Çoiñetan deusetaraco
 Ez baitçaic baliatuco?
 Billteraco hartu behar çen nekheac,
 Eta goardatecco grifac,
 Khentcen çaieç urreari,
 Haiñ baitezpadaco didurienari,
 Bere precio gucia.
 Bere buruari lan horren anxia
 Lanyer gabe khentceraco,
 Errechki cituzken hanc ediren asco
 Yende segur hortaraco:
 Nahiago içan çen lurrari fidatu;
 Eta hortaraco confident bat hartu:
 Hunec bozki laguntcen du.

Enterratcera badoaz

Tresora lurpean beraz.

Iragan denean aphur bat dembora,

Guiza badioa hara

Bere urrea ikhustera :

Baina eztu causitcen ohatcea baicie.

Bere confidanta leguez suspitchturic ,

Erratera badoaco :

Prest çaude , manech , biharco ;

Bertee cembait sos oraïño ,

Baditut han eçartceco.

Confidanta berehala

Badoa toki hartara

Ebaxi dirua harat itçultcera :

Ceucala ordutic gogoa ,

Lehengoa eta oraicoa.

Goratceco metla osoa.

Baiña oraicoan hargatic

Bertcea içatu baitcen abillenic :

Gucia baitçuen eramán etchera ,

Deliberatua han idukitcera ,

Eta hartaz goçatcera.

Ez aboro metatceric ,

Gutiago enterratceric

Egon cen larroin gaiçoa

Ez edirenie magoa ,

Net illundua bekhoa.

Eta eracuxten daucula
 Gauça bat haiñ gaitça eztela,
 Batçutan trumpatçaillea
 Bere saretan hartcea.

FABLE XXI.^a

(22.^e DU LIVRE VIII.^e)

GATHUA ETA ARRATOINA.

Piñu çahar baten trunco huxaldua
 Cen laur animale motez hantatua :
 Çoiñec berdiñ turnatua
 Baitçuten izpiritua.
 Untz olio-çale cen goico estaiean,
 Gathu gasna-çale beherbeherean;
 Andreyer guerri-luçh gathuaz gorago,
 Hortz-chorroteh arratoiñ, untçaz beherago.
 Arrax batez oro billduac çaudela.
 Guça bat gan cen, arbola
 Sareaz inguratcera.
 Gathua illki cen iebilie
 Yaki cherca goiz-goicetic.
 Nola ez baitcen arras argui
 Sarea ez çuen ikhusi.
 Tristea sartcen da hartan
 Hilltecco lanyer handitan

Hasten da laster oyhuca :
 Arratoiña site badathor lasterca.
 Bat dago desolatua ,
 Berteca aldiz net boztua
 Ikhustearekiñ sarean çatçana
 Bere exaie handiena.
 Gathuac humill baderro :
 Ene maithea , on nahizco
 Badiat hi-ganie yadan froga franco.
 Athorkit bada arren ,
 Lagun naçac yalten
 Sare hunen cartcelatic ,
 Çoiñtan ez-yakiñac sar-araci bainaie.
 Titchaz eta leguez oraidiño haut nie
 Hire kidetan bakharric
 Amulxuki menayatu ;
 Begui-ñiñiaren pare ere maithatu.
 Hortaz doluric eztiat ,
 Ceruari ere eskerrae ciotçat.
 Eguitera nindoaken
 Gathn debot oroc nola usateen duten ,
 Nere goiceco othoitza ni :
 Sare hunee eztié nahi.
 Hemen nagoe preso eciñ itçuria ;
 Hire escuetan due bada ene bieia.
 Athor , corapillo haue , othoi , urraz-kie.
 Eta emanen dautac hortaco sariric ?
 Erraten dio arratoiñac.
 Bai , segur derro gathuac.

Patu eternal bat oraitie hirekiñ

Eguinien diat eiñekiñ.

Nere atçaparra bethico

Dadiñtçat hire meneco :

Eta hortaz segur ago.

Andreyerra nere cinteçurra behera

Ganen due , baita untça bera :

Hire exaiac dituc biac nola biac.

Tontoa ! derro arratoiac :

Hi bai nere aldecoa !

Ez naue eiki haiñ astoa.

Badoaco guero handie.

Bere etchera doalarie ,

Causitcen du andreyerra

Chilotie hurbill errara :

Gorago badioatçu

Aldiz han untça aurkitcen da

Alde orotarie lanzerac :

Badarama herstuenac.

Matchica-belari bihurtcen da siña

Gathu presunera-gana.

Eta hariz-hariz hauxten du saretie

Maill bat : eta laster bertce bat ondotic ;

Eta hortz chorrotebez haiñ travaillateen da

Non libratcen baitu bada hypocrita.

Guiça aguertcen çaie orduan yustoki :

Patu eguilleac badoaz itçuri.

Dembora bat gan dencan

Gathuac ustecabean

Urrundie bere arratoia

Çagola ikhusten du erne eta atçarria.

Oy! anai, athorkit, dio, besoetarat;

Hire mesfidantça laido duc enelçat:

Patuz elkharrekin kideturie ere

Exai naducac halere!

Penxateen duca nie ahantci dudala,

Yaincoaz guerostic hiri çor handala

Içaltea orai bicirie?

Arratoiñac aldiz: eta uste ahal duc hic

Dudala nie arras gogotie galdua

Nolaco den hire temperamendua?

Badaitekeia paturie

Gathu bat eskerti bibur deçakenie?

Eta errateco fiñcan,

Nihore othe du condatcen

Eciñ bertceez eguiña den

Acordu baten gaiñcan?

FABLE XXII.*

(18.^e DU LIVRE III.^e)

GATHUA ETA ARRATOIN ÇAHARRA.

GATHU famatu bat baecn.

Rodilardo cen deithatcen,

Gathuen Bonaparte cen.

Arratoiñ burreu haudia ,
 Gaitça cen hare desmasia
 Heien artean eguiña.
 Munduaren asken-fiña,
 Çaducaten ethorria.
 Taula pisu altchatnac
 Doiean chotch batec airean dauzeanae ,
 Poçoindatu yanariae ,
 Bertee arte'guisa guciac ,
 Etciren dosteta baieie
 Harekiñ comparaturic.
 Ikhusirie beraz saguac çaudela
 Bere chiloetan presuner beçala
 Aguertcerat choil bat eteela atrebitcen
 Ihicira cela alferreta illkiteen :
 Nota baitcen maltçurrena ,
 Eguiten du hillarena.
 Goico soliba batetie
 Baruaç beheiti dilinda yarririe :
 Aciñda fricunae cordel buztan hati
 Oñ bat cion iratchiki.
 Arratoiñen populuac
 Penxatcen du han gathuac
 Aurkitu duela bere caztigoa ,
 Eguiñ duclacotz ohi ebaxcoa
 Gasnatic edo errekitie :
 Norbaiti çarrapo eguiñie ,
 Edo bidegabe cembait causaturic ,
 Han dela fiñean gaitztaguñ handia
 Onxa urkhaturic utcia.

Oroc, diot, dute berdiñ
 Uste birriz leher eguiñ
 Haren enterramenduan
 Aspaldi desiratuan.

Sudurra chilotie oracuxten dute :

Guero aphur bat burua ere,
 Guero barnat sartcen dire,
 Guero illkirie oraiño ere,
 Urhax cembait bademate :

Baina hemen besta chanyatcen çaiote.

Urkhata-çaiie phitzten,
 Laur atcen gaisiera yauxten,

Eta naguienac ditu arrapatcen.

Badakigu holaco asco
 Yaten hari dela, dio;
 Bego guerlari çabarra :
 Çuen chilo huxetara,
 Ganen çarete alferretan,
 Han salbo çaitelacoan :
 Huntaz net segur çaudete
 Oro escuraco çarete

Eguia erran çuen : badu anteo asco

Guro yaun Mitiseç (*), bigarren aldico,

Hec yoca eta trumpatceco.

Ihausiric iriñean,

Çuritcen du soñña hartan;

(*) Latinez, *extia*, *malzoa*.

Eta arras desguisatua,
 Cena biribilcatua,
 Maira çabaldu batean
 Emaiten da erdi-erdian.
 Oste urhax chehetacoa
 Badathor den burchoroa,
 Bere maluraren billha.
 Arratoiñ bat da choil-choila
 Ez doana ingurutura
 Sudurraz travaillatcera:
 Parratchicu çahar bat cen;
 Asco itçuliren harc berri baçakien:
 Are batailletan buztana utci çuen.
 Iriñez estali bula çuri horree,
 Derro urrundie oyhuz harree
 Gathuen yeneralari:
 Deus onic ez çautac erran nahi niri.
 Beldur nauc hor ere oraiño
 Badeia cembait arteiño.
 Alfer duc içaitea iriñ:
 Çacu bahinte ere eguiñ
 Ez nitçaikec hurbill berdiñ.
 Harc ederki erran çuen;
 Haren prudentcia dut net aprobatcen:
 Çuhurtcia falta etçuen.
 Eta baçakien segurantça dela
 Mesfidantçaren alaba.

FABLE XXIII.ª

(13.ª DU LIVRE X.ª)

LEHOISA ETA HARTÇA.

LEHOIÑAREN damac lehen
Bere umea galdu çuen;
Ihiztari batec eramán cioen.
Ama malurusac orho haiñ handia
Eguiten çuen, non oyhan cen gucia
Bai ceucan iharrosia.
Çauac, ez hunen goibelac,
Ez hunen ichiltasunac,
Ez bertee dituen charmee
Etceçaketen guciee
Bara araz garabie
Açantça eguitetic,
Oyhanetaco erreguiña:
Haiñ çuen dolu samiña.
Eteen animaliarie
Beguirie heç ceçakenie,
Hartçae finean baderro:
Comai, hitz bat, ez aboro:
Ume maite heç guciec,
Çure hortcetarie iragan direnec,
Baçutena aita eta amariç?
Baçuten, ezta dudariç.

Bada hori horla bada ,
 Eta heriotce hec gucietarie
 Choil bakhar bat ere ezpada
 Burua hauxi daucunie ;
 Hambat ama egotu badirade ichilie ;
 Ichilie çu ere cergatie etçau de ?
 — Nagon ichilie ni ! belas ! ez nagoke :
 Naicen burhaso tristea !
 Galdu dut nere semea !
 Çahartce titehacabena
 Da iragan behar dudana !
 — Erraçu, eta cerc hortara çaitçake ?
 — Çoriac segurez ere ;
 Exai baitut bethiere.
 Oroc mende gucietan
 Hitz horieç berac dituzte eçpaiñetan.

Guïça-ume miserableac ,
 Hau çuer doakiçue :
 Pleiñtarie funxgabeenac
 Bethi badarizkitçue.
 Çuen maluretan ere
 Conxola eciñ çaitzekete.
 Fedea, centçua, lagun ditutçue ,
 Halere gaitçetan kharrie ez duçue :
 Hambat arguirekin bethi ixi çaudete ,
 Hambat laguntcekin herbal bethiere :
 Bertce bicitce bat sinhexten duçue ,
 Nola eçpalitz beçain lurcoiac çarote ?
 Cer balio çuen ez sortcea abere ?

FABLE XXIV.ª

(49.º DU LIVRE IX.º)

ARTÇAÏNA ETA ARTHALDEA.

CER! bethi faltatuko çait
 Oste erguel huntaric cembait!
 Eta oxoac bat edo bat
 Eramanen daut triparat!
 Certaco ditut condateen?
 Millez gorago baciren,
 Eta guciec halere
 Galtcera utei dautet Pette:
 Pette chikiro maithena,
 Ogui-achal baten-gatic
 Hirian baçarraitana,
 Munduz-mundu ere phocie,
 Seguituco ninduena.

Ay! ay! nere Pette chikiro maithea!

Gnillotee hola hill-oracionea,

Çuenean acabatu,

Eta Pette gaichoaren

Orhoitçapen maithearen

Iraupena seguratu,

Mintçatu citçaion bere arthaldeari,

Aiteiñdari, oste, bildotchei bereri;

Cituela othoitzten gogor eguiteaz:

Hori bera askico eutela eguiaz,

Oxoac oro arruntceco
 Hauc populu ohorezco
 Baten hitça bademote
 Oroc segur eta firme;
 Segurki hec muguituco
 Ez direta guchiago
 Muga-harri batçen baiño :

Ihoco ere dogu, derrate, gormanta,
 Pette gaichoaren eramaille ausarta,
 Badema fiador nore bere burua;
 Guillotec sinhexi çuen populua :
 Eta eguiñ cioten besta eskerrezcoa,
 Naski belhar fiñezcoa.

Hargatic arraxa yin cen baiño lehen,
 Oxo bat aguertu baitcen,
 Arthaldea ihesi gan cen :
 Oxo etcen : etcen itçal choila baitcen.

Soldadu tcharrei harenga eguitca,
 Ikhatz ethenduer da haice emaitca.
 Lanyeretic urrun fanfarrunen dena,
 Bethi da casuan soldado tcharrena.



FABLE XXV.*(3.^o DU LIVRE X.^o)**APOARMATUA ETA BI AHATEAC.**

APOARMATU bat cen cocheco arifitecoa ;

Eta unbatua bethi çaiñtceaz chilloa :

Ikhusteco mundua hartcen du gogoa.

Toki arrotçac bethi dire gustagarri :

Nahi hori hebainec etchea utci nahi :

Ahate biec, çoiñer comaiac baitçaien

Erran cer gogo çukeien ;

Ihardexi cioten, hec haren asera

Eguifien aise çutela.

Ikhusten duçu hor bide çabal hori ?

Biec eramanen çaitugu hor gaiñdi ,

Ameriketara airetan :

Eta dembora bereran

Ikhusico duçu republica franco :

Erresuma eta yende asco :

Eta hetaco usantceç ,

Ikhusico ditutçuneç ,

Çare çu probetchaturen.

Colomboc (*) hala eguiñ çuen

(*) Christobal Colomb, untci capitaiñ ospatua, duela laster hirur me nde eta erdi americaco leihorra descubritu çuena.

Etçaiten hambat igurikitceco
 Segur aurkitcea hementche Colombo.
 Apoarmatuac proposicioa
 Aurkitu çuen net acetatcecoa.
 Tratua eguiñ eta, begaztinee bertan,
 Trabaillatuz herresacan,
 Mecanica abill bat laster dute eguiña
 Airetan goateco gure pelegriña.
 Emaiten diote trebescara ahoan
 Çaro bat horteen artean :
 Tinki, derrote, atchic-açu,
 Utz itçurteera behautçu.
 Çuero bi ahateec elkhar adituric,
 Harteen dute çaroa buru banetarie,
 Eta apoarmatua denean goiera;
 Yendeac oro daude harrituac beira,
 Guisa hortan yoaiten ikhustearakiñ
 Animale năguia bere etchearekin.
 Hau cer da! cioten guciec oyhuca :
 Çathozte ikhustera, çathozte lasterea,
 Apoarmatuen andere erreguiña
 Dioana airoski hedoietan barna.
 Erreguiña bai segurki,
 Hala naiz ere eguiazki;
 Çuec burlatcea ezta azki.
 Harc hobeki eguin çuken
 Bere bidean gan bacen,
 Deusic ez çuela erraten.
 Ecen hortçac idekirie,
 Çaucan bastoia itçuririe,

Erorteen çaic, begüira
Çaudecener oiñetara :
Eta du mement berean
Leher eguiten han bertan.

Imprudenteia eta banitate ariña
Hitzketeria eta curiosasuna,
Ahaide hurbillac dire :
Hascasi bereco haur dire bedere.
Ichilie egonac nehor ezta galdu,
Baiña erasteac bai husu.

LIBURU BORTZGARRENAREN ACABANTÇA.

LIBURU SEIGARRENA.

FABLE I.^a

(2.^o DU LIVRE X.^o)

GUIÇONA ETA SUGUE IXUA.

GUIÇON batec sugue ixu bat
Ikhusi çuen behinbat.

Haicen gaichtaguiña, dio, ni hementeh
Noac eguitera oraiñtche,
Obra bat laudatecooa,
Ororen gogaracoo!

Hitz horietara animale tçarrac
(Sugueaz naiz hemen mintço

Ez guiçonaz : aise trumpa laitezke asc
Hitz hoietara sugueac

Bere burua uzten du atçamatera ;

Guiçac hartu eta sartcen du çacura,
Eta cerratcen çacua :

Areago den casua,

Emana da sententcia

Hill behar dela bestia ;

Duen oben edo ez duen :

Baiña gauça horri jarren

Cemon aphur bat colore,
Arenga hau cion hare eguiñ halere :
Hail eskergabeen modela baicena !
Gaitztoen aldera on dena
Duc beretçat gaiçoen.
Hill behar haiz : hire colera eta hortec
Daiñuric eguiñen nihoiz ez çautatec.
Sugue malurusac aldiz bere erdaran
Ahal beçaiñ molde onean :
Baderro : baldiñ munduan
Ingrat laitezkenac oro
Balituc condenatecco ,
Nori laitec barkhatecco ?
Hihaure heure buruari
Democ leguez hemen hauci ;
Ni uagoc herorren lectionetara :
Içulz kie beguiac herorren gaiñera.
Escuetan daucac hie nere bicia ;
Trenca çac haren haria.
Placera , intresa , nahia ,
Horra hire yusticia.
Legue hoien arabera ,
Condena naçac hillteera.
Ez bekie bargatic gaitci ,
Fiñatecan hoñ tristeki ,
Derraiadan nie francoki ,
Eskergabeen modela
Segurez suguea eztela ;
Aicitie guiçona dela.

Aditcean hori, guiça da tricateen,
 Urhax bat ere du guibelat eguiten.

Baiña azkenean baderro :

Ilhaunac dakhartçac arraçoïña orot :

Decida ahal niroc : badiat nic dretche,

Baiña emagun norbait yuye :

Bai, dio berteeac ere.

Behi bat han çagon : deiteen dute bertan,

Eta badathor cuchean.

Hedateen çaioc casua ;

Gaitça eteen hunen trempua.

Balio çuena, dio, horren-gatic

Deithcea ni' hara-handic ?

Sugueac du arraçoïña :

Disimula da eciña.

Ya urthe asco baduela,

Guti guicentcen naicela,

Hari naiz hunen neurritcen :

Egunic ezta iragaiten

Non ez diodan nic on cembait eguiten.

Guciac horrentçat dire,

Nere esnea, haurrac ere ;

Mercatutic horrec bethi,

Escuac dakhartça betheac ederki.

Osasuna bera nic diot bihurtu

Urthec çutenean tristea herbaldut :

Eta ene pena gucien,

Chede bakharra da, horren

Placera procuratcea

Edo beharra estaltcea.

Baiñan orai çahartua
 Naduca abandonatua
 Çocoluan, belhar gabe :
 Uzten banifidu bedere
 Nihaur alhara nioan !
 Baiña han naduca estecan.
 Eta içan banu nausitçat ;
 Ilorren plaçan nic sugue bat,
 Ilau nihoiz haiñ eskergabe
 Çakikedana aguer othe ?

Adiu : nic erran dut nere iduria.
 Guiçac mirexirie haguitz sententcia,
 Sugueari derro : behar da sinhexi
 Elhe-çacu handi hori ?
 Ez dakike cer darasan ;
 Centçuric eztu cascoan
 Deçagun sinhex hobeki
 Ilor dathorren idi hori.
 Sugueac derra : biz hala :
 Eguiten da erran beçala.

Idia badathor urhas bakhanetan :
 Gauça duenean ibilli copetan
 Laster baderra : guretçat
 Urtheç dirauten beçambat,
 Bethi urthe oroz orobat,
 Nekhe handienac badaramatçala :
 Erlacharie gabe curriteen duela
 Pena dorpheenen saillic luceena,
 Bururat orduco berriz hasten dena ;

Coiñen bidez gure hildo aberaxtuec,
 Bertcela hux lagozaenec,
 Guizoner baitaie emaiten,
 Cario aldiz hoier saltcen;
 Nekhe hoiee ororentçat
 Hoiee diren gucientçat
 Ez dela saritçat densie
 Ukaldi, sistaco nasaienae baicie:
 Aldiz eskerric batere.
 Hargatic guero, halere
 Aski hoientçat ohore
 Çaicula, guicendu ondoan aphur bat,
 Mercatuz-mercatu goatea mustrarat;
 Guero carniceriarra,
 Finean bandien estomaketara.
 Horla idia mintçatu cen.
 Guicac hemen erran çuen:
 Dugun erasle unhagarri,
 Frasa eder eguille hori,
 Ichil-araz nozpait : ecen insolenki,
 Hartu guinduenta yuye
 Itçultcen da acsatçaille.
 Hori ere ez dut onhexten.
 Yuyetçat çuhaitça dute beraz hartcen.
 Baiña areago içatu cen.
 Hunec prestic bethiere,
 Beroaren, uriaren,
 Eta haice furiosen
 Contra baceman guerice.

Hunec , alhor , baratceac
Gureţcat bakharric daduzca edertuac ;
Cargatcen da fruituz ere.
Hoien pagut at halere ,
Peisant batec du picatcen
Edo  erhotic atheratcen :
Horra cer duen harc sari,
Nabiz urthe orotan bethi ,
Bademaizcun yeneroski
Loreac uda hastean ,
Fruituac negu sartcean ;
Egun berotan it ala ,
Hotcet an behar be ala
Su-phazterreco placera.
Cergatic ez ichadarra
Hartu gaberie haizeora ?
Berenaz orai o cen bicitcecoa.
Gaitcitua guiconttoa
Err an cit aizcon eguiez
Eci n ukha cet akenez ;
Nahi i an  uen haucia ,
Baitezpada irabacia.
Ongui naiz , dio , simplea ,
Nic horiee ent entea !
Harturic  acua barnecoareki n
Emaiten  ait u hareki n
Ukbaldie a paretari ;
Eta horla hill-araci
Suguea  uen cruelki.

Handiac holaco dire;
 Eguia gaitciteen çaie.
 Buruan hartua dute,
 Guciac heientçat, yayoteen direla
 Guiçac, bestiac beçala:
 Baita are sugueac ere.
 Baldiñ badu nihore atherateen hitcio,
 Asto bat da: aise dut, aithorteen hori nie:
 Baiña cer eguiñ ordutic?
 Eras urrunscotic, edo egon icbilic.

FABLE II.^a

(21.^o DU LIVRE VI.^o)

ALHARGUN-GAZTEA.

Ezta alharguntçaric nihoiz auzen gabe;
 Eguiten da abarrox behiñ bethiere:
 Baiña hichten da balere.
 Demboraren begaletan
 Changriña badoa airetan:
 Demborac badakhartiz placerac berritan.
 Oraí urthe bethe alhargundu cena
 Eta atçotie hala dena,
 Haguitz dire diferentac;
 Ez laite erran haiña bat direla biac
 Hunec tu egorteen yendeac ibesi
 Harrec bere charmez deithecetu arraiki:

Badu hunec auben asco

Aleguia edo ciñezco:

Bethi musica bera da,

Bethi bera da hitzketa;

Ecín daiteke conxola,

Bedere erratenda hala.

Baiñan ezta holacoric,

Ondoco fable huntarie,

Are esperienteiatic,

Ikbusico den beçala.

Dama eder baten senharra

Baçoan bertee mundura.

Aldean çagocon sabex penatuac

Oyhuz cerron : Igurie-ac,

Ni ere hirekin betan banjoac;

Eta nere arima, hirea beçala,

Çagoc ciñez bere ohateea uztera.

Senharra bakharric gan cen.

Damaç aita bat baçuen

Net prudenta eta çuburra:

Utei çuen pasatcera

Dolu miñezco ibai bura.

Alaba azkenean nabiz consolatu,

Baderro : Aubenac uz-kitçu;

Negarric aski eguiñ duçu.

Cer duke probetehu difuntu gaichoac,

Ithoric ere çue horla çure charmac?

Badirenaz guero oraiño bieiaç,

Ahantzera uz-kitçu hillaç.

Eztut erran nahi orai berehala ,
 Çorte hobe batec eztei berritara
 Chanya deçan çure dolua betbetan .
 Baiña ephe yustu bat denean iragan .
 Proposa dakiçun ez bekiçu gaitci ,
 Çure ona-gatic segurki ,
 Espos bat içandun , gazte , guisacoa ,
 Gan dena ez beçalacoa .
 Ah ! diotça harc samiñki :
 Ya comentu bat çait espostçat comeni .
 Utzten du bruma hau aitaç pasatcerat .
 Hola iragaiten da ill bat .
 Bertcea aldiz da pasateen
 Egun oroz cerbait kbenteen ,
 Soiñari , linyari , baita cofilari :
 Aphaiñdura laster doluaç diduri .
 Dostetac eta hirriac ,
 Dantçac eta erbokeriac ,
 Egundañño beçaiñ billhatuaç dire :
 Goiz-arrax maiñateen gare
 Yubantciaco uretan (*) ,
 Aita onac cre eztu yadan
 Difuntu haiñ maithe cenaren beldurric :
 Baiña ez baitcerraç harc deusic

(*) Ithurri bat , çoiñen urec baitçuten , çahartua ber-
 riz gatzetceco berthutea . Baiñan ithurria , nihoiz poeten
 edo berxolarien cascoan baiciç içatu eztena .

Ahoro gure ederrari;
 Baderro berac aitari;
 Eta non duçu guiçona
 Gazte, eder eta içan duna
 Aguintu eiñautaçuna?

FABLE III.

(9.º DU LIVRE XII.º)

OXDA ETA ACHERIA.

NOLAZ ezta nihor content mundu huntan
 Ez nihor satifo duen estatuan?

Batee soldadu gan guciz nahi liro;

Aldiz soldadua haren yeios dago.

Acheri bat lehen, omen,

Oxo eguiñ nahi içan een.

Ha! eta nore ahal erran

Eztela içatu seculan

Han edo hemen oxoric

Desiratu dukeienic

Cikiro oficioa?

Baiña deçagun has gure istorioa.

Acheriac cion erran oxoari:

Maithe, yakitçat ya eztiat aspaldi,

Oillar çabar edo oillasco tchar balcic:

Yaki hunec unhatu naic.

Bici batçait hobeki hi

Gutlago lanyer dukala segurki:

Hurbillteen nauc etchetarie;
 Bahagoke bi urrundie.
 Eracux deçadac beraz, ó kide, arren.
 Hire oficioa nola den eguiten.
 Bihur naçac nere castaco lehena
 Cikirorie guicenenena
 Crocatic dilindan ukhanen ducena.
 Ez nauc segurki beharco
 Eman ingraten nombreco.
 Biz, dio oxoac : hill çaitac anaia bat,
 Goacen hura den tokirat
 Haren larrua biltcera :
 Hau harturen duc soñera
 Yoan eizen : orduan oxoac baderro :
 Huna cer den eguiteco
 Ora arthaldecoac urrun-arazteco.
 Acheriac çuencan
 Eman larrua soñean;
 Contuz bere nausiaren
 Lectioac oro ehuchen,
 Cituen ahalaz harteen.
 Hastean lothu cen gaitzki,
 Guerocheaga hobeki
 Guero ongui, guero perfetki-
 Ikhasi citueneco,
 Arras ezpada, onguisco
 Il re yñketeoac oro;
 Arthalde bat aguerteen da-
 Fite oro berria badoaco bada :

Inguru guciac betan
 Tuela ematen ikharan.
 Oste marracariari
 Hain icipera denari,
 Badirela diduriço
 Bedere berrogoi oxo.
 Çacur, artçaiñ eta ardiac
 Hirirat ihesi badoaz guciac.
 Eta ezta bahi guelditcen
 Ardi golatu bat baicen.
 Brigantac hartcen du site.
 Handic hainitz urhax gabe,
 Aditcen du cantaz oillar hauçoco bat
 Berehala haren ganat
 Yauzten da dicipulua,
 Aurtikirie capa, escolan hartua :
 Abantciric cikiroac
 Eta hartu lectioac,
 Bai eta yaun errienta,
 Urraxac hatteric, goau een herresaca.
 Certaco desguisa norc bere arpeguia
 Certaco har bertee baten iduria?
 Hau ezta enganio baicen;
 Luçaro ez baitu irauten :
 Lehen urhaxcan ecen,
 Aitciñean cena, da bethi aguertcen.

FABLE IV.*

(10.* DU LIVRE XII.*)

LANGOSTA ETA BERE ALABA.

ÇUHURREC ascotan, iduri langosta,
 Curritcen dute guibelca;
 Portuاري itçultcen ere maiz expalda;
 Mariñel abillen usaia hori da.
 Hori da oraiño asmua
 Bertce ascoc praticatua,
 Nahí dutencan exaia enganatu,
 Eta colpe handi cembait seguratu,
 Pontu batetara exaia deiticea,
 Eta aldiz bertcetie yocoa eguitea.
 Eguiten da ascotan isti
 Saltatecotçai hobeki.
 Baiña lot gakizcon gure fableari.
 Langosta amac behiñ cerron alabari:
 Nesea, cer dun planta hori?
 Cerua! cer! hori dun bada ibiltcea?
 Hobekicheago cer! ez habilkea?
 Ama, derra alabac, nabill çu beçala;
 Eztut ikhusten nic ibiltcen bertceala
 Nehor gure famillatie:
 Oro hartan oker dabilltçan pontutic

Nahi duçu bada ni nabillan chuchen ?
Nescae arraçoîña çuen.

Etcheco exempluac ahal handia du :
Gazteac segurez hanc egniten ditu
Çuhur edo çoro, deboch edo prestu.
Aita hordi batec, seme arloteari,
Ama lele batec, alaba ariñari

Nondic eguiñ erreportchu ?
Edo erreportchuac nondic duke efetu ?
Seme arloteac baderroke aitari :
Erratea deusic ez doatçu çuri ;
Çaitudaneco nie ikhusten hordia,

Ya gangan dut egarria.

Alabac aldiz amari :

Cer ! çue erreportchu niri !

Ez ahal ciñen ceroni

Ni beçain ariñ gaztean ?

• Etçare ere casic hala çabarrean ?

Nola chitoec amekiñ

Cabazca duten ikhastē ;

Hala umec burhasoekiñ

Ikhasten dute biciteen :

Chuchen edo oker ibilltēa.



FABLE V.^a(19.^e DU LIVRE XII.^e)

CHIMINOA.

CHIMINO bati Parisen
 Andre bat eman cioten :
 Chiminoa cenaz guero
 Bertee asco senharrec beçala eguiteco
 Andrea çampateen çuen.
 Andretchoac hambat nigar isurteen du
 Non leher eguiten azkenecotz baitu.
 Semca pleinitcen çαιο harrigarri :
 Bainen aitac hortaz eguiten du hirri :
 Emaztea ecen hil çαιο
 Ya bertcetara ere gura badoaco :
 Har ahalac oro tuela yo gogo.
 Alabaiña dabill ostatuz-ostatu,
 Horditeen ere da busu.

Chiminoaz bertee ascori,
 Hau badoacote ederki :
 Othe da nihon herririe
 Ema yotçaille gaberie ?
 Erran ez neçake baietz nie segurie.
 Eta nondie dathor hori ?
 Ceren guiçac casie bethi

Baidohaz etchera ostatuetarie
 Tripa onxa hetha, aldiz boltza huxie:
 Boteillaren çolan eentçua ahantçirie.

FABLE VI.^a(17.^o DU LIVRE XII.^o)

ACHERIA, OXOA ETA ÇALDIA.

GAZTE içana-gatie, maltçurrenetarie
 Cen acheri batec, mundura guerostic,
 Çuen lehen-aldicotçat
 Ikhusen omen çaldi bat.

Oraiño berri een hauçoco oxo hati
 Badiotço : çatho, çatho laster cusi;
 Abre bat bada alhan gure phentceetan
 Ederra, larria; oraiño ordu huntan,
 Nere bi beguiac danzca charmatuac
 Ikhusiaren itchurac.

Oxoac baderro hirriz : sendoago

Othe da hura gu baiña?

Eguidac bada, othoi, yaun haren portreta.
 Pintorea baniñtz edo estudianta,
 Derro acheriac, eman neçaçuke,

Haguitz gogotic halere,

Aitclñetic axeguiña

Bistac emanen dautçuna.

Baiña çatho çuhaur; een, behar bada

Hor guretçat cembait bada

Ustecabeco catura.

Badoaz; eta caldiac

Ferdean çaducatenac.

Halaco bisita segur gura etcenac,

Ya, ya ateca yauciz nabi du pasatu,

Eta hetaric urrundu.

Yauna, derro acheriac,

Gu, çure cerbitçariac,

Çure icena yakiñ nabiac guiñtezke.

Çaldiac, ezbaiteen arras fuiñie gabe,

Baderroie : Yaunac, eracur-açue

Ceuec nere icena, badaidikeçue ;

Nere çapataiac escribus eman du

Nere çapataco çolaren inguru.

Escusatcen da acheria,

Allegatuz hemen bere iñorantcia :

Nere aita-amec, cioen,

Educatu ez ninduten :

Pobre ciren : eta etçuten

Munduan deus ontasunic

Garabic, cilho bat baicic.

Baiña oxoarenec, buryes aberaxac,

Eman diozkite letzac.

Itiz hoietaz gure oxoa

Balacatua gaiçoa,

Hurbilldu cen : baiña orduco urguillua,

Gostatu citçaion laur horteen contua :

Uztar bat cioen caldiac igorri,

Haidor althaturic bi çangarrac goiti.

Horra gure oxoa etçana lurrean ,

Estaturic tcharrenean

Ehoa , odola darian.

Anai , derro acheriac ,

Oraico guerthacariac

Clarki daucu eracusten

Persona izpirituxuen

Errana , çoiñ eguia den :

Abere horreec derautçu

Matrailletan escribatu :

Çuhurra çaiola bethi

Mesfida yende arrotçari.

FABLE VII.*

(5.^e DU LIVRE II.*)

GAU-AINHARA ETA BI ANDREYERRAC.

GAU-AINHARA bat betbetan

Sarthu cen ustecabetan

Andreyer cifera baten ohatecan.

Hau , nola aspaldi baitçuen

Herra handia sagûen

Contra bere bihotcean

Yin cen hura irexi beharrez çucheon.

Cer ! dio , çaren ausarta ,

Çu nere etchean presenta !

Çure arraçac hambat duen arren eguiñ

Eguiñ beharrez niri miñ !

Etçare sagna ? mintça çaitc clarki :

Bai, hala çare segurki :

Non ez, andreyer ez naiz ni.

Oh ! barkha çadaçu, tristeac diotço,

Ez naiz estatu hortaco

Ni sagna (naicen ! mihi

Tçarren errana da hori :

Eskerrac guciz-gorari,

Chori naiz ; luna begalac

Biba, biba yende ariñac

Airetan bici direnac !

Eman çuen arraçoia,

Içatu cen onhexia

Baitcidurien eguia ;

Eta eguiñ çuen haiñ ongui,

Non libro baitçuten utci.

Handic biharamunean,

Gure, choroa, illhunpean,

Sartcen çaitçu tipustean,

Hegaztiñen exaia cen

Andereyer bertce baten

Egon-toki trankillean.

Horra berritan non den gure choria

Hurbill galtcetie bicia.

Dama muttur luche-dunac

Yan-chahar aurkitcen cenac

Tirria hoberenean

Berehala baceraman

Hegastina celacoan.

Bañan oyhuz da abiatcen ;
 Laido çaiocla eguiten :
 Cer ! holacotçat iduc ni !
 Ez duçen beiratcen ongui :
 Cere du eguiten choria ?
 Lumec : gauça da agueria.
 Sagu naiz : biba arratoinac !

Yupiterrec betça confundi gathuac.

Artechki horla lenguaia
 Mudatuz, gure choriac
 Bi casutan hill beharrac,
 Salbatu çuen bicia.

Ilhunbeco chori haren idurico
 Ikhusen da berice charlatana franco :
 Chanyaturic mugaz charpa edo cocarda,
 Cantateen ahotaraca,
 Circonstantcien arauca,
 Biba monarca ! edo Biba republica !
 Lafontenen (*) arabera
 Yende horlacoa da guciz çuhurra :

(*) Lafontene sorthu cen Château-Thierry deritçon Frantziaco hiri batean, 1621^{ma}. Hau içatu da fableguille gucietan perfetena. Sortcez izpiritu ederrenaz eta aberaxenaz dohatua, eta iragan fableguille gucien obren leitoraz neurritua, eguiñ içan ditu fableac nombre handian, yakiñenec berec gustoric handienarekin eracartcen dituztenac, eta haren içenari ospe seculacoa eman diotenac.

Esopo sorthu cen bi milla eta laur ehun urtheen ia-

Aiteitie nere oldex badaiteke abilla,
 Baiña agueria da dela ere canailla.

FABLE VIII.*

(8.^o DU LIVRE X.^e)

EPHERRA ETA OILLARRA.

OILLAR guti icasi, nahasi batquen.
 Bere artean bothi liscarra çutenen
 Lagun, ephertto bat emana cen içan
 Aphur bat pensionean.
 Oillar haukien partetie,
 Oste emecoi hunen ganie,
 Ciduritçon epher hari,
 Behar çuela iguriki
 Cariño eta tratu ona,
 Eme eta arrotceri bethi çor çaiena.

gurca duela, Friyia deiteen den lebenagoco aslaco er-
 resuma batean, Amorío ceritçon herri chume batean:
 sortbu cen gorphutceez arras desgraciatus, moldegaitz
 eta ixusla; ordalñez izpiriturie ederrenaz, çorrotceenaz,
 eta hedatuenaz dobatua. Hura da fableguille lehen-
 eta bertco içatn diren gucien modela eta printceez.

Duda gabe eguiñen çuzten ohoreac

Hec menayeriacoac (*).

Baiña populu harroa

Eta neurri gabecoa,

Maiz furiaç çoratua,

Etcen içatu net errespetuxua,

Gure andere arrotçarentçat;

Etciotçan een guphidesten hambat

Moco-colpe cruelenac.

Uasteen net çuen penatcen tretuac:

Baiña ikhusi çuenean

Oste hura phernesian,

Batec bertcea atacateen,

Çauritcen eta odolstateen,

Egon cen consolatua:

Arauz hauc bici modua

Dio, hau dute ohitua.

Ez ditugu nahi yuyatu segurki,

Urricaldu hai hobeki:

Model beraren gaiñean,

Yupiterree mundu huntan

Eguiñ ez ditu guciac.

Badire naturaleçac

Oillarren eta epherrenac.

(*) Menayeria da establimendu handi bat, Parisen eta asco bertee biri handitan aurkitcen dena, coinetan hazten eta arthateen baitire, mundueo toki urrunenelarie bilduricaco animale arraro eta salbayenac.

Ah ! nere oldez duda gabe
 Bicia nic neramake
 Billcuia hobe batean :
 Baiña ene çorigaitetan,
 Toki huntaco nausiaco
 Bertcelaco ditu bere fantesiaco.
 Harrapatcen gaitu bere sareetan,
 Aloyitcen guero oillarrekin betan,
 Motzturic hegala bertan.
 Ez, ez, guicõnez segurki,
 Dugu pleiñitceco choilki.

FABLE IX.ª

(3.ª DU LIVRE XI.ª)

BORDARIA, ORA ETA ACHERIA.

Oxo eta acheri, biac nola biac
 Haguitz dire hauço tcharrac.
 Ez nuke eguiñen etcheric
 Hurbill heien egoitçatic;
 Chedea banu seguric
 Hazteco nic han oilloric
 Edo orobat cikiroric.
 Bigarrentto hori ordu gucietan
 Çagokioten celatan
 Borda bateco oilloeri;
 Eta nahiz cen segurki

Castan abillenetarie,

Etcion eguiñ oraiñdic

Oilladiari daiñuric.

Batetic apetituae,

Eta berteetic lanyerac

Bacemoten maistroari

Griña eta embraçu ez guti.

Cer bada, diotça, philderia hori

Deusen beldur gabe trufatcen çait niri!

Banoa, banathor, hartcen dut travaillu,

Eguiten ditut milla asmu:

Eta peisant gaiço hori,

Dagola etebean traukilki

Gucietaz diru da hari eguiten;

Moneda ditu bihurtcen

Oillasco eta gapoiñac:

Baitu ere crocan dilindan dauzcanac.

Aldiz ni, maistro chefoa,

Baduket seguratua

Oillo eihar baten truncoa,

Banago gaiñdiz boztua!

Murde Yypiñec certaco

Acheri oficioco

Eguin ninduen bada ni?

Ez, lepoa falta niri,

Aditcen ezpada laster cerbait berri.

Bere mendecuae horla

Cascoan çarabillzcala;

Hautatcen du gau illhun bat,

Çoiñac nasai orotarac

Baitu ereiñ lo-belharra.
 Anrkiteen cen batbedera
 Yadan loan egoiteia :
 Toki hartaco nausia,
 Sehiac, oilloac,
 Gapoiñ, oillascoac,
 Baita ora bera : siñean,
 Denac çauden tieso lotan.
 Bainan ethecco nausia
 Içatu cen gaiço askia,
 Bere oillotegüa uzteco idekia,
 Inguru larroina hambat ibilli cen,
 Non citadelara noizbait sarthu baitcen.
 Despoblategen du tokia,
 Eguiten du haguitz masacre handia :
 Lurra estalia da dena gorphutz hillez,
 Trempatua odol ibaiez.
 Haren furiaren traçac
 Aguerto eituen albae :
 Ya, ya ikhuscari hortarat
 Ekiä cihuan lasturic guibelat.
 Acheriac badarama
 Berekiñ har deçakena.
 Badago eciñ eramana
 Lurrean çabal ereina.
 Yabeac ezduke bertce erresurxáric
 Oyhuca egotea baicie
 Bere yenden eta çacurraren contra :
 Usaia bethi horla da.

Ay! baicen bestia çorigaitcecoa!

Urera botatcecoa!

Nolaz eztuc eman seiña,

Masacre hasiarena?

— Ceronec nolaz eztuçu

Hasi gabe guibelatu?

Lana lasterrago çaiteken eguiña.

Cer! çu yabca çarena,

Eta gauça doatçuna,

Anxicabe lo baçaude,

Bortha hexi den-ez yakiñ ere gabe;

Nahi duçu ni çacurra

Nerea ez dela afera,

Loric gabe nagon erne?

Çacurra ederki miñtço cen:

Arraçoiñatce hau net ona çaiteken

Nausi baten baithan baldiñ içan bacen.

Baiña baitcen ora simple baten-gauic,

Eman cen balio etçuela deusic.

Eta ora arraçoiñatua

Egon cen bereac ederki hartua.

Famillaco aita, nor nahi haiteken,

(Eta ohore hortaz ez natçaic yelosten),

Hire ontasunen gaiñean

Bertceac atçarri daudecelacoan,

Trankil lotara goatea,

Duc enganio tristea.

Habill oherat azkenic,

Eta bihaure bortha besten ikhusiric.

Eta dukenean combajt afera miñ,
 Bertcez hobe duc ez eguiñ.
 Ecen holaco casutan
 Oxo yaunac ere ez dikec seculan
 Atceman mandatariric
 Bera den baiño hoberic.

FABLE X.º

(15.º DU LIVRE IX.º)

YUPITER ETA PASAIERA.

BALUKE ontasun ceruac
 Lanyerean eguiñ içatu botuac
 Balire oro complituac.
 Baiña iragan da lanyera,
 Aise utzten dire ahantztera
 Ceruari eman hitçac :
 Lurrean tuzkegun çorraç
 Dire unkitcen gaituztenac.
 Yupiter hartcedun onac han goietic
 Egorteen ezta hucherric.
 Oy ! haicen buru eria !
 Cer duc bada ihurtçuria ?
 Eta abisu hoier erradac bada arren ,
 Cer icen daieç emaiten ?
 Pasaier bateç ikharan
 Tempesta baten erdian ,

Cioteçan aguiñdu behin*ehun idi
 Titanen garhaileari (*).
 Bakhar baten yabe ere etcen :
 Haiñ aise erran cituzkeien
 Hare ehun elefant idi heien plaçan.
 Leihorreratu cenean,
 Heçur cembait suan erre içan cituen;
 Çoiñen lanhoa igan baitcen
 Yupiterren sudur-pera.
 Yupiñ yauna, dio, horra
 Nere botua; har çaqu;
 Idi urriñ huxa hor badathorkiçu :
 Khea çureçat bakharric,
 Çor ez dautçut bertçe deusic.
 Yupiterrec tretu horri
 Eguiñ cion bada aleguia birri.
 Baiña egun batçuec ciren bai iragan,
 Onxa atceman çuen hare bere çaiñdean;
 Egorriric amexetan
 Abisu, bacela hulaco tokitan
 Gordea tresor handi bat.
 Gure botu-coia herresaca harat
 Goan cen nola su hillteerat.

(*) Yupiterri. Titanac ciren yigante batçu lehenago
 Faganoen ustearen arabera, ceruari asant eman ciote-
 nac, mendiac elkharren gainca eçarriz. Baiña Yupiter-
 rec ihortçuri colpeca çahutu cituen eta egotci bere
 mendien azpian. Horrengatic da deithua fable buu-
 tan : Titanen hentçutçaithea.

Batcen ditu guerthuz ohoiñac bidean :
 Eta nola orduan ez baitçuen bolxan
 Luis bakhar baten erresurxa baicic,
 Aguiñtzen daizkie ehun ontçaco urre
 Bat escas gabe halere;
 Bertan hartcecoac diru hulacotic,
 Hulaco herriren hulaco partean
 Ehortcia lurbarnean
 Aspaldi çagoenetic.
 Lekhua çaie ohoiñeri
 Iduritcen suspitchgarri :
 Eta hortan gure aguiñçaillari
 Batec baderro : hi hemen
 Compai, duda gabe haiz gutaz trufatcen ;
 Hil hadi bada , eta hail Satanen ganat
 Ehun ontceez hari dohaiñ eguiterat.

FABLE XI.^a

(3.^o DU LIVRE IV.^e)

ULIA ETA CHINAURRIA.

ULIA eta chinaurria ,
 Net pare elkhar iduria ,
 Behiñ bat disputan ciren
 Guebiago coiñec balio othe çuen.
 O Yupiter ! cerran lehen aiphatuac :
 Amodio propialac

Badaitekeia ixi detçan

Manera haiñ terriblean

Gucien adimenduac ?

Bestietan chirtchillena

Lurrean herrestan nekhez dabillana

Atrebi dadintçat erratera niri,

Airearen ume brillant, ariñari,

Berdiñtzen çaitala niri!

Palaciotan banabile,

Mahaiñean yarteen natçaic,

Iñoiz çaikenean idi bat ofreitcen,

Dastatcen hartarie diat hitaz lehen.

Aldiz hunaco hau, chirtchill, miserable,

Noiz-nahi bicico due laur egun bethe,

Etchera herrestan eramán nombaitic

Duen izpi batetarie.

Baiña, mamiñuna, erraçu,

Nihoiz campatcen çare çu,

Printce edo emperadore

Edo are cembait andre

Ederren buru-gaiñean ?

Ni banaiz : eta are nahi dudanean,

Nerorrec nahi tokian,

Pot ere bademot gorphutz eder bati :

Baieta oraiño noiz nahi

Andreen bilho-bucletan

Banabilla ni dostetan.

Orai, çathorzkít laiñoa,

Çure soillaruez haustera cascoa !

Erran ditotçu guciac ?
 Derro aldiz menayerac.
 Baçabilltça gaztelutan !
 Baiña aztio çaituzte han.
 Eta oroc baiño lehen
 Baliñbaduçu dastatcen
 Yaincoer ofreitutaric,
 Uste duçu deus hoberic
 Badathorreia hortarie ?
 Lekhu gucietan baçaro çu sartcen,
 Yendetçarrec ere berdiñ dute eguiten.
 Erregue eta astoen berdiñ buruetan,
 Çare plantateen ascotan;
 Acort naiz çurekiñ hortan :
 Baiña badakit hau ere,
 Ansartcia hori net site halere,
 Herio colpeaz punitna dela.
 Aboro banta ez çaitela
 Hoic oro çuretçat balire beçala
 Haiñbertee merecimendu.
 Gucien burnan, oroc badakigu,
 Beneco ekea gan erreguiñatcera
 Munduaren bertee aldera;
 Laster çarela acabatcen :
 Gosea eta botça tristeki pairatuz;
 Nihondic çure flakia
 Eta ororen escasia
 Eciñ erremediatuz.
 Nere nekbe ganez aldiz orduan ni
 Goçaturen naiz trankilki.

Billico ere ez naiz ni segurki,

Yoçac haran, yoçac mendi,

Burutic gan bat iduri,

Dela haice, dela uri.

Bicico naiz ni bolache

Melancoliarie gabe;

Lehen hartu nuen grîñac

Khenduco deranzkit oraico guciac.

Fiñcan, laburzki çuri errateco,

Certan aurkitcen den ospe eguiazcoa,

Eta aldiz certan falxoa,

Dauçut horla irakaxico.

Adiu : badoat dembora :

Utz benaça ene lanera :

Nere soillarua eta banca, bemen

Elheketa egonez etçaizkit bethetcen.

FABLE XII.*

(16.^e DU LIVRE XII.)

EGURGUILLEA ETA OYHANA.

EGURGUILLE batec, çukeien baxharra,

Galdu çuen behin haizecora guiderra,

Edo hauxi behar bada:

Guti du gauçac importa,

Ordaiña eguiñ baiño lehen,
 Ephe aphur bat iragan cen;
 Eta oyhana oso çagoen.
 Azkenean guiçae humill du othoitzten
 Haritz-adar bakhar baten
 Utz deçan arren hartcerat
 Eguiteco bere harmari guider bat.
 Goanen cela bertcetara
 Bere oguia irabaxtera :
 Eta utcico cituela
 Chutic, çaudecen beçala,
 Ametz eder eta haritz hec guçiae;
 Çoiñen adiña eta charmae
 Baitciren guçiez errespelatuac.
 Bada oyhan laiñoac hartcerat utzten du :
 Baiña içatu çuen dolu.
 Eguiñ dioneco bere haizeorari
 -Guiça tcharrac guider berri,
 Hasten da ebakitcen on-eguilleari,
 Adar tuzken ederrenac:
 Husu dire aditcen haren plaiñu miñac.
 Bere emaitça bera çaio
 Billhacateen suplicio.

* Hola-holaco da treiña
 Munduan ikhusten dena.

Ongui eguiñaz ezta baliatcen ohi
 Baicen laido eguiteco on-eguilleari :
 Hortaz mintçatceaz unhatua naiz ni.

Baiña yaçar dakioten
 Itçal gocho bat dematen
 Çuhaitz maithe batçneri!
 Barbaria hortaz nor ez laite pleiñi?
 Helas! debalde naiz oybuea harico,
 Guciac unhatecraño:
 Eskergabe icigarriac
 Eta moldegaitzkeriac
 Ez dirade gutiago
 Içanen bethi modaco.

FABLE XIII.^a

(5.^e DU LIVRE XI.^e)

LEHOIÑA, CHIMINOA ETA BI ASTOAC.

LEHOIÑAC bere erresuman,
 Nahiz baitezpada gobernu ona eman,
 Nahi içan çuen çuhurki
 Moral pusca bat ikhasi.
 Hortaraco beraz ordena eman çuen
 Cuchian deith-cioçaten
 Gaztelura chiminoa
 Nausi pare gabecoa:
 Animaleetan dotor ospatua,
 Celacotz batchiller yadan pasatua.
 Yaun errientaren lehen lectioa
 Içatu cen bulacoa:

Monarca handia, printze

Guciec nabi baituzte

Ikhusi bere estatuae

Çuhurki gobernatuac,

Bihotcean behar dute

Garraiatu bethiere

Barnenic sentitcecoa

On comunaren celoa.

Eta eguin eceztatcerat

Bertee sentimendutto bat,

Oroc dakiten beçala

Amodio propiala

Bethitie deithatcen dena :

Ecen gauça da clarena

Casic choilki dela hura

Animalia gucien

Artean ikhusten diren

Defauten aita eta autora.

Baiña çure ganie sentimendu hori

Athera dadiñ osoki,

Ezta chede haiñ ariña,

Ez egun bateco lana :

Guti ere ezta segurki

Yabaltcea aplur bat amodio hori.

Çure mayestateac, bide hortaz ecen

Eztu nihoiz onhexiren

Deusic hirrigarri denic,

Edo çuen-contracoric.

Erreguec baderro hemen :

Baten eta bertcearen

Exemplu cembait indatcie.
Dotorac baderro phocie :
Bai yauna , mota orotarie ;
Eta hasten naiz guretic.
Estatu bacotcha bere beguietan
Dago estimu handitan :
Berteeac dauzca aldiz den iñorantenac ,
Funxic batere ez dutenac :
Eta bertee asco holaco
Erraten diren aisesco.
Amodio propialac
Contrara , bere kideac
Ahal beçain gora daramatça bethi
Hec goratuz bera baidioa goiti.
Orai arte erranetarie
Ausarki yuyatcen dut nie ,
Beher huntan talendua
Dela grimasa purua ;
Banderiça , edo halaco
Nore bere burua balia-razleco
Dukeien antee artexua :
Iñorantez bethi yakiñxuez baiño
Hobeki praticatua.
Aitciñ hortan behiñ , arrastoa segui ,
Banindarraioten asto bi ederrei ,
Çoiñac , çoiñ guehiagoca
Hari baitciren çaiñdezea
Batec bertcea inxenratcen ,
Nola bethi baita usatcen.

Bata aditu nuen cerrola anaiari :
 Etçaitçua, yauna, iduri
 Guçona, animale haiñ perfet den hori,
 Dela inyustu eta gaiço segur ongui ?
 Gure icen noblea gaizki darabilcen,
 Net profanateen deraucu;
 Astoa ecen deithatcen du
 Yende yakinxu eztena
 Gaiço eta pobre izpirituz dena :
 Bertee hitzeuntea bat ere
 Usatcen du gaizki maicegui halere :
 Cue dugun miñtçoa baieta hirria,
 Haren oldez dire orho icigarria.
 Istorio ederra, pardi !
 Badagocote bai segur guçoneri
 Gu baiño hobeac daiten içan nahi !
 Nore ez eguiñ hortaz hirri ?
 Ez, ez, mintçatcea çuri dohakiçu :
 Heien oradorer egotea mutu :
 Hauc dire eguiazco marruma eguilleac :
 Baiña begotz apart holaco yendeac.
 Comprenitcen nauçu, -
 Baita nie ere çu.
 Aski bedi; bego hortan.
 Eta çure cantaz den beçambatean
 Çoiñac haiñ gochoki beharri guciac
 Baitauzca kilicatuac,
 Filouela (*) eguiaz ezta aprendiz baicie
 Çure aldean eçarririe

(*) Rochiñoletaren bertee icena.

Lambert (*) bera chitcen duçu.

Bertce astoac bihurtcen du :

Yauna, çu-baithan nic, duen bide eguiac,

Admirateen ditut calitate berac.

Ez content oraiño nere astoac beraz

Horla elkhar pherecateaz,

Goan ciren hirietara

Itçuli bana emaitera :

Bacotchac uste çuela

Colpe ona eguiñ ceçakela

Ocasione orotan

Bere anaiac laudatecan

Hec goratuz, bera goiti

Çobakelacoan bethi.

Horla dirnean ikhusten gaiço bi

Inxenxu ahurca emaiten elkharri

Yendec obi dute erraten :

Horra bi asto, hatz elkharri eguiten.

Çuhur, heier dena beguira tricatcen,

Hirriz obi da lehertcen.

Baderrat bada orai naski guehiago

Erran behar nuken baiño.

Çure mayestateac uste dut bargatic

Nahico ez dautala horren gatic gaitcie.

Berac desiratu çuen,

Ikhastea abal baçaiten,

Hortaco exemplu cembait ekharriric,

Eta gucien gaitetic,

(*) Franxes musicari ospatuenctaric bat.

Amodio propialac
 Nola cituen yendeac
 Llilluraturic tristeki,
 Eguiten haiñ hirigarri.
 Inyustuac bere chaindea baduke:
 Asti guehiago hunec nahi luke.
 Pontu hau tratatu hare othe çuenez
 Orai arte nago ni eciñ yakiñez.

Gure dotora hargatic,
 Nere arabera seguric,
 Etçaiten aski choro
 Orduan ez penxatceco
 Halaco escolier bati,
 Erregue deitbatuari.
 Sobre etcecla fidatceco.
 Baçakiken, cen madrea,
 Oroc ongui dakitena,
 Printcer eguia erratea
 Eztela gança errechena.

FABLE XIV.^a

(11.^o DU LIVRE VIII.^o)

BI ADISKIDEAC.

MONOMOTAPA deitbatcen
 Den irla batean lehen
 Adiskide bi haciren

Çointarie, batec çuena

Baitcen orobat biena.

Hango adiskidec garabic

Ez omen diote hemengoer çorric.

Gau batez bacotcha çagoela lotan

Morfeoren (1) hesoetan :

Bi maithetarie bat da yauzten ohetic

Cerbaitec alarmaturic :

Badoa lasterrez bertecce baithara ,

Othe den han berri deusic, yakitera :

Sehiac airoski ditu eraikiten:

Morfeoc yaureguiaren

Portalia unkitu çuen (2).

Adiskidea lo-hordi,

Estonitcen da handizki.

Bolxa euehean harturic,

Herresaca harmaturic,

Badoaco bertceari,

Eta badiotço : Anai,

Ardura ezta çure oldea,

Lotan denean yendea,

Çu yaikiric ibilteea;

Badakiçu çue hobeki

Bali-arazten segurki

Lotaraco den ephea.

(1) Morfeo, paganoen jainco falxoetarie bat, loaz eta gauazco errepausaz cangatua cena.

(2) Oro barnean loric sotillenean sarthuac çauden.

Çure dirua oro çandeia galduric,
Yocoan sopra hariric?

Huna nere bolxa ez içan griñaric.
Edo duçu churitecco
Cembait afera ohorezco?

Huna nere expata çure cerbitçuco.
Ez, dio bertceac phocic :
Casu hoiee bietaric,
Ez bat, ez bertcea ezint nic.
Esker dautçut nere ahalaz
Çuc eracuxi lehiaz.

Baiña aguertu çaizkit, lo nindagoela,
Tristesco cinduriela.
Beldurtu naiz eguia cen :

Horra herresaca nola ethorri naicen.
Eta orai guerthatuaren
Bertce deus hemen causaric,
Ezta amex tçar hori baicie.
Hec bietaric çoiñ cena
Adiskide hoberena?
Hobeki maithe çuena?
Cer çaic, nere leitçalea?
Eztuc errech yuyatcea.
Etçaic cela casu hori
Proposa-kidiñ segurki?

Çoiñ den gança bat goçoa
Adiskide eguiazcoa!

Harc chercateen ditu berac

Maithatuaren beharrac :

Doacolarie hortaco

Bihotçaren kolaraiño :

Eta haren laguntceco

Beira eskearen ez dago.

Ondicoan bereciki

Dagoco leyal constanki.

Amex bat, ez dens bat, harentçat da askico

Maitheaz dioanean,

Hari betan bihotcean

Trantcea sar-arazteco

FABLE XV.^a

(9.^e DU LIVRE II.^e)

LEHOIÑA ETA ULIA.

UAIL ! marmotcha ez deusa !

Lurraren corotça !

Cerron lehoiñac haidorki

Egun batez ulitchari.

Hunee ! cioela guerla declarateen,

Uste duca, derro, nanela loxateen

Edo batere anxiateen

Hire erregue-tituloac ?

Ili baiño puchantagoac

Ditue indarrez idiac :

Eta hauc baçarabilzcat
Nie nahi dudan alderat.
Erran dueneco hori,
Guerlari bera , eta bera trümpetari ,
Guduaren seiña yoric ,
Eta aphur bat ürrundurie ,
Abiaduran sarthurie ,
Lehoiñari badoaco ;
Buru-gñibelean ansikiz datchaco.
Gure monarca da yartcen berehala
Erhoa diduriela ;
Arrapoa czpaiñctarie ,
Inharrac beguietarie
Phernesian darizcola :
Hunen orrotara , inguru gucian ,
Oro sarthuac ikharan ,
Gordetcen dire cuchiañ.
Eta hox handi hau dena
Da lana ulitcha batena.
Uli-moki batec haiñ du tormentatcen ,
Ehun tokitan sistatcen ,
Orai bizcar-heçurrean ,
Handic bustan-inguruan ,
Guero fite muturrean ;
Azkenean sartcen çaiñ
Sudurraren çolaraiño.
Errabia ordutic gaiñdiz badoaco :
Exai eciñ ikhusia ,
Eramanic biectoria ,
Hirriz badago hacia ;

Ik hustearekin abre bentçutua

Errabiac çoratua,

Bere hortz eta atçaparez

Segur ez hala ohituez,

Bere açala sacaillatcen,

Parte orotan odolziatcen:

Buztana ere badabillea,

Bi sabexetan aldizca,

Airea alferretan yoca:

Eta bere guduetan,

Haiñ da hebaiñdu fiñean,

Non, akitua, ahitua,

Muturraz lurrean baidago ecindua.

Marmotchac utzi du glorios gudua:

Yo çuen beçala gombataren seiña,

Yotcen du halaber bictoriarena.

Badoa alde orotara

Berria publicatcera:

Eta baturic bidean

Marmalo bat enboscadan,

Hunen sare traidorean

Finatcen da ordu gaitcean.

Bada hemen guri cer çaien aguerтен?

Bi gauça hauthec bederen:

Bata, exai lanyerosenac

Dircla maiz ttipienac.

Bertcea aldiz, lanyer handienetarie

Uruski dena atheratcen,

Maiz afera tehar batetie
 Eciñ yalguiz dela galteen.
 Ibaia iraganie, chirripan ithotcen.

FABLE XVI.³

(2.^a DU LIVRE II.^e)

ARRATOIÑEN BILLTÇARRA.

RODILARD icena çuen gathu bat cen,
 Çoiñac arratoiñez eguiten baitçuen
 Haiñ bertee massacre,
 Non ya ez baitcen nihon ikhusten batere.
 Haiñ cen yadan iñobrea
 Harree sepulturan emanen nombrea.
 Guelditu ciren bakharrae.
 Eciñ atrebituz uztera chiloac,
 Çaudecen tripac cimturrac.
 Oste miserableari
 Murde Rodilardo hori
 Etciduritçon gathua,
 Baiña ifernuco diabrua.
 Bada, egun batez galaia
 Nola baitcen atheraia
 Urrun toki goretara,
 Omen, emazte-ketara,
 Usaiaren arabera;

Han bere eguitecoetan
Harrec çaraman demboran,
Ciren arratoin guciec
Choco baterra billduec.
Conxeillu iduki çuten,

Orduco hersturan cer egulû behar cen.

Hasteco, president yaunac,
Persona guciz prudentac,
Haren oldez, erran çuen,
Sarri baiñon, orai lehen,
Behar citçaiola eçarri
Lepotie Rodilardori
Croscoila ocen bat dilindan :

Ecic ordutic, cenean
Guerlaraco atheratcen,
Noiz eta non pasatcen cen
Aise çutela yakiñen;
Eta hola abisatuac,

Lurpera itçurico cirela guciac :

Hare etçuela garabic
Aurkitcen bertee moyenic.
Aguertu ciren bada oro
Presidentaren boceco :
Ciduriçon bacotchari

Gauça hoheric deus ez çaitekela aurki.

Baiña lana cen dorphea
Hari croscoila lotcea.
Batec cerran : ni ez noa,
Ez naiz segur haiñ astoa.

Bertceac : ere ez noa nī,
Nahi duena gan bedi.
Hala non, deus eguiñ gabe,
Goan baitciren çoiñ here alde.

Ikhusi dut nie cluba asco
Eguiten espantu franco,
Obratcen aldiz gutisco :
Ez cluba arratoiñezcoac
Baiña citoyenezcoac,
Baita yakinxunezcoac.
Behar da deliberatu ?
Ezta falta conxeillari,
Elbe eta baro ausarki.
Behar da obrara pasatu ?
Ez daiteke nehor aurki,
Larrua da maithiegui.



FABLE XVII.¹(10^e DU LIVRE II.^e)

ASTO CARDOZ CARGATUA, ETA ASTO GATCEZ CARGATUA.

Asto-çaiñ bat behiñ cetro (*) bat esenan,
 Ale emperadore romano, cíoan
 Beharri luce-dun bi abre aiteiñean.

Bat, cardoa çaramala,
 Ariñ bacíoan currier bat beçala,
 Bertcea, carga arrolceez iduri çuela

Ardura othoitzu behar cen

Lagunari çarraioen :

(Asto-çaiñaren othoitça

Ezta lucea, ez gaitça)

Urhaxa haiñ nagui çuen,

Cargatçat gatça baitçuen.

Gure pelegriñ harroac

Iraganie mendi, bide, eta haranac,

Arribatu ciren azkenean horla,

Ibaso baten beguira,

Asto-çaiñac çoiña, toki hartan bertan,

Asco bertce helanteetan,

Gaitçac alichaturie baitçuen iragan.

(*) Erregue edo emperadoreec, thronuan yarteen di-
 renean, esenan daocaten cigor urrezcobat, duten po-
 dor caren marca beçala.

Astoac baratcen dira
 Net embraçatuac urari beguira.
 Asto-çainac dio han cardo-dunari
 Bizcarrera egñiten yauei :
 Bertcea yoiten duela
 Bere aitciñean urera;
 Han nahi iñan baitcen
 Bere buruz yocatu ,
 Tulubi batean cen
 Ustekabetan sarthu :
 Baiña biburtu cen laster ur-gaiñera ,
 Eta cilhotic athera :
 Eeen iguerica cebillan demboran ,
 Gatz gucia bizcarrean
 Urthu citçaion haiñ ongui ,
 Non sorbaldetan deus ez baitçuen senti.
 Hunec beçala eguiñ hemen
 Compai cardo-dunac nahi iñan çuen ,
 Eta cikiroa iduri ,
 Lehen goanari yarraiki.
 Horra astoa embraçatua
 Lepoaz-gorago urean sarthua
 Cardoz eta guidaz betan cargatua :
 Hirur gauçac iguerica
 Uretic edaten çoiñ guelhiagoca,
 Cardoa , astoa eta guïça.
 Cardoa eguin cen hain pisu ,
 Eta urez haiñ cen hampatu ,
 Non borrico eciñdua ,
 Bere cargaz gainditua ,

Baçauczan bakhean obitça luceac:

Ciñetara iñoiz ez çoacen dostetac.

Noiz eta ere egun batez,

Øndicoz hala beharrez,

Hauço hurbilleco garraiotarie bat

Vin baiteitçaioten bisita eguiterat.

Eta eguiñ ere bai fite

Pierrot gaichtaguinaren,

Eta manun zuhurraren

Dostetaco lagun trebe.

Bi choriec liscar hor alchatcen dute:

Manun ere ez dago nutre.

Arrotz hunen cer frescura!

Diotça, ethortcea horla

Pierroten laidateera!

Hauçoco choria çaiçu beraz yinen,

Eta gurea du yanen!

Ez hargatic hori, gathu gucien den!

Eta sarthuric guduan,

Arrotça irexten du bertan.

Mafua! derra ibiztariac,

Secula ez nuen erranen

Garraio grosier hoien

Gostua hain ona çuela yakiac!

Penxamendu hori eguietearekin

Bertcea irexten du placer handirekiñ.

Cer moral athera fabletto huntarie?

Fableac ez duke chedo hori baicic:

Eta deus eztu balio

Baldiñ deus ez badarraio.

Bada guri lunec iracaxten daucu
 Gormantari ceren eztela fidatu :
 Bere cintçurraren esclaboa denac,
 Irexten tuela laster ontasunac,
 Bereac eta berteenac,
 Bai bere haurrenac ere,
 Baita andrearenac are,
 Ahal badu niholere;
 Damac ere yaunarenac
 Beite içan den guicenenac,
 Guiltça non ez daucan yaunac :
 Halere eztu ceren fidatu sobera,
 Non ez luken eman guiltçapean bera.
 Horla da ascotan guerthatcen,
 Urus bici çaitekena,
 Yayo ohe gochoan cena,
 Lastoan baita acabatcen.

FABLE XX.º

(8.º DU LIVRE IV.º)

GUIÇONA ETA ÇUREZCO IDOLA.

YENTILI. batec baçaducan
 Çurezco yainco bat maitheki etchean :
 Yainco gor diren betarie
 Beharri-dun direlarie.
 Pagano harrec halere
 Hanitz haren baithan baçuen sinhexte.

Deusic eteen haren-ganic
Esperatcen ez çuenie;
Gostatcen citçaion ere
Bertee laur beçambat aise.
Harentçat hotu , ofrendac
Eta sacrificioac,
Idi chingolatuzeoac
Ciren nibon ez cirenac;
Nihoiz nibon idolaric

Mahaiñ hain nasaye içatu çuenie:

Deboçino horren-gatic
Yabeari deus ez çathorkiolaric ,
Ez çorion , ez ontasun ,
Tresor , edo ondocotasun ;
Yocoan ere ez fortuna ,
Ez faboreric mendrena.

Guehiago oraiwo , baldiñ bacen nombait
Tempesta edo harri formatcen nolazpait ,

Segur hartaric partea ,
Eta bolxa gutitcea ,

Çurezco Yaincoac belhi çaramala
Bere pitantça ber-bera.

Azkenecotz bada , coleran sarthuric
Ez billtceaz nihoiz haren-ganic deusic ,

Athelaga dautçu hartcen;

Idola çathitan ukhaldica eçartcen :

Eta urrez bethea aurkitcen.

Hari nintcenean on eguiten hiri ,
Eguñ derautaca , dio , çhaiñdez niri

Conado batenie choilki?
 Hoa! nere egoitçatic yalgui hadi bertau;
 Billha-zkie oraitie omaiac bertcetau:
 Içan behar haiz segurki
 Yende torpe, groser, tonto hec iduri
 Athera çolūtariç ez baidaite deusie
 Makillaren bidez baicie.
 Gembat baihindudan nie bethetçenago,
 Hambat naduzeaken escuac huxago:
 Chaindatcea tonuz
 Eguiñ diat buruz.

FABLE XXI.

(14.^e DU LIVRE IV.^e)

ACHERIA ETA GUIÇA-ITCHURA.

HANDIAC hurren guciac
 Dire theatreco mascac iduriac.
 Yende aphaac bethiere,
 Sensuec baidabilzate,
 Hekien campoaz hartuac daude aise.
 Astoac ez ditn gaiçoac yuyatcen,
 Agueri denetic baicett:
 Acheriac aldiz bethi
 Ditu beguiztatcen funyki,
 Alde orotariç behatuz arthoski.

garibon
berri

Eta oharteen den pontatic ,
 Hetan eztela deus itchura ona baicie ,
 Hetaz baderra trankilki
 Lehen behiñ apreposki
 Iragan baten portretac ,
 Omen , guerlari batenac ,
 Cioena erran-araci.
 Guiza-itchura bat cen guerrirainocoa ,
 Metal edo çurezcoa ,
 Eta barnean huxcoa ,
 Naturalac baiño handiagocoa.
 Acheriac beraz laudateen çuela
 Net eguillearen obra :
 « Cer buru ederra , dio ,
 Fuiñez bethea balago ! »
 Eta cembat yauu handiri
 Ez loacoketen complimentu hori !

FABLE XXII.*

(10.^e DU LIVRE X.^e)

ARTÇAINA ETA ERREGUEA.

In diabrue gure bicia daucate partitua ,
 Bere thronutican ere centçua casatua :
 Ez ahal da bihotz haguitz guti baicie
 Tributa pagatcen her ez diotenic.
 Heien puehantça eta ieena galdetcen badauztatçu ,
 Handi-nahia , lamurra deitcen ohi ditugu.

Lehenaren erresuma urrunago dioa,
Amodioan berean hare baitu nausiçoa.

Han aise eracux niro nie;
Baiña eztut bertce chederic
Hemen erratea baicie
Printee batec behiñ nola
Eraman çuen gorthera
Artçaiñ bat haran batetic.
Derradan istorioa.

Arbaso cenduen da demboracoa,
Eta ez gure mendecoa.
Ikhusiric erregueac

Arthalde eder batez estaliac landac;
Alhan çaudeen ardiac
Gorphutcez yori guciac;
Artçaiñaren arthen bidez
Çakhorztela urthe guciez
Yabeari suma ederrac:

Artçaiña erregueri aditce ona-gatic
Guciz agradatu citçaiñ ordotic.

Mereci due, derra, hic bertce artçaicoric:

Cikiro hoiee utciric,
Athor nerekiñ gorthera
Guiçon-artçaiñ içaitera;

Eguiten haut yuye soberano bertan.

Horra gure artçaiña balentçac escutan;

Nahiz etçnen garabic
Artçaiñ hare egundaiñotic
Ikhusi gauça bertecric,

Bere arthaldea, caicoa ,

Bere çacurra eta oxoa

Eta ermitaiño bat baicie.

Baçuen cascoan seso ;

Gaitia badathor guero.

Funxean onxa athera cen.

Ermitaua nola lehen hauço çuen ;

Erratera ethorri hula citçaioen :

Atçarria othe naiz , ala amexetan ni ?

Cer ! çu gortheco , çu handi !

Ez fida , othoi , printceeri :

Lerracor da bethi heien faborea ;

Trumpacor ere bai her eman fedea ;

Areago dena oraiño .

Gostatcen baita cario :

Enganio hoier ecen

Ez darraie nihoiz gaitz handiric baicen.

Eztuçu ikhusten charma

Lilluratecen çaituena :

Adiskide guisa ni mintço natçaiten ;

Oro beldurtceco tutçu.

Guiçac hirri baicen eguiten ez dio.

Ermitauac aldiz aitecina baderro :

Çure centçua ikhus açu

Nola dautçun yadan gorthac gutitu.

Diduritçait hemen ikhusten dudala.

Ixu titchacabe bura .

Çoiñac bidaia batean

Baitçuen aurkitu çatçala bidean

Sugue hotçac gogortu bat;
 Hartu çuen açotetçat :
 Berea galdu baitçuen
 Guerritic erori nola citçaioen.
 Eskerea çagocon titçaz ceruari :
 Bideante batec noiz ota berari
 Oyhuz baitçioen erran : ô guïçona !
 Cer da escuan dakhartçuna ?
 Aurtic-açu arren fite
 Animalia traidore
 Eta gaitz-emaille hori ;
 Sinhesten ahal nauçu ni.
 Sugue hori , diot , bada !
 — Açotea da hau : — Ez , ez suguea da :
 Cer intres duket bada nie
 Erraiteco orai gueçurric
 Nagola haifi khechaturic ?
 Tresor hori iduki nahi duçu . ala-ez ?
 — Baina funxean , nolaz ez ?
 Nere açotea tçartu cen :
 Net on bat dut edireiten ?
 Etçare çu mintço yelosiaz baitçie.
 Eta etcion eguiñ batere casuric :
 Halaber bicia laster galdu çuen ;
 Atçartu bipera baitcen ;
 Eta ausiki miñki besotic baitçuen.
 Çutaz daitekenaz aldiz ,
 Erratera atrebiteen naiz ,

Baçaiteçula arribatuco,
 Are cerbait gaitztoago.
 — Ah ! heriotcea ezçada
 Cer dakiket niri guertha ?

Axecabe milla çaiçkitçu yauxiren
 Ermitau profetac bada erran cioen.

Ethorri citçaizeon ere :
 Ermitaiñoa etcen trumpatu batere.

Gortheco içurri diren ,
 Milla amarru gorde han darabilzcaten
 Yende tçar batçuec, haiñ onxa eguin çuten ;

Yuyearen yusticia
 Eta hunen merecia,
 Non printce oneguiari,
 Elhe tçarrez suspitchgarri ,
 Hec eguiñ baitciotçaten.

Banderiça da formatcen ,
 Eraikiten laster lekhuco falxoac ,
 Harrec bere arrastez çaurthuricacoac.
 Horra non , derrate , gure ontasunekiñ
 Yuye horrec duen yauregui bat eguiñ.

Erreguec nahi içan çuen ,
 Içantçac ikhusi çoiñ handiac ciren.

Orotan eztu ikhusten
 Fortuna arteco bat baicen ;
 Desertua laudatua ,
 Pobrecia preçatua
 Horiee dire nausiac

Ikhusen dituen magnificentciac.

Baderrate orduan : bertce amarru bat du,

Maltçur horrec praticatu.

Horren tresor handia oro ,

Diamante eta perla sifienetan dago :

Hor dauca cutcha bat inobre handia ,

Hetaz mucuru gaiñdia

Hamar sarraillez hexia.

Berac arca ideki çuen :

Eta net estonituac,

Eta ahalkez gaiñdituac

Bere exai atrebituac

Ederki utci cituen.

Cutcha cenean çabaldu

Han etcen deusic aguertu

Çarpilleriaric baicen;

Artçai-capusailla han cen,

Çapelu bat ere bacen,

Yaketa, dibeciera ,

Caltçoiñac eta cimitça

Bastoia eta , naski chirola han ciren.

Oy ! nere tresor goçoac ,

Bahi çorionezcoac ,

Ez yelosia cruelic ,

Ez traidorekeriaric

Çuen gaiñera iñoiz ez deithu içanac !

Çathozte , dio , çathozte ,

Nere onac çuec çarete:

Yauregui brilliant hautarie

Yalgui gaiten oraicotie ,

Hala-nola amex batetic.

Erregüe yauna, barkhatu,
 Baldiñ haiñ samiñki hanaiz ni mintçatu :
 Aiteiñetic usnaz yoa
 Naucan nere eroricoa ,
 Nintcenean çoratusa
 Colpez haiñ goraaltchatua.
 Sobera çait han laketu :
 Baña , yauna , badakiçu
 Eztela nehor munduan
 Bruma aphurño bat ez duenic buruan.

FABLE XXIII.*

(1.^{er} DU LIVRE VI.^o)

ARTÇAIÑA ETA LENOINA.

ARTÇAIÑ batec arraxean
 Bere ardiac condatcean,
 Aurkitu çuen contua
 Goiçaz gueroz macurtua,
 Arthaldea gutitua.
 Nahi içan çuen eguin aleguiña
 Atcemateco larroiña.
 Lurpe batera badoa
 Hara sartceco cilhoa
 Oxo-artez du creiten
 Haukien arraça baitçuen suspitchten.

Nihaur hemen nagoela ,
 Eta axeguiñ horren goçoa dudala
 Derra , ô Yaincoen nausia !
 Baldiñ nere ohoiñ handia
 Arte hoietan sar-arazten baduçu ;
 Hogoi aratchetan nahi dut hautatu
 Guicenená , eta hau çuretçat goardatu.
 Hunen hitz horietarat
 Yauzten da betan camporat
 Lehoiñ larrita bazear bat :
 Cucuillteen da artçaiña biri-biribilla
 Eta baderra erdi hilla :
 Ala guiça iñulac ez baidaki bambat
 Cer galde adreça cerurat !
 Nahiz atceman larroiña
 Arthalde maithça bakhantcen dautana ;
 Eta hura lace hautan
 Harturic ikhustecotan ,
 Aguindu dautçut , ô Yaincoen nausia !
 Aratche bat net yoria ;
 Orai bada bertee alderat ,
 Nahi baduçu çue eguiñ
 Ni-ganic urrun goan dadiñ ,
 Aguintcen dautçut idi bat.

Fableguille batec bada , eguiñ çuen hau hola ,
 Bertec batec aldiz bera , eguiñ çuen bertcela :
 Seguidaco fable huntan , emana den beçala.

FABLE XXIV.^a(2.^o DU LIVRE VI.^a)

LEHOIÑA ETA IHIZTARIA.

61

GUIÇONKI fanfarrun ihieikoi bati

Hill baitcitçaion berriki

Çacur arraça oneco bat,

Coiña, ciñez baitçaducan

Lehoiñ baten sabelean

Cela gan aloyitcerat :

Artçaiñ bat ikhusi çuen :

Eracux çadaçu arren

Diotço, nere ohoiñaren

Etchea nonxu othe den ;

Dukedan orai beretie

Arraçoiña haren-ganie.

Artçaiñac baderra bada :

Mendi horren aldera da :

Illea pagatcen ehuchen diodala

Cikiro baten grabela,

Campaiña gucian libre

Gogara ni banabilke,

Eta trankill banagoke

Horla çaudela hitzketa,

Lehoiña hor yalguiten da :

Fanfarruna laster gordetcera dago:
 O Yupiter oybuz dio:
 Eracuz cadaçu ihes-lekhu cembait
 Escapa nadiñ nolazpait.

Curaya eguiazcoa ezta ohi frogateen,
 Erbiez unkiteen den, lanyerean baicen:
 Hulaco baçabillan, lanyeraren billha,
 Berac eeen cerran hala;
 Çoiña, bertceric derrala,
 Ikhuşi dueneco, ciñez dathorrela,
 Ihesari baitçaio lotcen berehala.


FABLE XXV.

(3.^e DU LIVRE II.)

OXOA NAUCITAN ACHERIAREKIN CHIMINDAREN AITCINEAN.

Oxo batec cerran noizbait
 Çiotela ebaxi cerbait:
 Acheri bat hauçocoa
 Aski bici gaitztocoa,
 Laster çuen acusatu,
 Eta yuyetara deithu:
 Chimiua emanic yuye
 Pletizua ciren luce:
 Ez abocaten mihiaz
 Baiña bacotcha bereaz

Nihoiz chimino orhoitean
 Nihongo tribunaletan,
 Etcen aguertu garabie
 Causa nahasiagorie,
 Yuyatceco gaitçagorie:
 Yuyea bere foteillan
 Çagon icerdi-phaxetan:
 Pletiac luçaro cirenean eguin
 Elhe eta haro ascorekiñ;
 Yaun yuyec baitçakien
 Biac çoiñ gaitztoac ciren,
 Maitheac, derroie, duela ya aspaldi,
 Nic ongui badakit çuen bien berri:
 Horren-gatie, bieç baduçue hemen
 Yustu den amanda berdiñ pagaturen.
 Hi ecen, oroa, haiz errencuratcen
 Hartu deus ez çaiken arren:
 Aldiz, acheria, hic duc eramana
 Hemen galdetcen çaikena.
 Yuyeari hemen ciduritçon naski,
 Yuyaturie ere, casic nola nahi,
 Condenatcean bandit bat,
 Trompa ez daitekela hambat.



HITZTEGUI CHUMEA

LIBURU HUNTAN EMPLEGATUAC DIREN USAYAZ

CAMPOCO HITZ BATQUEN ENDELGUTAN.

A.

borro	<i>Guehiago.</i>
saia	<i>Phoça, aleguera.</i>
leguiña	<i>Eguin-ahala.</i>
maoz, arauz	<i>Iduriz, aparantciaz.</i>
chatcho	<i>Cuchean, istant berean.</i>

B.

teman	<i>Ematen çuen.</i>
tematçan	<i>Ematen cituen.</i>
temon	<i>Ematen cion.</i>
erratenac	<i>Erraten çutenac.</i>
akhar	<i>Ekhartcen da.</i>
akharzte	<i>Ekhartcen dituzte.</i>
akhart	<i>Ekhartcen dut.</i>
akhartz	<i>Ekhartcen ditu.</i>
akhartse	<i>Ekhartcen dute.</i>
agot	<i>Egoten, edo Guelditcen çait.</i>
erna	<i>Ematen du.</i>
emaitçut	<i>Ematen dautçut.</i>

Bademaizcun	<i>Ematen dauzkigun.</i>
Bademate	<i>Ematen dute.</i>
Bademo	<i>Ematen dio.</i>
Bademot	<i>Ematen diot.</i>
Baderra	<i>Erraten du.</i>
Baderrakegu	<i>Erran deçakegu edo badiokegu.</i>
Baderraket	<i>Erran deçaket.</i>
Baderraicu	<i>Erraten daroçu.</i>
Baderraitçut	<i>Erraten daitçut.</i>
Baderro	<i>Erraten dio.</i>
Baguiñerro	<i>Erran baguiñego.</i>
Bahakharnat	<i>Ekhartcen daunat.</i>
Baididuritçoke	<i>Iduri baidakioke.</i>
Baidathor	<i>Heldu, edo Yiten baita.</i>
Baidathorco	<i>Heldu, edo Yiten baitçai.</i>
Baitcerron	<i>Erraten baitcion.</i>
Balemake	<i>Eman leçake.</i>
Baliduritçuke	<i>Iduri litçaitçuke.</i>
Balirote	<i>Bakioçate.</i>
Biz	<i>Dela, bedi.</i>

C.

Çaizte	<i>Çaizcote.</i>
Çakhorztela	<i>Ekhartcen ciotçatela.</i>
Çaroen	<i>Cioten.</i>
Çeican	<i>Cioçaken.</i>
Cemacón	<i>Eman cioçan.</i>
Cemakidakenic	<i>Eman cieçakedanic.</i>
Cemoketenic	<i>Eman ceçoketenic.</i>
Cemon	<i>Ematen cion.</i>
Cemotet	<i>Ematen ciotet.</i>
Cerrala	<i>Erraten çuela edo ciuela.</i>

erratu	<i>Erraten çuen edo cioen.</i>
iduriteçon	<i>Iduriteen citeaçion.</i>
iduriela	<i>Iduri cinduela.</i>

D.

diote	<i>Diotçate.</i>
ekhar	<i>Ekharteen du.</i>
ekharco	<i>Ekharteen dio.</i>
ekharla	<i>Ekharteen duela.</i>
ekhart	<i>Ekharteen dut.</i>
emadan	<i>Eman deçadan.</i>
emaicunic	<i>Ematen daucunic.</i>
emaicute	<i>Emaiten daucute.</i>
emaitan	<i>Ematen dautan.</i>
emaitçuket	<i>Eman dieçaçuket.</i>
emaizkigu	<i>Ematen dauzkigu.</i>
emake	<i>Eman deçake.</i>
emala	<i>Eman deçala.</i>
emana	<i>Ematen duena.</i>
emo	<i>Ematen dio.</i>
emoçuekete	<i>Eman dieçoçueke.</i>
emotçan	<i>Eman ditçon.</i>
erra	<i>Erraten du.</i>
erraiela	<i>Erraten diotela.</i>
erraiçu	<i>Erraten dauçu.</i>
errakioten	<i>Erran dakioten.</i>
erro	<i>Erraten dio.</i>
erroie	<i>Erraten diote (batec cembaitel).</i>
erralaric	<i>Erraten duelarie.</i>
errrolarie	<i>Erraten diolaric.</i>

E.

Erkhateca	<i>Comparatcea.</i>
Etceitçaten	<i>Etcitçaten.</i>
Ez-baitcirauken	<i>Ez baitceçaken iraun.</i>
Ez-çathorcolarie	<i>Heldu edo Yiten etcitçaiolarie.</i>
Ez-demoten	<i>Ez dioten ematen.</i>
Ez-demaitçuket	<i>Ez dieçaçuket eman.</i>
Ez-ilerat	<i>Eztut erraten, edo Ez diot.</i>
Ez-nerrake	<i>Ez neçake erran.</i>

G.

Garabic	<i>Bathere, niholere.</i>
Gathorz	<i>Heldu edo Yiten gare.</i>
Gathorzkitçu	<i>Heldu edo Yiten gaizkitçu.</i>
Guirade (berxutan)...	<i>Gare.</i>

H.

Her	<i>Heier, heiki, hekieri.</i>
Herena	<i>Hirur garrena.</i>
Hiro	<i>Heçake</i>

I.

Iñoiz	<i>Niñoiz.</i>
Iphiñi	<i>Eçarri, plaçatu.</i>
Irtan	<i>Ilki, athera.</i>

L.

Liçatekela	<i>Laitekela.</i>
Lidurikete	<i>Iduri lukete.</i>
Lironic	<i>Leçakenic.</i>

M.

Morroña *Mutico gaztea.*

N.

Nathor *Heldu edo Yiten naiz.*

Nerraken *Erran neçaken.*

Niro *Neçake.*

T.

Tipustean *Betbetan, ustecabean.*

Tontorroan *Goi-goican, punta-puntan.*

Tortilla *Ometeta, arraulce yoc.*

g





TABLA

EDO.

FABLEEN AURKI-BIDEA.



LIBURU. PLAMA.

Acheria eta Akerra.....	1. ^{ad}	41. ^{ad}
Acheria eta Belea.....	1	1
Acheria eta Cigoña.....	2	50
Acheria Buztanaz gabetua.....	2	69
Acheria, Chiminoa eta Animalaeac. . .	3	95
Acheria eta Mahax-mulcoac.....	3	128
Acheria eta Oxoia.....	6	267
Acheria eta Indi-Oillascoac.....	6	507
Acheria eta Guña-Itchura.....	6	314
Acheria eta Oillarra.....	3	156
Acheria eta Gathua.....	4	146
Acheria, Borlaria eta Ora.....	6	280
Acheria, Lehoña eta Oxoia.....	2	74
Acheria, Oxoia eta Galdia.....	6	273
Acheria, Uliac eta Sagarroia.....	4	186
Acheria, Oxoia eta Lehoña.....	2	74
Acheria eta Lehoñ eria.....	3	122

TABLA.

	LIBURU.	PLAMA.
Agudea eta Astoa.....	2. ^{on}	85. ^{on}
Agudea eta hirur Yaunttoac	4	150
Akerra eta Acheria.....	1	41
Alhargun gaztea	6	264
Allauda, Belatcha eta Ibiztaria ...	4	174
Amiamocoa eta Arraiñac	1	29
Andreyerra, Lapiña eta Gathua.....	5	232
Andreyerra soñllaru batean saribua,	5	208
Animaleac, Chiminoa eta Acheria..	3	95
Animaleac icurriteaz erituac	4	157
Apoarmatua eta Bi Ahateac.....	5	253
Apoarmatua eta Herbia	2	57
Arraiñ tikia eta Arraintçalea.....	2	46
Arraiñac eta Amiamocoa.....	1	29
Arraiñac eta Bufuna	4	155
Arraintçalea eta Arrain tikia.....	2	46
Arranoa eta Phica	4	180
Arranoa eta Untça	5	222
Arratoiña ermitau	1	24
Arratoiña eta Ostria	1	27
Arratoiña eta Elefanta	3	124
Arratoiña eta Iguela	2	64
Arratoiña eta Gathua.....	5	244
Arratoiñen biltçarra	6	302
Artçaiña eta Arthaldea	5	253
Artçaiña eta Erreguea.....	6	315
Artçaiña eta Ixasoa	2	82
Artçaiña eta Oxoia	5	258

LIBURU. PLAMA.

Astoa eta Chacur ttikia.....	1. ^{an}	21. ^{an}
Astoa eta Ohoiñac.....	1	34
Astoa eta Agudea.....	2	83
Astoa eta Camaria.....	3	125
Astoa eta Ora.....	1	36
Astoa eta bere Nausiac.....	2	59
Astoa erlekiekin.....	3	106
Astoa ihiclan.....	1	22
Asto cardoz cargatua, eta Asto gat- ceaz cargatua.....	6	305
Axoia eta Bi Nescatoac.....	2	77
Belea eta Acheria.....	1	1
Belea, Arranoa imitatu nahia.....	5	255
Bi Ahuntçac.....	6	296
Bi Ahateac eta Apearmatua.....	5	255
Bi Ahuntçac.....	4	183
Bi Andreyerrac eta Gau-Ainhara.....	6	275
Bi Astoac, Chiminoa eta Leboiña.....	6	291
Bi Compainçeroac eta Hartça.....	4	165
Bi Guizonac eta Tresora.....	3	117
Bi Medicuac.....	1	46
Bi Mulac.....	1	8
Bi Nescatoac eta Axoia.....	2	77
Bi Ogrinac eta Ostria.....	1	18
Bi Oxoia eta Oxoia.....	1	9
Bi Oxiaria, Ora eta Acheria.....	6	280
Bordaria eta Yupiter.....	4	140
Bufuna eta Arraiñac.....	4	155

	Linhas	Praxas
Bardineasco choa eia Lucrezom	2	39
Buru pelatus.	1	14
Caldia eta Oxog.	2	72
Caddia, Oxog eia Arberia	6	916
Caldia eta Urbsia	4	144
Camaru eta Arberia	5	125
Capotata eta Bankiera	2	79
Caro-Caga eta Camotia	5	507
Camina eta Caro-caga	6	207
Caros eta Urbs	4	172
Chimora	6	172
Chimora, Arberia eta Auguata	5	95
Chimora eta Biru idigantia	5	915
Chimora eta Caldia	5	11
Chimora, Arberia eta Urbs	6	251
Chimora eta Urbs	1	2
Chimora eta Urbs	6	250
Chimora eta Urbs	2	50
Chimora eta Urbs	5	104
Chimora eta Urbs	4	101
Chimora eta Urbs	5	217
Chimora eta Urbs	2	30
Chimora eta Urbs	2	47
Chimora eta Urbs	3	102
Chimora eta Urbs	4	202
Chimora eta Urbs	5	101
Chimora eta Urbs	6	172

